# goiena"
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2015-03-27
EGUBAKOITZA
634. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM


## Gorlako Igoera hainbat berritasunekin dator oraingo domekan | 30

## Euskarazko ahozkotasuna indartzeko programa Bergaran | 19

**GEHIGARRIA, BARRUAN**
Ezkontzen gaineko informazioa | 33




Asteon onartu dituzte Aramaioko aurrekontuak | 28



**KORRIKA**
Korrikaren gaineko orrialde bereziak | 2



### ORDU ALDAKETA
Udako ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira. Gogoratu!

### SINADURAK
DIEGO MARTIARTU | 8
8 | TXOMIN MADINA
NEREA MAKAZAGA | 14
19 | MARIJE UGALDE
AINHOA NEGERUELA | 22
28 | XABI IGOA
ANDER ETXEBERRIA | 48




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:
- Jon Salaberri, hiesdunen aldeko ekintzaile ahaztua
- Maider Unda, borroka libreko txapelduna

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

### APIRILAREN 17RA ARTE, PARENTESIA
Aste Santuko oporraldia dela-eta, hurrengo GOIENA apirilaren 17an, egubakoitza, argitaratuko dugu. Ondo izan!




# Manex Agirre
Bigarren aldiz jantzi du aramaioarrak txapela, joan den zapatuko finala irabazita. | 39

Manex Agirre, txapeldunaren ikurra den txapela esku artean duela, pozik, eguaztenean. | JAGOBA DOMINGO

# Eskoriatzatik munduko txapelketa jokatzera
Atama kenpo taldeko bi borrokalari Turkian lehiatuko dira, apirilean hasita | 32


SEAT LEON ST X-PERIENCE



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!
Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70
SEAT



DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 8 | HERRIAK 12 | KIROLA 30 | KULTURA 39 | GAZTEAK 41 | ZURE IRAGARKIAK 42 | ZORION AGURRAK 43 | TELEBISTA-IRRATIA 44 | EZKONTZAK 45 | ESKELAK 45 | NON-ZER 46

# Azken pausoak euskararen bidea zabaltzen laguntzeko

▶ Goienak zuzeneko jarraipena egingo du, 11:30etik 13:15ak arte
▶ Debagoieneko ibilbidearen saioa gaur, barikua, emitituko du, 22:00etan

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Azken kilometroak egingo ditu egunotan Korrikak, helmuga duen Bilbora ailegatu eta Urepele eta Bilbo arteko 2.161 kilometroetan euskararen aldeko mezua, oihartzuna eta grina barreiatzeko.

Gaur, egubakoitza, Nafarroan ibiliko da; bihar, berriz, Nafarroan egin beharreko ibilbidea bukatuko du, Sakanan; handik Arabara sartuko da, eta, eguna probintzia horretan eman ondoren, Bizkaira iritsiko da atzera ere, gauez.

Hain justu, bertantxe jardungo du, harik eta –aurreikuspenen arabera– 07:23an Bilbora sartu arte. Zehazki, 12:30ean bukatuko du 19. edizioari dagokion ibilbidea Korrikak.

**Jaigune erraldoi**

Hain justu, euskaltzale eta *euskahaldun* ugari bertan izango ditu zain hamaika egunez eskuz esku pasa den lekukoak, merezitako ongietorria emateko. Eta orduantxe irakurriko dute Korrikaren aurtengo mezua –oraingoz sekretua dena, jakina.

Bada, hori guztia borobiltzeko, Bizkaiko hiriburua jaigune erraldoi bilakatuko dute, lau esparrutan, eguerdian hasi eta gauera arteko ekitaldiekin.

**Kherau, Anje Duhalde...**

San Nikolas –eliza aurrealdea– gunean hasiko dira ekitaldi goiztiarrenak, huraxe izango da-eta Korrikaren amaiera gunea.

Hala, 12:30ean lekukoari ongietorria eman ostean, lau musika saio izango dira: 14:00etan Korrika abesti taldearena; 15:30ean Kherau taldearena; 17:30ean Anje Duhalderen txanda izango da, eta gune horretako saioak bukatuko dira 19:30ean, Izerdi Gorriaren erromeriarekin.

**'Mokofin' gunea**

Areatzakoa izango da, baina, bukaera jaiko gune nagusia. Inguru horretan egokituko dute jan-edana –euskal produktuekin–, Korrika denda, tonbola, *infogunea* eta gaztegunea.

Hain zuzen ere, gazteendako gune horretan musikak izango du protagonismoa: 14:30ean Xutik, 16:00etan Eskean Kristo; 18:00etan Betagarri eta 20:00etan Ze Esatek taldeen kontzertuekin.

**Arriaga plaza**

Ikuskizunen agertoki bilakatuko da, berriz, Arriaga plaza. 13:00etan Ondalan eta Areatzako erraldoien kontzentrazioa izango da; 14:00etan Gaztedi Dantza Taldearena; 16:00etan, Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federazioa, eta 18:00etan Xapoka Antzerki taldearena.

**Umeak, Erripara**

Bestalde, txikitxoenendako puzgarriak, Irrien Lagunak –Porrotx, Olibatxo, Largabista eta Pupu eta Lore– eta tailerrak izango dira, 13:30ean hasita, Erripa gunean. Asier Kidam magoa ere gonbidatu dute, 14:30ean. Eta Arrasateko Txatxilipurdik karaokea egingo du 16:00etan. 18:00etan bukatuko da esparru horretako jarduna, Arrantza dantzarekin.

**Musika gehiago**

Bilbo Zaharrak ere hartuko du Korrikaren ospakizunaren zati bat, musika eran. 14:30ean hasi eta 19:00ak arte: Sutan taldeak jardungo du lehenengo, 16:00etan, berriz, Elortegi anaien txanda izango da; 17:30ean Revolta Permanent-ena eta bukatu DJ Elepuntok bukatuko du, 19:00etan hasita.

**Zazpi kaleak**

Eta behin Bilbon egonda, ezin bestela izan eta zazpi kaleak ere aintzat hartu dituzte agertoki izan daitezen: artisau erakusketa izango da Plaza Berrian eta bertso-batukadak, gaiteroek, erraldoiek eta joaldunek girotutako kale-animazioa kaleetan zehar.

## Autobusak eskualdetik

**LEINTZ IBARRA**

Aretxabaletatik 09:00etan aterako da (Azbe); eta Arrasatetik 09:15ean (Garibai). 20:00etan, berriz, du bueltarako ordua. Izen-ematea: Loramendin (Aretxabaleta) eta AEDn eta AEKn (Arrasate).

**OÑATI-BERGARA**

Oñatitik 09:00etan aterako da bus geltokitik eta Bergaratik, 09:15ean (bus geltokitik). Bi herri horietara ere 20:00etan bueltatuko da. Izen-ematea: Oñatin, Txantxiku Ikastolan, Urgain Herri Eskolan, Elkar Hezi ikastetxean eta kultura etxean. Eta Bergaran, Jardun euskara elkartean.


Oñatiko zinegotzi Zubia eta Jokin Astigarraga.


Zubillagako suhiltzaileek kan


Debagoieneko Ospitaleko langileak, euskararen aldeko kamisetarekin.


Aret


Elurrak harrapatu zituen Artemaneko ordezkariak Aramaiorako igoeran.


Rosa Mondragon, Aramaioko Udaleko Euskara teknikaria.





emun EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA
ALDEDI FERRETERIA
Aretxabaletako Udala
ARETXARGI
arizmendi ikastola
goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
MIKEL LASA Aseguru-artekaritza
MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA
ELKAR HEZI ikastetxea
arrasate Herri Eskola
iker, s.l. sukaldeak | etxea | armairuak
ARANZADI ikastola Kalitatezko Euskal Hezikuntza
Elgetako udala
INDUSTRIAS FEGAR, S.A.
FAGOR TALDEA
goieskola www.goieskola.hezkuntza.net
MILAR ELKORO ARRASATE Herran BERGARA


…nioiak–eta atera zituzten harrera egiteko.


Arrasateko dultzaineroak, euren txapel gorri eta guzti.


Eroskiko ordezkariek Eroski parean hartu zuten lekukoa.


…xabaletako Bolinaga alkatea eta Errasti aktorea (lekukoaren atzean).


Aretxabaletako Loramendi euskara elkartearen izenean.


GSRko langile eta egoiliarrek lehen aldiz parte hartu zuten Korrikan.

# Oztopo guztien gainetik, segi Korrika!

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Euriak, elurrak, hotzak… ez zuen galarazi debagoiendarrek tinko eustea Korrikaren lekukoari harik eta euskararen aldeko lasterketak Bizkairako bidea hartu arte. AEK-ko Debagoieneko ordezkari Oskar Elizburuk hauxe esan zuen: "Lan handia egin da, laguntza handia eman zaio AEKri eta Korrikari, eta bihotzez eskertzen dugu, kilometro pila lagundu direlako. Ondorioz, espero genuen jendetza egotea, eta hala izan da; eguraldiak ez du batere lagundu, baina, hala ere, ikustekoa izan da zenbat jende ibili den, eta oso pozik gaude".

**'Euskahaldun', baita bihar, etzi, etzidamu… ere**

Euskarari bultzada eman ostean, nor bere bizitzan eta esparruan *euskahaldun* segitzeko mezua helarazi du Elizburuk: "Esan dugun hori konplitzeko aurrera begira: *euskahalduntzeko*. Hori da helburua, ez bakarrik dirua batzea, baizik eta Euskal Herria *euskahalduntzea*, euskaraz bizitzeko aukera jartzea".

ARGAZKIAK: AMAIA TXINTXURRETA; JULEN IRIONDO ETA LARRAITZ ZEBERIO.


Goienari, Untzillarako sarreran egokitu zitzaion lekukoa hartzea.


Mondragon Taldearen izenean, Ainhoa Zeziaga eta Mikel Lezamiz.


Eguzkilaruren (Txatxilipurdi) laranja koloreak ere lagundu zion Korrikari.


Arrasateko alkatea eta zinegotzia.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
BASTIDA
Kutxa — Bidebarrieta - OÑATI Tel.: 943 783444
Mariaren Lagundia Ikastola
Espaloia 1
Tel. 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net
www.mlagundia.net
DESACRISTAL
Urgain ESKOLA
itesa
KURTZEBARRI EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA
Bergarako Udala
Osakidetza Debagoieneko ESI
merkecartuchos
metagra
NACEX
OÑATIKO UDALA
XANTXIKU ELEKTRIZITATEA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
TECNOSYSTEM
UDALAITZ ARRASATE - MONDRAGON
EGUZKIGRAF INPRIMATEGIA



Angiozarko bailarakoak Bergarako Labegaraieta inguruan.



Jose Luis Elkorok Bergaran hartu zuen lekukoa Antzuolako Elay enpresaren izenean.



Irati Alberdik –25 urtekoa– eraman zuen lekukoa Jardunen 25. urteurrenean.

## Markak erabat hautsita

**56.558 BISITA**
Ia 60.000 bisita izan zituen *Goiena.eus*-ek astelehenetik eguazten eguerdira arte. Bisita horiek guztiek 113.654 orri ikusi zituzten.

**47.411 ERABILTZAILE**
Epe berean konexio bakar kopuru hori sartu zen *Goiena.eus*-era, Google Analytics-en kontaketaren arabera.

**2.741 BISITA ORDUKO**
Batez beste, eta bisitak egin ziren orduetan, bisita kopuru hori egon zen orduko astelehenean *Goiena.eus*-en.

**'STREAMING'-A**
Domeka eguerdian, Korrikaren amaiera saioa zuzenean jarraitu ahalko da *Goiena.eus* atarian, *estreaming* bitartez.



Elgetarrak animoso Goibekoren kilometroan.



Iban Erretolatza zinegotzia eta Oxel Erostarbe Elgetako alkatea .



Elgetako neska-mutikoek Korrika nagusian parte hartu zuten.

# Korrika Debagoieneko mugetatik kanpo, lekukoarekin edo barik



IZASKUN ELLAKURIAGA

**OMEMENDU BEREZIA** Korrikak Durangoko Azoka omendu du aurten, eta martitzenean egokitu zitzaion kilometroa azokaren antolatzaile Gerediaga Elkarteari. Frankismoaren ilunenean ekin zion elkarteak ondarearen, kulturaren eta euskalgintzaren alde lan egiteari, eta, hori txalotuta, omenaldia jaso dute Korrikan.



GOIENA

**DUBLINEN (IRLANDA)** Talde mardula batu zen Irlandako hiriburuan Korrika egiteko. Arrasatearrak dira batzuk, eta joan den domeka aprobetxatu zuten Korrikarako.



T.M.

**IBARDINEN (NAFARROA-LAPURDI)** 499. kilometroari zegokion lekukoa harro-harro eraman zuten argazkiko 30 oñatiar horiek joan den zapatuan, Ibardingo gainean hasi eta Lapurdiko sarreraraino.

# Txikienek ere handi egin zuten Korrika, Oñatin, Bergaran eta Antzuolan

Gainontzeko herrietan bertan behera utzi behar izan zituzten Korrika Txikiak


Bergarako San Martin Eskolako irakasle eta ikasleak. | IMANOL GALLEGO


Elkar Hezi ikastetxekoak oñatiarren begiradapean. | OIHANA ELORTZA


Aranzadi Ikastolakoek globoekin jarri zioten kolorea Korrikari. | I.G.

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Korrika pasatzen denetan ohi denez, Debagoieneko ikastetxeetan asteak eman dituzte Korrikaren gainekoak partekatzen: kantua ikasten, *merchandising*-a –petoak...– marrazten eta astelehenerako Korrika Txiki guztiak abiatzeko gertu lagatzen.

Baina astelehenean ikastetxeetara iritsi eta zerura begira jarri behar izan zuten, eguraldi petrala ikusita eskualdeko neska-mutikoak kalera atera edo ez erabakitzeko.

Eta ezezkoaren alde egin zuten Arrasaten, Eskoriatzan –gatzagarrek ere eskoriatzarrekin batera egin behar zuten–, Aretxabaletan eta Aramaion. Elgetan, berriz, aldez aurretik erabakita zuten Korrika nagusian parte hartzea, eta hala egin zuten.

**Txano eta guardasolekin**

Bergaran, berriz, Korrika nagusiari pasatzen utzi ostean irten ziren bertako hiru ikastetxeetako ikasleak kalerik kale, San Martin plazaraino. Gauza bera egin zuten, baina arratsaldean, Oñatiko hiru ikastetxeek. Eta Antzuolan ere arratsaldez jardun zuten tipi-tapa, tipi-tapa.


Txantxiku Ikastolakoak eskuak altxatuta Korrikaren alde. | O.E.


Mariaren Lagundikoek eraman zuten lekukoa plazaraino. | I.G.


Urgain Herri Eskolako neska-mutikoak lekukoa partekatzen. | O.E.


Antzuolako ikastetxeko neska-mutikoek aterpea aprobetxatu zuten Korrika egiteko. | MAIDER ARREGI

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI zurekin
Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30
www.eroski.es

MARTXOAREN 27AN ETA 28AN
20€ baino gehiagoko erosketetan
kanpo altzarietan, kanpaldirako gaietan, barbakoetan, igerilekuetan eta lorategian
BEZ BARIK
TERRAZAN ETA LORATEGIAN *
* ikusi baldintzak dendan
Bazkideendako bakarrik
BEZa itzuliko dizugu ZURE TXARTELEAN

ESKAINTZA bereziak:
Kantauriko legatza 5,50 €/kg
Arkumea 10,95 €/kg
Eskaintza baliagarria Arrasateko Eroski hipermerkatuan apirilaren 8ra arte.

MARTXOAREN 28AN, ZAPATUA
SUKALDE TAILERRA
Euskal arkumearen sekretuak
Bi errezeta prestatuko ditugu
Dastatze ordutegia:
12:30ean eta 13:00etan

# Candyko langileek oniritzia eman diote eskuterrak egiteko proiektuari

▶ Asmo-aitorpen bat sinatu dute, eta Optimizeren proiektua babestu

▶ Orain, negoziatu egin beharko da hainbat eragilerekin; tartean, Candyrekin

**L.Z. / L.K.** | BERGARA

Candyko langileek ontzat eman dute Luxemburgeko Optimize enpresak aurkeztu duen proiektua, eskuter elektrikoak egiteko lantegia sortzekoa, hain zuzen ere. Horrela erabaki zuen atzo, eguena, goizean izandako batzar baten enpresa batzordeak, eta, horrela berretsi zuten arratsaldean izandako batzarrean, honako emaitza honekin: 59 alde, 5 kontra eta 10 langilek ez dute botorik eman. Memorandum bat sinatu dute baiezkoa emanez, baina dokumentu hori asmo aitorpena besterik ez da; hau da, ez da loteslea. Edozein modutan, Optimize enpresak ohartarazi zuen bere proiektua ez bazuten onartzen, atzera botako zuela Candy Hooverren instalazioetan eta hango langileekin inongo proiekturik aurrera ateratzeko asmoa.



Langileen batzarra atzo, eguena, Bergarako osoko bilkuren aretoan. | M.D.

Bestalde, proiektu horren gaineko erabakia hatzeko epemuga martxoaren 31 dela kontuan hartuta, langileen iritziak eragileengan –Optimize enpresa, Candy multinazionala eta Foru Aldundia, nagusiki– bere pisua izango du, batik bat kontuan hartzen bada enpresa-proiektu berria ezartzeko, seguruenik, langileen kalte-ordaineko dirua behar izango dela. Beraz, orain negoziatzeko epea irekitzen da.

### Bide luzea geratzen da

Hala, oraindik bide luzea geratzen da Optimizeren proiektuak aurrera egingo badu. Esaterako, Candy multinazional italiarrak zeresan handia du, hark alokatu behar baititu instalazioak. Bestetik, langileek Luxemburgoko inbertitzaileekin negoziatu beharko dute nola egin Bergaran motor elektrikoak muntatzen hasteko urratsak. Hala, inbertsioak, langileen kalte-ordainak eta enpleguari dagokion bermeen atala zehaztu beharko dira.

Memorandum horrek finantzazioaren atala lantzen du, besteak beste. Izan ere, proiektua abiarazteko behar den inbertsioa zehaztu behar da. Langileek kapital bat ipiniko dute, baina oraindik ez da erabaki zenbat izango den. Horrekin batera, inbertitzaile nagusien konpromisoak ere jaso behar dira idatziz. Eta horrez gain, banketxeekin negoziatu beharko da haiek egingo duten diru-ekarpena.

Foru Aldundiak, berriz, proiektuaren bideragarritasuna aztertuko du, eta hala agindu zien Candyko langile bergararrei.

### EAJren kritika Aldundiari

Bestalde, Bergarako Udaleko EAJko hainbat zinegotzik agerraldia egin zuten eguazten goizean Candyren gaian Foru Aldundia izaten ari den jarrera salatzeko. Diputazioari egotzi diote zabalik dagoen prozesua bere intereserako "mediatikoki erabiltzea", eta ohartarazi dute horrek arriskuan jar dezakeela edozein proiektu industrial gauzatzea.

Juanje Alberdik, egun Bergarako EAJren zinegotziak eta alkategaiak, Candyko langileei eta aurrera eramaten duten edozein proiektu industrial sendori babesa adieraziaz hasi zuen agerraldia. Esan zuen azken hilabeteotan prozesuan zerikusia duten eragileekin bildu direla eta bitartekari lanak ere egin dituztela, baina ez dutela adierazpenik egin, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari leporatu zion Candyren inguruko prozesuaren erabilpen mediatikoa egitea: "Prentsaurrekoetan, publizitate instituzionalean eta artikuluetan prozesua bere intereserako ari da erabiltzen Diputazioa".

# Apirilaren 15ean eta 16an egingo dute Goiaz azoka

**L.K.** | ARRASATE

Apirilaren 15ean eta 16an izango da aurtengo Goiaz, Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka. Ohi bezala, Kulturaten izango da eta bailarako Lanbide Heziketako zentro guztiez gain, beste hainbat erakundek parte hartuko dute.

Pil-pilean dauden gaiak landuko dira hitzaldietan. Adibidez, lan-esperientziaren bidez lortutako konpetentzia aitortzeko moduak azalduko dituzte eguaztenean, 18:00etan. Eta eguenean, 11:00etan, Ethazi sistema dualarekin eta Erasmus programarekin izan dituzten esperientziak azalduko dituzte hainbat ikaslek eta zentrok, 11:00etan. Beste hitzaldi batzuk ere izango dira.

NiNeu bideocurriculum lehiaketako sariak emango dituzte eguaztenean, 17:00etan.

### Edozeinendako zabalik

Ohi bezala, interesa dutenek zabalik izango dituzte azokako ateak 09:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:30era bitartean.



MIRARI ALTUBE

## Aita Menni gogoan, Eskoriatzan

Eskoriatzako MUren Huheziko fakultatean Aita Benito Menni omendu dute astean; izan ere, jauregi horretan zabaldu zuen buruko gaixotasunak zituztenendako lehen zentroa, 1875ean. Eta horren berri ematen duen plaka jarri dute. Ahizpa Ospitalariak ospatzen dabiltzan haren heriotzaren ehungarren urteurreneko ekitaldien artean dago.

## 'Arizmendiarrieta.com' webgunea sortu dute, sustatzailearen mendeurrenaren berri emateko

Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren sustatzailearen jaiotzaren urteurrena den honetan, *Arizmendiarrieta.com* webgunean ospakizunen agenda osoa jaso da eta Arizmendiarrietaren lana eta pentsaera ezagutarazteko tresna izango da. Ospakizunen hasiera apirilaren 17an egingo dute, Kursaalen. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eta Donostiak Orfeoiak parte hartuko dute ekitaldian.

# Kataluniako askapen prozesuaren berri eman du CUPek Debagoienean

EH Bilduk gonbidatuta, CUPeko Xavier Genero Oñatin eta Bergaran izan da

**LEIRE KORTABARRIA** | OÑATI

Kataluniako CUP Alderdiko Xavier Genero Oñatin eta Bergaran izan da egunotan, hango prozesu independentistaren berri eman eta Euskal Herrian, batez ere udalgintzan, EH Bildu egiten dabilen lana ezagutzeko. Hasieran ERCko kide bat ere etortzekoa zen, baina, Alpeetako hegazkin istripuan ERCko buruzagi baten emaztea hil dela-eta, bisita hori bertan behera geratu zen. Oñatin, eguaztenean, EH Bilduko alkate eta alkategai batzuekin batzartu zen. Gero, prozesu independentistaren gaineko berriketaldian parte hartu zuen. Udaletan batzuek eta besteak egiten dabiltzan lanaren berri eman zioten elkarri.



Xavier Genero –bigarrena eskumatik–, EH Bilduko ordezkariekin. | L. KORTABARRIA

Generok esaten duenez, alderdi independentista katalanak hango erkidego hauteskundeak ere prestatzen badabiltza, udal hauteskundeez gain. Honela azaldu zuen: "Ustez, izaera plebiszitarioa dute hauteskunde horiek, eta nahi dugu jendea konturatzea helburua ez dela bakarrik ordezkari batzuk aukeratzea, konstituzio-prozesu bat hastea baizik, Espainiako estatuarengandik banantzeko".

Berriketaldiak aprobetxatu zituen Generok bere bilgune politikoa aurkezteko.

### Eguneroko lana

EH Bilduk gonbidatu zituen ordezkari katalanak Euskal Herrira. Bailarako EH Bilduko kide Ibai Redondok honela azaldu du bisita horren helburua: "Asmoa da Kataluniako askapen prozesua ezagutzea. Prozesu horretatik irakaspen asko ditugu ikasteko". Batez ere, udalgintzan batzuk zein besteak egiten dabiltzan lana azaldu zioten elkarri.

Honakoa gaineratu du Redondok: "Askapen prozesua indartzeko eta berau herrietan ondo errotzeko, eta prozesu horri ezaugarri ezkertiar eta herritarrak emateko, oso inportantea da udaletan egiten ari garen lana. CUPek konstituzio-prozesu gisa definitzen du, izan ere, independentzia ez da egun baten bozkatzea, eguneroko eraikitzen den zerbait baizik; udaletan eta kalean, independente izango den herri bat eraikitzea".

# Dagoeneko zabaldu dute GI-632 errepideko Urretxu-Antzuola zatia

Debagoiena Goierri eta Urola eskualdeekin lotzeko balio du zatiak; 2,7 kilometroko bidea da eta tartean 700 metroko tunela dauka

A.T / M.A | ANTZUOLA

Beasain-Bergara arteko ardatza osatzeko urrats garrantzitsua egin dute Bidegik eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Izan ere, inauguratu dute GI-632 errepideko Urretxu-Antzuola zatia. Hala, aurrerantzean ibilgailuek ez dute Deskarga gainetik pasa beharko.

Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako diputatu Larraitz Ugartek inaugurazioan azpimarratu du obra aurreikusitako epean bukatu dutela eta ekonomikoki ere "txukun" amaitu dituztela kontuak. Aurrekontua %16ko desbideratzearekin amaitu da; 42 milioi eurotan esleitu zuten obra zibila eta 50 milioitan amaituko da; instalazioak, aurreikusi bezala, bost milioi inguruan amaituko dira.

Debagoiena Goierri eta Urola eskualdeekin lotzeko balioko du zati berriak, baita Bizkaiarekin eta Nafarroarekin loturak bermatzeko ere. Diputatu nagusi Martin Garitanok azaldu du Gipuzkoako Foru Aldundia oso pozik dagoela egindako urratsarekin eta harro daudela errepidea bera egiteko moduarekin ere.



Agintariak Deskargako tunelean eguaztenean. | AMAIA TXINTXURRETA

**Azken teknologia**

GI-632 errepideko zati berriak 2,7 kilometro ditu eta 700 metroko tunel bat dago. Segurtasun arloan, puntako teknologia aplikatu dute: argiterian, suteen aurkako babes sisteman eta larrialdietako seinaleztapenean, besteak beste.

Suhiltzaileen jarduera bizkorra ziurtatzeko, gainera, kontrolgunetik gidatutako semaforoak ipini dituzte. Instalazio horiek Bergarako kontrol zentroarekin komunikatzen dira. Bergaratik bertatik komunikatzen dira, etenik gabe, AP-1eko eta GI-632 Argisaio eta Deskarga tuneletako operazioak.

**Antzuola-Bergara, bukatzeke**

Orain, Beasain-Bergara arteko ardatza osatzeko, Antzuola eta Bergara arteko zatia egitea falta da.

# Miren Peñari agurra egin eta haren heriotza salatu dute astean Kaleratzeak Stop plataformakoek

J.D / M.A | ARRASATE

Joan den zapatuan bere buruaz beste egin zuen Miren Peña antsoaindarrarekin bat eginez, elkarretaratzea egin zuten Kaleratzeak Stop plataformakoek martitzenean, Arrasaten. Laboral Kutxak Arrasateko Iturriotz kalean duen sukurtsal parean elkartu ziren protestarako. Miren Peñak bere buruaz beste egitearen errudun izatea leporatu zioten batutakoek Laboral Kutxari; izan ere, banku entitatearekin hipoteka -kreditua zeukan Peñak eta elkarretaratzean hipoteka-kreditu horren berregituratzearen ezezkoa leherrarazlea izan dela esan zuten.

**Laborak Kutxaren erantzuna**

Laboral Kutxak, berriz, adierazi du heriotzaren errua ez dela banku-entitatearena, Laboral Kutxak kaleratze prozedura hasi ez zuela azpimarratuta. Gaineratu du ez zutela erreklamazio prozedurarik egin, mailegu hipotekarioak ez zuelako ordaindu bako kuotarik. Horrez gain, azaldu dute Laboral Kutxak egin duen jarduera bakarra Peñak eskatu zuen berregituratze prozesuari erantzuna ematea izan dela; eta ezezkoa eman ziotela eragiketak ez zituelako legeriak eskatzen dituen baldintzak betetzen.



Miren Peñaren heriotza salatzeko elkarretaratzea. | JAGOBA DOMINGO

# Bidegi auziaz eta AP-1 autobidearen egoeraz jardun dute Eskoriatzan

Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako diputatu Larraitz Ugarte egon da Ibarraundin

J.D / M.A | ESKORIATZA

Eskoriatzarrek AP-1 autobidearen gainean dituzten kezkak argitzeko helburuarekin, azpiegitura horren eta Bidegiren gaineko hitzaldia egin du Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako diputatu Larraitz Ugartek Eskoriatzako Ibarraundi museoan, eguaztenean.

2009an bukatu zuten Eskoriatzatik pasatzen den AP-1 autobidearen zatia eta herritarrek salatu dute auzoetako txukuntze lanak egiteke daudela. Ugartek azaldu du lanok konpontzeko bidean direla.

**Bidegi auziaz**

Puntu polemikoena Bidegi auziaren gainekoa izan da. Ugarte diputatuaren esanetan, gaur egun Bidegi karga bat da Aldundiarendako eta aurten 9 milioi euro eman behar dizkiotela azaldu du. Gaineratu du AP-1 autobidearen obren azken likidazioan, 2011ko ekainean, egindako lanetan iruzurra salatu zuela Diputazioak. Ugartek azaldu du frogek argi erakusten dutela iruzurra egon zela eta dokumentuz jositako 80 kaxatik gora aurkeztu dituztela.


Ugarte diputatua eta Bidegiko teknikariak Eskoriatzan. | JAGOBA DOMINGO

# Zabalik dago Eskoriatzako AP-1eko tartea, atzo ezkero

M.A | ESKORIATZA

Atzo, eguena, zabaldu zuten martxoaren 13a ezkero Eskoriatzan, autobideko gasolindegi ondoan, luiziak kaltetutako tartea. Errei bakarra ireki dute, *by-pass* batekin zirkulazioa txandakatuta.

Errei bakar hori, hasiera baten, lau hilabetez egongo da zabalik. Hain zuzen ere, lurrak egonkortzeko lanak amaitu bitartean.

AP-1 autobidean, Eskoriatzan, gasolindegia dagoen lekutik gertu izan zen luizia. Lehena martxoaren 3an gertatu zen. Mendi maldak behera egin zuen eta harri koskor batzuk erori ziren, eta errepideraino heldu ziren. Bigarrena, Gasteizerako errei biak hartu zituena, martxoko lehen astean gertatu zen, toki berean, baina egun zehatza zein izan zen ez dute esan Herrizaingo Sailetik eta Aldunditik. Ordutik hona, autobideko zati hori zeharo itxita egon da bi noranzkoetan, atzo eguerdian zabaldu zuten arte.

# Kultura elkarte ugari, proiektu berri baterako

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Apirilaren 16an aurkeztuko dute Euskal Herriko hainbat kultura elkarteren artean lantzen diharduten proiektu berritzailea. Euskal Herriko Ikastolak EKE, Euskaltzaleen Topagunea, Txatxilipurdi Elkartea, Oarsoaldea eskualdeko Garapen Agentzia, Irrien Lagunak, Pil-pilean Euskara Elkartea, Bizkaiko Urtxintxa Eskola, Xangorin Kooperatiba eta Amarauna aisialdi taldeen federazioa dira, hain justu, proiektua lantzen dihardutenak.

Bada, proiektu horri Diputazioak bideratutako diru laguntza salatu egin zuen Rafaela Romerok Batzar Nagusietan; esan du, adibidez, halako dirulaguntza baten esleipena lehiaketa bidez egin behar dela.

Zigor Etxeburuak, Diputazioko Euskara zuzendariak, berriz, azaldu du "diru aurrerapen hori oso ohikoa" dela Aldundian, "eta egin daiteekeena. Kontua da justifikatu egin behar dela, eta txosten tekniko bat behar da horretarako eta kito".

## Ekin diote, aldi batez, Basaurin termo elektrikoak ekoizteari

Lantegia eta makineria prest, hasi dira Fagor CNA Groupen Basauriko lantegian termo elektrikoen ekoizpenarekin. 45 langilek dihardute, ekoizpenekoak eta sail komertzialekoak, eta zuzendaritzatik diote merkaturatzeko prest egongo direla berogailuak aurki, Fagor Comfort katalogoaren barruan. Oraingo 45 behargineko taldea beste hogei lagunek osatuko dute maiatzetik aurrera. Basauriko ekoizpena, hala ere, aldi batekoa izango da.

## Eguazteneko polizia operazioa salatzeko manifestazioa gaur

Eguaztenean Guardia Zibilak euskal presoen eskubideen alde lanean diharduten herritarren aurka egindako operazioaren ondoren, hainbat herritar atera dira kalera hori salatzera. Esaterako, Oñatin, eguaztenean bertan egin zuten elkarretaratzea eta Arrasaten gaur egingo dute, 19:30ean, Herriko Plazatik abiatuta eta *Aski da, konponbideari erasorik ez, atxilotuak askatu* lelopean. Bestetik, Etxeratek manifestazioa deitu du biharko. Anoetatik abiatuko da (Donostia), 17:30ean.

ZABALIK



**DIEGO MARTIARTU**
goiena.eus/komunitatea/

# Kobazuloa 'revisited'

Ikastetxeetan haur eta gazte hilketa masiboak egitearena aspaldiko tradizioa dugu Estatu Batuetan, baina munduko beste bazter askotan ere jazo izan dira, eta jazoko dira, halako gertakari lazgarriak. Gaiaren gainean hamaika ikerketa egin dira, baita zuzeneko testigantza ugari jaso ere. Hil edo biziko muturreko egoera horietan irakasleek hartutako jokabideak ere halakoak izan dira, muturrekoak, bata bestearen antipodetan koka daitezkeenak. Ikerketen arabera, irakasle batzuek beren gorputza ezkutu gisa erabili izan dute ororen gainetik haurren bizia babesteko. Beste puntan, aldiz, haurren gorputz txikiak babesgarri moduan erabili dituzten maisu-maistrak daude. Egoera berean, erabat kontrajarritako jarrerak: irakasle heroikoak, batetik; koldarrak, bestetik.

> **Ikusmolde zaharrak zalantzan jartzen ditu filmaren egileak**

*Fuerza mayor* izeneko filmean, aita ustez eredugarriak, elur-jausia gainera datorrela eta, bere familia abandonatu eta ihes egiten du koldarki. Aitaren biziraupen senak gaina hartzen dio familia babestekoari. Denak ateratzen dira onik ezbeharretik, alfa arraren rola izan ezik. Elur-jausiaren ondoren, erremedio barik erortzen ikusiko dugu idisko patetikoa. Alfa arraren dekadentziaren bidez, ikusmolde zaharrak zalantzan jartzen ditu filmaren egileak maisuki.

Ahaide hurbilenen aurretik bere bizia jartzen duen aitaren fikziozko kasuak askorako ematen du, ordea, eta batzuek, bista handiz eta euren barbakoara ahalik eta ikatz gehien erakarriz, beste buelta bat eman diote kontuari.

Hor dugu, esaterako, emakumeei zuzendutako *neocon* usaineko webgunea, filmaren harira "ikerlan" baten berri ematen duena: "Emakumeek gizonek baino garatuago daukate umeak babesteko sena". Horratx konklusioa. Hortik aurrera, argi dago: amari dagokio etxean umezain egotea. Horixe ei da "naturalena". Ai, natura!

Lezetxikira bueltatu beharko dugu, natural-natural bizitzeko.

USTEAK USTE

**TXOMIN MADINA** | tmadina@goiena.eus

# Zorionak, printzipe!

Berdintasuna. Horixe izango zen Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira Martxoaren 8an gehien errepikatuko zen hitza. "Umetatik sustatu behar da berdintasuna", esango zuen batek baino gehiagok. Eta gehienok sinatuko genuke hori dioen papera. Baina gero, detaile txikiak dira gure lotsak agerian uzten dituztenak. Nerea lankideak jarri ninduen alertan. Fijatu zarete inoiz Goienaren orrietan agertzen diren zorion agurretan? Bertan, neskak "printzesak" edo "guapisimak" izan ohi dira. Mutilak, aldiz, "txapeldunak". Polita izatea ei da neskendako laudorio handiena; mutilendako, bestalde, zerbaitetan onena izatea. Berdintasunaren adibide garbiak, ezta?

MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | goiena.eus/komunitatea/




HANDIK ETA HEMENDIK

# Kalbarioa

**Elixabete Garmendia**
http://goo.gl/iDzrtF

Malenek, txikitan, *festetako iratzargailua* deskubritu zuen txistularien dianan. Sarak *itsasoa!!!* ikusi zuen marea biziko egun batean Urumean barrena zetorren olatuan. Jonek –5 urte–, angulak zer diren ulertu nahian zebilela, zapla bota zuen definizioa: "A bai! Itsasoko gulak". Metaforak eta irudi literarioak sortzeko gaitasuna ume-umetan jaiotzen da nonbait; gero, idazleek eta sortzaileek, oro har, garatzen dute ahalmen hori. Esaterako Joseba Sarrionandiak, *Sautrela* saioan egin berri dioten elkarrizketan, jaulki du alfa eta omegaren bertsio berritu oso grafikoa: "Bizitza alfabeto bat da. Zetarantz goaz denok".

Zetaranzko joera dauka hemengo zine aretoetara iritsi berri den *Calvary* filmak (Irlanda, 2014). Izenburu horrekin eta protagonista apaiz bat dela jakinda, pentsa daiteke Aste Santurako prestatu ohi duten kartelerako pelikula tipiko bat dela, baina ez. John Michael McDonaghek idatzi eta zuzendutako filmak, erlijio katolikoarekin lotura estua izan arren, erlijiozko generoa gainditu eta giza aberearen etikan –eta etika faltan– sakontzen du, moralkeriatik urruti.

Irlandan elizgizonek haur eta gaztetxoengan eginiko sexu abusuen eskandalua dago oinarrian eta abiapuntuan; hobe esan, sexu abusu horien biktimengan eragindako ondorioak. Hor txanpa hartuta, mendekua, desleialtasuna, egoismoa, harrokeria, zinismoa, hipokrisia eta abar luze batek osatutako arrosarioa aletzen du filmak, karakter arketipikoen bitartez. Hori dena alkoholaren edota kokaren saltsan beratuta. Suizidioaren tentazioa presente dago, eta kasurik inuxenteenean, bizitza ezdeus eta asperrez betetako gazteren bat ageriko da, itxaropenik gabeko etorkizunean itota. Panorama horren aurrean kontrastea egiten duen bakarra James Lavalle apaiza da, Brendan Gleeson aktoreak maisuki gorpuzten duen pertsonaia atipiko samarra, epikotasun berezi batez jantzia astebetean biziko duen kalbarioan.

Irlandan, ipar-mendebaldeko kostaldean dago kokatua istorioa, Sligoko konderrian. [...]

Hemen, libratu ginen halako batean udaberria morez eta beltzez tindatzen zuen Aste Santuaren parafernalia hartatik: baraua eta bijilia, musika profanorik ez, ezta ahapeka kantatzerik ere, eta elizkizun amaigabeetan betiereko infernura kondenatzen zintuzten sermoi trumoitsuak... (Oraindik zain gaude Elizak barkamena eska diezagun gure heziketan eragindako kalteengatik).

Libratu ginen diktadura hartatik eta abiatu ginen beste kodigo baten bila, Jainkoaren mehatxurik gabekoa, pertsonaren neurrikoa, norbanakoaren eta gizartearen intersekzioan.

Denborarekin antolatu dugu balioen ranking bat, baita nolabaiteko joko zelai bat ere bere marra gorri eta guzti, eta hor goaz, Zetarantz, nahiko duin, baina zalantza-balantzarik falta gabe.

Abelera horretan, oraindik jaunartzera doazen *Calvary*-ko pertsonaia bikoitzak baino aurreratuago sentitzen gara behintzat.

Nolanahi ere, errezetarik ez dago filmean; bai ordea, bilaketan jarraitzeko erabakia eta adorea.

Eta kalbarioa, giza patuaren metafora modura.

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# GUTUNAK

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

## Candy: alternatibak eraikitzen

**Xabier Llodio eta Zorion Ortigosa**
(LABeko Industria Federazioko kideak)
Bergara

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Candy multinazionalak eta Candyko langileen ordezkariek sinatutako akordioak geroz eta luzeagoa izan ohi den hauteskunde kanpainaurrearen zurrunbiloan soka luzea ekarri du medioetan.

Horregatik, eta berrindustrializazio prozesua oraindik burutu gabeko prozesua izanagatik ere bai, prozesu horren inguruko hausnarketa pausatuagoa egin nahi dugu.

Akordioaren protagonistak:

Candykoa onak eta gaiztoak dauden prozesua da: *onak* 40 urtetan lanean egon ondoren bat-batean euren lanpostua mehatxatua ikusi zuten emakumeak, adibidez. *Gaiztoa,* noski, Candy da, urte luzez irabaziak metatu ostean garbigailu ekoizpena Txinara eramatea erabaki zuena, gehiago irabazteko. Lan erreformak enpresen itxiera prozesua aldebakarrez egin ahal izatea ekarri zuen, prozedura erraztuz. Eta Sergio Leoneren pelikula ezagunari keinu txiki bat eginez, *itsusia*-ren papera Gipuzkoako Foru Aldundiari egokitu zaio, berrindustrializaziorako ibilbide orria aurkeztu eta balizko erosleak bilatzeko lana bere gain hartu arren, hautes lehian soilik uler daitezkeen kritikak jasotzen ari baita hainbat eremutatik.

Guretzat eztabaidak ondorengoa beharko luke: zer dela eta ez dute instituzio guztiek horrela jokatu deslokalizazioen aurrean?

Barruko borroka:

Baina, testuinguru zail honetan, zerk ireki dizkio ateak balizko berrindustrializazio prozesuari? Langileen mobilizazio, protesta eta mobilizazio iraunkorrak. Multinazionalekin lortzen diren akordioak ez dira *win-win* (irabazi-irabazi) erakoak, non alde guztiek irabazten duten. Borrokaren bidez eskuratutakoak izan ohi dira.

Batzuetan, kasu honetan bezala, dagokion instituzio publikoaren laguntza ezinbestekoa da bide berriak arakatzeko, baina prozesua aurrera eramateko motorra antolakuntza eta borroka izan dira.

Baina kanpokoa ere bai:

Candyko langileen lorpen nagusietako bat konplizitate eta aliantzak sustatzea izan da, borroka kalera, herrira ateratzeko. Eragile sozialen elkartasunak, udalbatzak, bizilagunek... enpleguaren defentsa Bergarako herriaren erronka bilakatu dute.

Elkartasunaren balioa:

Candyko langileen jarrera txalotu nahi dugu, euren ardura, elkartasuna eta konpromisoa. Ez da erraza multinazionalek eta Eusko Jaurlaritzak eskaini ohi duten alternatibari ezezkoa ematea; kaleratzearen prezioa negoziatzea, alegia. Benetan eredugarria izan da interes kolektiboa eta lanpostuen defentsa interes partikularren gainetik jarri izana.

Candytik haratago, alternatibak eraiki ditzagun:

Candyko adibidea ezin da ulertu eta baloratu berrindustrializazio prozesuaren emaitzaren arabera soilik, nahiz hori duen jatorrizko helburu.

Proiektua izan edo ez, langile borrokak lan erreformaren aldebakartasuna puskatzeko gai dela erakutsi du, alternatibak ahalbideratuz. Honelako saiakera gehiago gauzatzeak instituzioak deslokalizazioei aurre egitera behartuko ditu. Instituzioek, bereziki Eusko Jaurlaritzak, multinazionalei txeke eta gutzi alfonbra gorria jartzeko politika amaitzea ekarri behar du. Baldintza zein berme gabeko diru laguntza handiak –*Hiriko* istripua izan zuen autoak bezala– amaitu behar dira.

Industria sustatzeko benetako planik eza ezin da propaganda hutsez estali: EAEn laneskua prekarizatu eta kualifikazioa txikitzen duen lan merkatua desarautzeko saiakera gertatzen ari da, I+G+Bra bideratutako ekarpenak jaisten ari diren bitartean.

Arantxa Tapiak Candyren itxiera onartzen ez zuela esan zuenetik ez dugu Eusko Jaurlaritzak hartutako konpromisorik ezagutzen. Zain gaude. Baina badakigu zenbat eta *Candy* gehiago antolatu, orduan eta zailago izango duela bere ardurari muzin egitea.

Horretarako, kasuan kasu egoerari egokitutako alternatibak asmatu beharko ditugu, multinazional handien agindupean ito nahi gaituen olatu neoliberalari eutsiko dioten dike txikiak eraikitzeko. Deslokalizazioei aurre egin, enplegua eta sare produktiboa defendatuz.

Badakigu gaur egungo markoan erantzuna partziala soilik izango dela, eta ondoen antolatzen garenean eta aliatu egokiak topatzen ditugunean soilik irabaziko ditugu borrokak, baina borroka bakoitza benetako alternatibarantz doan urrats bat gehiago izango da: marko propio bat lortzea, burujabea, langileak borrokara behartuko dituen legerik inposatuko ez duena. Pausoz pauso... lortuko dugu!

## Eskerrik asko!

**Ana Izquierdo**
Arrasate

Ama hil berri, eskerrak eman nahi dizkiegu anbulantzietako zerbitzu osoari, Arrasateko Ospitaleko urgentziei, familiako medikuari eta erizainei.

Eta, orokorrean, eskerrik asko profesional guztien lan onagatik.

## Errenta denontzat

**Josu Garitaonandia**
(Oparitu Zuhaitz Bat proiektuaren arduraduna)
Bergara

Oinarrizko errenta bezala ezagutzen den proposamena urte batzuk doaz eztabaidatzen; ideia sinplea da: pertsona guztiek eduki behar dute diru sarrera bat bizitza duina izateko.

Bizitza duinaren eskubidea 1948an jaso zen giza eskubide bezala; beraz, gobernuen ardura izan beharko litzateke euren eremuan dauden pertsona guztiek diru sarrera bat edukitzea baldintzarik gabe.

Horren defendatzaileek Kataluniako 250.000 errenta aitorpenekin ikerketa bat egin dute; izan ere, hango gobernuak ohiko gastuak finantzatzeko dirua –lehen batzen zena– gehi oinarrizko errenta finantzatzeko dirua batzeko egin beharko liratekeen fiskalitate aldaketak ondorengo emaitza eman luke:

-Gizartearen %70 irabazten irtengo litzateke.

-%15 parra geldituko litzateke; hau da, ordaindu beharko luketena zergen igoera jasoko luketen oinarrizko errentaren antzerakoa izango litzateke.

-Eta gainerako %15a irtengo litzateke galtzen, eurek dituzten irabazietatik zati txikiagoarekin geldituko lirateke-eta.

## Arrasateko PSOE euskara mespretxatzen

**Josu Zugasti**
Arrasate

Arrasateko PSEk argitaratu eta etxerik etxe banatutako eskuorria nire eskuetara ere heldu da.

Egia esan, ez nuen uste oraindik Arrasateko alderdi horrek euskararen aurka hainbeste zabor zeukanik botatzeko. Inozo samarra izango naiz.

Lehen orrialdetik bertatik, Oscar Garciak eta bere taldeak argi uzten dute gure hizkuntzarekiko daukaten jarrera:

1-Euskara bigarren mailan ageri da, hasierako orriko izenburuetan nagusiki (euskarazko testu nagusia baino bospasei bider txikiago emanez), baina beste edozein testutan ere euskarazkoa bigarren lekuan eta letra etzanez dago, badaezpada. Inork ez dezan pentsa Arrasaten milaka urtez hitz egin izan dugun hizkuntza noizbait gazteleraren pare egon daitekeenik.

2-Euskarari dagokion ataltxoan, "euskara inposatu" egin zaigula baino ez du esaten. "Banatzeko eta baztertzeko", gainera. Ez du merezi euskaldunok erdara ere ikasi egin behar izan dugula gogoraraztea, euskararen egiturazko zailtasunak errepikatzea, euskara herri honetan gaztelera baino hamaika mende lehenagotik egiten dela esatea, gure hizkuntzaren aldeko neurriak hartzea gure eskubidetzat aldarrikatzea... Laburbilduz, ez du merezi PSEkoen ezjakintasun sakonean bilatzea eskuorri horretan agertzen denaren azalpena. Askoz errazagoa da: PSE –eta bere PSOEko nagusiak– euskararen aurka agertu izan da beti, sakoneko jokabide hori keinu hipokritekin estaltzen ahalegintzen den arren; Korrikaren batean parte hartuz, hitzaldietako batzuetan bi minutuz zerbait euskaraz irakurriz... Hori bai, botoa eman behar denean, euskarari arnasa emango liokeen edozein neurriren kontra emango du berea PSEk.

3-"Telebista publiko elebiduna" nahi ei dute; hau da, Goienan ere gaztelera sartzea. Ez omen dute nahikoa kioskoan dauden erdarazko argitalpen guztiekin, telebistan erdara hutsean dauden kate guztiekin –publikoak barne–. Espainiar inperialismoa aseezina da eta ezin du onartu euskara hutsean egon daitekeen espaziorik. Jakina, euskara ikasteko premia sentitzeari "inposaketa" deitzen diote, Espainiako Estatuak bere hizkuntza ofiziala mesedez ikas genezan eskatu izan baligu bezala. *Inposaketa* hitza euskararekin erabiltzen da, ez gaztelerarekin, ez ingelesarekin, ez matematikarekin, ez beste ezerekin.

4-*Garbiketa* deritzon azpiatalean, zikinkeria salatzeko *Egunkaria*-ren eta *Berria*-ren aldeko mural bat ageri da. Gogoratzen *Egunkaria?* Euskarazko prentsa armen bidez isildua, zuzendariak torturatuak eta espetxeratuak, epaiketa politikoak... PSE isilik eta PSOE txaloka zebilen bitartean –oroitu Legebiltzarreko botazioaz, PSOEko eledun Lopez Garridoren adierazpenez...–. Hori gogorarazten duen murala, baina, zikinkeria da Oscar Garciarendako.

Euskaraz dakien, euskara maite duen edota euskara errespetatzen duen inoren botoa ez dute merezi.

## Mapfreren demandak

**Joaquin Agirre**
Arrasate

Otsailaren 23an, Mapfre aseguru-etxearen demanda-jakinarazpen bat jaso nuen. Arrazoia, ez niola aseguru-etxe horri jakinarazi bi hilabeteko aurrerapenarekin autoaren asegurua bertan behera utzi nahi nuela.

Mapfreren bezero izan naiz urte askoan. Denetariko aseguruak izan ditut harekin: etxekoa, autoenak, pentsio-funtsak... Gaur egun, oraindik ere, hainbat poliza daukat harekin. Jakina, ez luzerako.

Arrasateko Loramendi kaleko bigarren zenbakian dagoen Mapfreren bulegoan lehengo arduraduna ez dagoenetik –unibertsitatearen ondoan–, eta bezeroak beste konpainia batera joan daitezen saihesteko, Mapfre multinazionala zera egiten ari da: sistematikoki, burofaxak

>

bidaltzen dizkie bezeroei; alegia, baja hartu nahi dutela bi hilabeteko aurrerapenarekin abisatzen ez duten bezeroei.

Burofaxak, presio egiteko, ordainagiria ordain dezaten, auzibidera joko duten mehatxuekin, herritarrei, urte askoan Mapfreren bezero izan den jendeari, jende umilari, erreferentzia galdu duen jendeari Uribesalgo jauna bulego horretan ez dagoenetik.

Ez dut ulertzen bulego horretako arduradunaren jarrera: multinazionalaren aurrean makurtzen da eta ez ditu geldiarazten bere herrikide eta bezeroekiko mehatxu eta presioak.

Jakin badakit, nire kasuan bezala, Mapfrek demanda gehiago jarri dituela aseguruen ordainagiria ez ordaintzeagatik: 82 eurokoak, 76 eurokoak, eta abar. Mapfreri bost axola dio berriro kobratzeak; izan ere, bezeroa presionatu nahi du.

Inoiz aldatu duzu aseguruaren bat, baja hori bi hilabeteko aurrerapenarekin jakinarazi barik? Zure aurreko aseguru-etxeak demandaren bat jarri zizun epaitegian, ordainagiria ordaintzeko eskatuz? Zer egingo zenuke zuk kasu horretan?

Pena handia ematen dit Mapfreko bulego hori zer bihurtu den ikusteak. Gutako asko erreferentzia barik geratu gara, galduta, eta konpainiaren errespetu barik gure nahiarekiko.

Pertsonen duintasuna multinazionalen irabazi-interesen gainetik dago. Herritarrak ezin dira demandaz demanda tratatu, aseguru-etxea aldatu gura izateagatik bakarrik. Nire duintasunak 362 euro baino askoz gehiago balio du. Epaitegira joango naiz nire burua defendatzera, Mapfreren eta erabiltzen ari den praktiken kontra borrokatzera. Nire duintasuna salbatzera joango naiz.

## Arrasate pasealekua gora eta behera

**Agurne Juldain Alcalde**
Arrasate

Badira aste batzuk Arrasate pasealekua ahoan dugula. Sorpresa izan da askorentzat Arrasate pasealekuko proiektua, baina Arrasateko Udalak proiektua Kulturaten aurkeztu zuen; beraz, ez litzateke sorpresa izan beharko herriarentzat Udalak duen egitasmo hori.

Idatzi honen arrazoiak asko dira.

Aspertuta nago, zurrumurruak handik eta hemendik entzuten egotea jakin gabe zer den zurrumurrua eta zer ez. Nork bere etxera begiratzen du, ondokoaren egoerari kasu handirik egin gabe. Asko haserretzen nau Arrasateko Udalak azaldutako jarrera: "Ez dago erabakita nolakoa izango den bertako trafikoa. Lanak amaitu eta gero erabakiko da". Benetan?

Nork sinets dezake maila horrelako proiektu batek oraindik zertarako egingo den ez jakitea? Proiekturik badago? Orduan zertan dabiltza Arrasate pasealekuan lanean, helbururik finkatuta ez badago?

Ez dakit egia den edo zurrumurrua den, baina batzuek diote alkatea Arrasate pasealekuraino hurbildu dela eta bertan arazorik ez dagoela azaldu duela. Noiz etorri zara? Ikusi duzu Loramendi kalean sortzen diren autoen arteko istiluak? Ikusi dituzu autobusek dituzten arazoak? Ikusi dituzu aparkatzeko ditugun arazoak, aparkalekurako txartela izanda ere?

Herriak egia ezagutu behar du bere iritzia azaldu ahal izateko Udalaren alde edo kontra, baina egitasmoak ezagutu behar ditugu inolako sekretu eta jolas politikorik gabe.

Inguruko komertzio eta tabernak sinadurak jasotzen gabiltza Arrasate pasealekua denontzat izan dadin: oinezkoentzat, bizikletentzat eta autoentzat.

Arrasate pasealekua nahiko zabala dela iruditzen zaigu eta hainbat neurri har daitezke guztiok pozik egoteko: abiadura moteldu, Bolintxoko zebra-bidean semaforoak jarri, aparkalekuen ilara bat kendu eta bizikletentzat bidea egin…

Azken asteetan komunikabideetatik jaso dut egitasmoaren inguruko informazioa eta nik ere komunikabideen bitartez zabalduko dut nire egonezina.

Hiru aste pasa dira dagoeneko Arrasate pasealekuan lanak hasi zirenetik.

Komertzio eta tabernetan igarri ditugu bai galera ekonomikoak, jende gutxiago gerturatzen delako, egiten ari diren lanen ondorio, aparkaleku gutxiago dagoelako... nork daki!

Ondo legoke ere Udalak periferian probak egiteaz gain zerbaitetan lagunduko balu.

## Alderdi ukatua

**Jon Otero Uribarren**
Arrasate

Denok dakigu Eslovenia non dagoen, Jugoslavia zaharraren ipar-mendebaldean.

Eslovenia Jugoslaviarengandik banandu zen, lehena, eta ez zen gerrarik egon.

Autodeterminazio erreferendum bat egon zen, eta, sobera, baiezkoak irabazi zuen.

Txillardegi zenari irakurri nion autodeterminazio erreferendum hura izan baino lehenago, inkestek independentzia mailari, oraindik hura utopia zenean, oso erregistro edo zenbateko apurra ematen ziotela.

Zifrak ez ditut ongi gogoratzen, baina independentzia lortu baino bi urte lehenago inkestek zioten esloveniarren %15 edo %20 soilik zirela alde.

Independentzia lortu zutenean, gehiengo erabatekoa zen alde.

Zer gertatu zen? Utopia zena, jarri zitzaionean erreferendum data, utopia lortu ezin izateari utzi zitzaion; beraz, jendea beronen alde animatu zen, eta independentismoak –ez utopikoa– izugarrizko gorakada izan zuen.

Hemen, Euskadin, antzerako zerbait gerta daiteke.

Inkestek diote independentzia utopikoaren aldekoak garela %35 eta aurkakoak, %32.

Ez zaio datarik jarri erreferendumari. Batez ere, alderdi ukatu bat dugulako.

Datarik jartzen ez bazaio, jendea ez da animatzen, ez da autokonbentzitzen posible dela.

Jendeak egia nahi du, errealitatea, utopiari ihes egiten dio, eta horrela jarraituko dugu erreferendum datarik izan ezean, utopiari ihesean.

Zein da alderdi ukatu hori? EAJ, jakina.

Denok dakigu, ondo jakin ere, ETAren aurkakoa izan dela beti EAJ, bere sorreratik gaurdaino. Noski, eskubide osoa du. Baina ez ahaztu EAJk independentzia duela helburu, eta ETAk ere bai.

Izan daiteke oso kritikoa ETAren indarkeriaz –hori ere amaitu da azken hiru urteetan–, baina ETAren aurka egonagatik ezin duzu zure burua ukatu.

ETAk izan duen metodoa autodeterminazioa, independentzia, lortzeko ez duzula gustuko, gaitzesten duzula? Ongi da, eskubide osoa duzu, baina ETAk defendatzen duen guztiaren aurka ezin zara egon, zuk autodeterminazioa eta independentzia nahi baduzu.

Gerorako utzi autodeterminazioa, inkestek hau edo ETAk hau diotelako?

Gerorako utzi zure buruak desio duen independentzia, ETA hala delako?

Zure burua ukatzea da hori.

Burujabetasun falta demostratzea da hori.

# Zorionak guztioi!

**GOIENA Klubeko bazkide hauek irabazi dituzte sariak martxoan**

**LABORAL KUTXA - CSKA**
**(bina sarrera)**
Jose Gonzalez Sutil (Arrasate)
Imanol Zubia Beloki (Oñati)
Arkaitz Ruiz de Loizaga (Bergara)
Maider Perez Martinez (Eskoriatza)

**LABORAL KUTXA BASKONIA - FIATC JOVENTUT**
**(bina sarrera)**
Jabier Agirre Beitia (Oñati)
Mireia Axpe Oianguren (Aretxabaleta)
Maixa Arozena Irastorza (Aretxabaleta)
Cesar Azkarate Beitia (Aramaio)

**LABORAL KUTXA BASKONIA - OLYMPIAKOS**
**(bina sarrera)**
Mikel Elkoroberezibar Umerez (Bergara)
Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)
Josu Unzurrunzaga Altube (Oñati)
Felix Arrese Gartzia-Etxabe (Aretxabaleta)

**LABORAL KUTXA BASKONIA - VALENTZIA BASKET**
**(bina sarrera)**
Miriam Perez de Pedro (Bergara)
Pilar Zubizarreta Abarrategi (Arrasate)
Ekain Sotil Muniategi-Andikoetxea (Bergara)
Ainara San Vicente Zumalde (Oñati)

**KORRIKAKO ARROPA SORTA**
Iker Arroyo Sanchez (Arrasate)
Amaia Gorosabel Pagalday (Bergara)
Kontxi Apaolaza Ibarguren (Arrasate)
Xabier Garro Segura (Eskoriatza)
Angel Agirreazaldegi (Zarautz)
M.Anttoni Urkola Beitia (Arrasate)

**'PUNTUA' ALDIZKARIA**
**(Bi lagunendako bazkari edo afari bat)**
Zumelaga Jatetxea: Jose Luis Iñarra Mazmela (Bergara)
Soran Etxea: Maite Arana Osinaga (Arrasate)
Lasa Jatetxea: Imanol Garmendia Zabalo (Antzuola)
Etxe Aundi Jatetxea: Igor Larrañaga Ortueta (Aretxabaleta)

**ERRAMU ZAPATUKO BERTSO SAIOA**
**(bina sarrera)**
Pello Txintxurreta Iparragirre (Bergara)
Asensio Laskurain Zabaleta (Antzuola)

**'MOZKORRA PARREGARRI' OPERA KOMIKOA**
**(bina sarrera)**
Sebas Etxeberria Olasolo (Bergara)
Ezozi Alberdi Bruña (Bergara)
Aitor Aranzabal Gallastegi (Bergara)

**BERTSOLARITZAREN SEKRETUAK**
**(bina sarrera)**
Txaro Carrizo Carretero (Eskoriatza)

**'ERDIBANA' ANTZEZLANA**
**(bina sarrera)**
Arantzazu Madina Aranburu (Arrasate)
Angel Arizabaleta Padilla (Bergara)

**'ITZALAK-TXORIAK' ANTZEZLANA**
**(bina sarrera)**
Mertxe Lizarazu Kortabarria (Arrasate)
Irati Pagoaga Zaloña (Aretxabaleta)

**'PREST GAUDE' ANTZEZLANA**
**(bina sarrera)**
Jose Antonio Gardoki Beitia (Aretxabaleta)
Izaskun Arana Zubizarreta (Arrasate)

**'OPERA ABESLARIA' ANTZEZLANA**
**(bina sarrera)**
Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)
Julian Errasti Azurmendi (Arrasate)

**GOIENA KLUBEKO ABANTAILAK:**
**Deskontuak komertzioetan:** Debagoieneko hainbat komertziotan deskontuak.
***Puntua* aldizkaria:** etxean jasoko duzu egubakoitzetan.
**Deskontuak:** Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.
**943 25 05 05** | *kluba@goiena.eus* | *goienakluba.com*

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!




## Kulturate (Arrasate)

**Prestakuntza arloko eskaintza**
**Enplegu zerbitzuak**
**Ekintzaileentzat zerbitzuak**
**Tailerrak eta hitzaldiak**
**Aparatuak eta esperimentuak**

*Publiko guztietara zabalik! Animatu eta etor zaitez!*

Antolatzailea:

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Sustatu eta finantziatua:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo

Gipuzkoa ekintzailea

## EKINTZAK

### Apirilak 15, asteazkena

**09:30 - Hitzaldia: "Lo que piden las empresas, y no puedes dejar de tener"**
>> Orientabideak - Alex Beltrán de Lubiano
*___ [ Areto nagusia ]___*

**11:30 - Hitzaldia: "Ekintzailea naiz"**
>> Mikel Makazaga (ARDATZ Formazio eta Ikasketa Zentroa)
>> Itoitz Armendaritz (munduko "musher" txapelduna)
>> Katalin Antxia (modubat.eus)
*___ [ Areto nagusia ]___*

**17:00 - NiNeu 2. BideoCurriculum lehiaketaren sari banaketa**
*___ [ Areto nagusia ]___*

**18:00 - Hitzaldia: "Reconocimiento de la competencia profesional adquirida por la experiencia laboral y los aprendizajes no formales: Una de las vías para conseguir la cualificación".**
Prozedura eta esperientzia pertsonalak
>> Gloria Gonzalez Marco (Lanbide. Gaitasun Erregistroa)
>> Josemari Mediavilla (Lanbide Heziketako Kalitaterako eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia)
*___ [ Jokin Zaitegi gela ]___*

### Apirilak 16, osteguna

*[___ Hitzaldi guztiak areto nagusian ]*

**09:30 - Hitzaldia: "Nola zaindu nire online ospea Interneten"**
>> Ane Bilbao
(MGEP-Mondragon Unibertsitateko irakaslea)

**11:00 - Hitzaldia: "Lanbide Heziketaren PLUS-ak. Ethazi, Dual sistema eta Erasmus +"**
>> Ikasle eta ikastetxeen ikuspegitik

**17:00 - Irakasleentzat bisita gidatua**



**INFORMAZIO-MAHAIAK**
**Azoka ordutegia: 09:30-13:30 eta 15:30-18:30**
**Kulturateko klaustroan**

## ERAKUNDE PARTEHARTZAILEAK

**Lanbide Heziketako Zentroak**
- Oñati Gestio Eskola - Mondragon Unibertsitatea (Oñati)
- Zuazola-Larraña Institutua (Oñati)
- Mariaren Lagundia Ikastola (Bergara)
- Miguel Altuna Institutua (Bergara)
- Arizmendi Koop. Elkartea Ikastola (Arrasate)
- Goi Eskola Politeknikoa - Mondragon Unibertsitatea (Arrasate)
- Aretxabaleta Lanbide Eskola (Aretxabaleta)
- Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentroa (HHI - EPA)
- Oinarrizko Lanbide Heziketa (Lanbide Hastapena) *Formación Profesional Básico (Iniciación Profesional)*

**Formazio Zentroak**
- Bastida Akademia (Arrasate)
- Ikasi - Prestakuntza Zentroa (Bergara)

**Beste erakunde batzuk**
- Bizikasi
- Alecop - Prestakuntza alternantzia: ikasketak eta lana
- Laneki-Jakinbai

**Enplegu Zerbitzuak**
- Lanbide (Euskal Enplegu Zerbitzua)
- EURES (Europako Enplegu Zerbitzuen Sarea)
- Kutxa Zeharo Enplegu Zerbitzua (Arrasate)

**Udaleko Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak**
- Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako Udalak

**Ekintzaileentzat Zerbitzuak**
- Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentzia
- Saiolan

# HERRIAK

# Hiru igogailurekin, Bergara irisgarriago

- San Martin, Ariznoa eta Madalena plazak lotuko ditu
- Aurten bertan bukatuta izan nahi ditu Udalak

**LEIRE KORTABARRIA** | BERGARA

Datozen urteotan Bergara irisgarri egiteko behar diren aldaketak proposatzen dituen dokumentua aurkeztu dute Hirigintza zinegotzi Joseba Moñuxek eta udal arkitekto Xabier Ieregik. Irisgarritasun Planaren bigarren aldaketa da; hain zuzen, 2007ko plana eguneratzen du, gaur egungo irisgarritasun arauak kontuan hartuta. Herri osoan, gehi Osintxun eta Angiozarren dauden irisgarritasun arazoak batzen dira, eta arazo bakoitzerako konponbide bat proposatzen da, aurrekontu eta guzti. Proposatzen diren hobekuntza guztiak orain egingo balira, 3.000.000 euro kostatuko lirateke. Udal gobernu bakoitzak erabakiko du bere agintaldian ze ekintza egin.

Oraingo gobernuak egingo duen hobekuntza garrantzitsuena honako hau da: hiru igogailu bidez, San Martin plaza, Telesforo Monzon eta Ariznoa plazak eta Magdalena plaza –Mizpirualde egoitza ingurukoa– elkarrekin lotu eta irisgarri egin, eskailerak, koskak eta halako oztopoak saihestuta.

### Jende askorendako mesede

Lehenengo igogailuak San Martin plazan izango du sarrera, Udal Artxiboaren aldamenean, hain zuzen ere, eta Telesforo Monzon plazan bukatuko du ibilbidea. Horren eta Ariznoa plazaren artean dagoen koska kendu egingo dute, plataforma bakarra eginez bien artean.

Bigarren igogailu publikoa gaztetxe ondoko berdegune ingurutik Errekalde parke ingurura joango da. Azkenik, hirugarren igogailua handik gertu abiatu eta Mizpirualdeko aparkalekuraino joango da. Bi geltoki izango ditu: bat erresidentziaren atean bertan, eta bestea Zabalotegira joateko eskaileren azpian. Zabalotegin, hain zuzen, egiten ari dira arrapala bat. Jende askori ondo etorriko zaio igogailua, Joseba Moñuxen arabera: "Errekaldeko jauregian museoa ipiniko da; beraz, museora doanak igogailua hartu ahal izango du; Mizpirualdera doanak ere bai, eta Zabalotegira doanak, berdin". Hiru igogailuak aurten bukatuta izan nahi ditu Udalak.

### San Antonioko urbanizazioa

Baina hori ez da aurten hartuko den irisgarritasun neurri bakarra izango. San Antonion, Fernandez ehungintza enpresaren La Flor izeneko eraikina bota zen lekua urbanizatzen hasiko da aurten ere Udala. Aste Santu ondoren geratzen diren hiru blokeak eraitsiko ditu eta behin-behineko urbanizazio lanak egingo ditu. Helburua da hor sortzen den enbutua kentzea.

Horrez gain, Masterreka kalearendako proiektua eskatuta dauka Udalak eta Aste Santua eta gero egingo ditu obrak. Kale horretan dagoen espaloi txiki bat zabaldu egingo du. Hori Udaleko Obra eta Zerbitzuko langileek egingo dute. Beste obra bat honako hau izango da: Lasa zaharraren pareko gunea plazatxo antzera egokituko da, izan ere, "oinezko asko ibiltzen dira hortik eta eurei emango zaie preferentzia", Joseba Moñuxek azaltzen duen moduan.

**ESANAK**

**"Museora, Mizpirualdera, Zabalotegira... doazenek igogailua hartu ahal izango dute"**

JOSEBA MOÑUX
HIRIGINTZA ZINEGOTZIA

**ESANAK**

**"Irisgarritasun plana datozen urteotan herriko hirigintza garatzeko zuzentaraua dugu"**

XABIER IEREGI
UDAL ARKITEKTOA



LEIRE KORTABARRIA

**SAN MARTIN PLAZA** Irudiko eskaileren alboan egingo dute lehenengo igogailua, San Martin plazatik Telesforo Monzon plazatxoraino. Udal Artxiboaren egoitzari zati bat kenduko diote.



LEIRE KORTABARRIA

**TELESFORO MONZON-ARIZNOA** Telesforo Monzon eta Ariznoa plazen artean plataforma bakarra egongo da. Bigarren igogailua gaztetxe ondotik abiatuko da Errekalde inguruuraino.



OIHANA ELORTZA

**ZABALOTEGI** Zabalotegi auzoko irisgarritasuna bermatzeko, hirugarren igogailu batez gain, irudian ikusten den moduan, arrapala bat egiten dabil Udala.



ADITUAK IGOGAILUAK INSTALATZEN ETA ZERO KOTARA JAISTEN
ERAIKUNTZAK ETA BIRGAITZE-LANAK
PROIEKTUAK, BARNE DISEINUA,
ITE, CEE...
LOKAL ETA ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZEA
FATXADAK ETA ESTALKIAK
ENERGIA ERAGINKORTASUNERAKO SOLUZIOAK
GILTZA ESKURA ERAKO PROIEKTUAK
AURRETIAZKO AZTERKETAK KOSTURIK GABE
IGO ERAIKIN PROJECTS
www.igosl.com
943798864
696159959
ELKANO kalea, 3 20500 ARRASATE

# Bizitzako une ahaztezinak ospatzeko zerbitzu osoa eta esklusiboa, hemen bertan

## Ekitaldi berezi horien antolaketa integralaz arduratzen dira Belun Une Ahaztezinak enpresan, modu guztiz pertsonalizatuan eta norberaren beharretara eta gustuetara egokituta





Ezkontzak, enpresen urteurrenak, jaiotzak... Halako gertakariak izaten dira bizitzak aurrera egin ahala norberaren oroimenean eta bihotzean kuttunen gordetzen direnak, eta, ondorioz, gehien ospatzen direnak.

Bada, hain justu, horren eta mota horretako ospakizunen antolaketek dakartzaten lanaren eta buruhausteen jakitun, ekitaldion antolaketa osoaz arduratzen dira Arrasaten dagoen Belun Une Ahaztezinak zerbitzuan.

**Utzi ardurak alde batera**

"Gestioa, argazkilaritza, opariak, gonbidapenak, espazioaren apainketa... guztiaz arduratzen gara. Eta guk zuzenean eskaintzen ez ditugun zerbitzuen kudeaketaz edo horiek lortzeaz ere bai. Adibidez, ezkontzetan, ospakizunerako guztia lor dezakegu: gonbidapenak, opariak, argazkiak –geuk diseinatu eta egiten ditugu–, espazioaren apainketa, irudi aholkularitza.... Kontua da bezeroak leku bakarrean aurkitzea norberaren ospakizun horretarako behar den guztia. Ez ibiltzea gonbidapenak leku batean egiten, jantzia beste leku batean erosten... Den-denaz arduratzen gara. Horrek, gainera, ospakizunari batasuna ematen dio; ezkontza horretan, adibidez, gonbidapenek eta espazioaren apainketak izango dute zentzu bat bere osotasunean", esplikatu dute Jessica del Campok eta Leire Bediak, Belun Une Ahaztezinak enpresako ugazabek.

"Edozein modutan, ez dago zertan dena hemen egin. Egingo dugu bezero bakoitzak nahi duena, jakina", zehaztu dute bi profesionalek.

**Diseinu propioak...**

Hori guztia lantzen dute modu erabat pertsonalizatuan; bezeroaren gustu eta beharren arabera. "Bezeroekin berba egiten dugu, non, zelan... ezagutu zuten elkar galdetzen diegu... eta gero, hori guztia kontuan hartzen dugu ospakizunaren prestaketan", diote. Are gehiago, Belun Une Ahaztezinak Debagoienean bakarra da ospakizunetan behar diren elementuen diseinu propioa lantzen eta eskaintzen –gonbidapenak...

**Enpresekin eskarmentu luzea**

Enpresen kasuan, berriz, urteetan pilatu duten eskarmentua eskaintzen diote Jessica del Campok eta Leire Bediak bezeroari; izan ere, biek ala biek dute arlo profesionalean esperientzia luzea enpresekin; bereziki, *branding*-a lantzen jardun izan dute –enpresen irudi korporatiboa, argazki publizitarioak...–, bestelako esparru batzuekin batera; Belun Une Ahaztezinak zerbitzua sortzeko eta aberasteko baliatu duten eskarmentua, hain justu ere.


Ospakizun eta ekitaldien antolaketa
Argazkilaritza
Opariak
Irudi aholkularitza

Belun
une ahaztezinak

Otalora Lizentziaduna,14 · 20500 Arrasate
943 04 03 20 · info@belun.com




**Lekuaren apainketak garrantzi handia hartzen du ospakizun berezietan.**



**Leire Bedia eta Jessica del Campo, estudioan.**



Maria Ubarretxena martitzeneko agerraldian batzokian. | JOKIN BEREZIARTUA

# EAJ "oso pozik" dago parte hartze prozesuarekin

Ubarretxenak ekarpenak eskertu ditu: "500dik gora jaso ditugu, gure proiektua aberastuko dituztenak"

**J.B.** | ARRASATE

EAJko alkategai Maria Ubarretxenak prentsa agerraldia egin zuen martitzenean herriko eragileekin zein herritarrekin irekitako parte hartze prozesuaren gaineko balorazioa egiteko: "Oso pozik gaude, 500 ekarpenetik gora jaso ditugu-eta. Horrek adierazten digu arrasatearrek iritzia eman eta parte hartu gura dutela. Ekarpen horiekin gure proiektua aberastuko dugu".

### Askotariko proposamenak

Ekarpenei dagokienez, trafikoan eta aparkalekuen arloan hainbat ekarpen jaso dituzte jeltzaleek: "Espaloietatik ibilgailuak kentzea, Arrasate pasealekua erabat ez ixtea, Laubideko aparkalekuak irekitzea eta erdigunean TAO jartzea, besteak beste". Hondakinei dagokienez, Ubarretxenak azpimarratu zuen ekarpenen ia %100ak defendatu duela bosgarren edukiontzia; era berean, baina, herria "oso zikin" dagoela diote herritarrek, batez ere kaleko hormetan. Txakur kakak ere ekarpen askotan aipatu direla ere adierazi zuen EAJko hautagaiak.

Bestalde, jeltzaleek "proposamen mordoa" jaso dituzte umeendako parkeak estaltzeko, eguraldi txarra dagoenean haurrek non jolastu izan dezaten. Gainera, Musakolako kiroldegiko instalakuntzak berritu egin behar direla eta herriko kirol klubekin Udalak izan behar duen harremana hobetu behar dela ere nabarmendu zuten jeltzaleek ekarpenen artean. Bestetik, herritarrek politikariei "akordio gehiago" eskatzen dietela esan zuen Ubarretxenak.

Parte-hartze prozesuak zabalik jarraitzen duela ere adierazi zuen: "Ez dugu itxiera eperik jarri, ateak zabalik egongo dira".

## Elkarteen arteko doke txapelketa apirilaren 3an jokatuko da

SUDC elkarteak antolatuta, apirilaren 3an jokatuko da doke txapelketaren 35. edizioa. Urtero moduan, Monterron azpiko Kondekua zelaian izango da historia kutsu garbia duen lehiaketa. Era berean, parte hartzaile kopuru minimoa lortuz gero, domekan, hilak 29, jokatuko da gazteendako eta haurrendako txapelketa.

## Ondasun higiezinen zergaren errekargua ez ordaintzeko eskaerak

Ondasun higiezinen gaineko zergan %50eko errekargua kobratuko du Udalak aurten hirugarrenez. Apirilaren 15era arte aurkez daitezke BAZen errekargua ez ordaintzeko salbuespen eskaerak, dagozkien egiaztagiriekin batera. Informazio gehiagorako, deitu 943 25 20 00 telefono zenbakira.

# Azken errementaria eta orduko Arrasate gogoratu eta zabaldu

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

*Dinbi, Danba mailuaren hotsa.* Izen hori izango du Udalak apiril amaieran Harresi aretoan irekiko duen erakusketak; egonkorra izango da. Hau da, hasiera baten, ez du itxiera eperik izango. Arrasateko azken errementari Bixente Barandiaran *Mentu* (1911-2004) eta burdinaren kulturak herriaren bilakaeran izan duen eragina gogora ekartzeko antolatu dute. *Mentu* Arrasatek izan duen azken errementaria izan zen, eta Marko-Etxebarri baserriko bere sutegitik ia mende erdiz aritu zen, dinbi-danba, mailuarekin burdin goriari forma emanez.

Arrasatear asko izan dira haren tailerretik pasa direnak, Barandiaranek euren tresnak zorroztu, ganadua ferratu eta etxeko tresnak egin zitzan. Erakusketa "oso interesgarria" izango dela uste dute: "Espero dugu arrasatearron eta bisitan datozenen ikusmina piztea lehenengo, eta aurreikuspenak asetzea ondoren", esan zuen Inazio Azkarragaurizar alkateak eguaztenean, erakusketa iragartzeko prentsa agerraldian.

### 600 pieza baino gehiago

Barandiaranek 2001ean, hil baino hiru urte lehenago –2004ko abenduan hil zen, 93 urterekin–, errementari tailerreko tresneria guztia Udalari eman zion oinordetzan, langintza horren memoria gorde eta zabal zezan: "Ezin dugu pasatzen utzi aukera hau eskerrak eman barik Bixente Barandiaran eta bere senideei eskuzabaltasunez herriari emandako ondare hau, Udalaren aldetik ahalegintzen ari garena merezi duen zabalkundea ematen". Barandiaranen bilduma 600 pieza baino gehiagoz osatua dago. Erakusketa prestatzen Jone Uriarte arrasatearra aritu da, Udalak abenduan kontratatu zuen museogintzan aditua.

### Erakusketak lau atal

Erakusketak lau atal izango ditu: lehenengoan, *Mentu* gertuagotik ezagutu eta XX. mendeko Arrasateko testuinguru nahasian kokatzeko aukera egongo da denbora lerro edo kronograma baten bitartez. Erakusketaren elementu zentrala sutegia izango da; izan ere, horren inguruan garatzen zen tailerreko lan prozesu guztia. Hirugarren atalean ere, ferratzaile ofizioaren nondik norakoak aurkeztuko dituzte.

Azkenik, tarte berezi bat eskainiko zaio Arrasaten hainbat mendez horren garrantzitsua izan zen metalgintzaren industriari, bide batez Barandiaranen ofizioaren antzinatasuna agerian uzteko eta Arrasateko industria garaikidearen sustraiak nondik datozen ikusteko. Antolatzaileek laster emango dute erakusketako xehetasun guztien berri.


Bixente Barandiaran 2004an, bere lokaleko erakusketan. | ARRASATE PRESS

NIRE USTEZ


NEREA MAKAZAGA

## 'Euskahalduna' izateko grina

Gogoetara narama konturatzeak testu hau idazten ari naizen une honetan bertan, Euskal Herriko bideak zeharkatzen ari garen euskaldunok oraindik testigu bat eskuan korrika jarraituko dugula testu honek zure begiekin topo egiten duenean ere, seguruenik.

Adinez txikia nintzenetik piztu izan dit lilura Korrikak, bazuelako edo baduelako zer edo zer magikoa gure hitza pausu bilakatzen duena, pausua bidaiarako gonbite zabaltzen duena, eta elkar-bidaiak gure izaera bateratuak mezu irudikatzen dituena.

Adin guztietako euskaldunen parte-hartzeak gure lurrak gainditzen dituela ez da berria. Bartzelonan bizi nintzen garaian, nik ere parte hartu izan dut Korrika paralelo horietako hainbat ediziotan. Badira ere Txilen, Londresen, Shanghain edota Berlinen euskararen alde Korrikari ekiten diotenak anaitasun hau indartuz.

Eta Korrika tarteko, ezagutu dut edo suertatu zait orain oso gutxi, guraso euskaldunak izan barik, Euskal Herrian jaio zein bizi izan barik, zailtasun guztiak gainditu euskaraz ikasi eta euskara maiztasunez erabiltzen saiatzen dena.

Akaso biltzen duen guztiagatik txit gustuko izan dut 19. edizio honek dakarkigun *Euskahaldun* hitza, euskara izateko ahalmen hori. Gure kultura eta hizkuntza maitatzea eta erabiltzea norberaren esku dagoelako.

**"Euskara maitatu eta erabiltzea norberaren esku dagoelako"**

UDABERRIKO PROGRAMAZIOA
ARRASATE AZTERGAI



GOIENA TELEBISTA | HARIRA
MARTXOAREN 31N, 22:00ETAN | INAZIO AZKARRAGAURIZAR ALKATEAREKIN
25 URTE
HERRITELEBISTAGINTZAN
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# Kurtzetxiki, herritarren eskura jarri den "altxorra"

- Bi ibilbide berri egokitu ditu Udalak beste hiru eragilerekin elkarlanean
- Apirilaren 26rako irteera antolatu du Besaide elkarteak, bide motzetik



Aitor Zubiaga, Josu Pereda eta Pello Garai aurkezpenean. | AMAIA TXINTXURRETA

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Arrasateko ondare naturala berreskuratzeko lanean dihardu Udalak, eta horren froga da, adibidez, Plan Orokorrean babes bereziko hainbat gune jasotzen direla. Gune horien artean dago, adibidez, Kurtzetxiki. Kasu horretan, Udalarena den 60 hektarea inguruko lursailean lehen sektorea bultzatzea eta bertako habitat naturala berreskuratzea eta mantentzea jarri dituzte helburu nagusi moduan.

Horrez gain, mendia arrasatearrengana hurbildu gura izan du Udalak Sustraibarri elkartearekin, Naturtzaindiarekin eta Besaide Mendizale Elkartearekin batera. Ibilbideon aurkezpena egin zuten eguazten iluntzean Kulturaten: "Hiru elkarte horien partetik laguntza handia jaso dugu; euren inplikazioa eskertzekoa da. Eredugarria izan da, eta udal batendako beharrezkoa dela ere esango nuke", uste du Ingurumen zinegotzi Josu Peredak.

**Artadi berezian barrena**

Bi ibilbide berri egokitu dituzte Euskal Herriko Mendi Federazioarekin batera –eta, beraz, bide homologatuak dira–; ibilbide horietako bat motza izango da, 6,5 kilometrokoa: "Motza da eta bereziki gomendagarria hastera doan edonorendako. Zeharkaldi luzeak ditu eta eroso egiteko moduko bidea da, familian igotzeko modukoa", dio Besaide elkarteko Aitor Zubiagak. Ibilbide motz horretan Kurtzetxikiko bide zahar bat berreskuratu dute, herritarrak han dagoen artadi berezi batetik igarotzeko. Artadi hori klima atlantikoan izaten diren artadien artean bakanetakoa da, artadi kantauriarra delako, eta ez dago besterik bailaran: "Nortasun berezia ematen digu eta horregatik tontorretik behera sartu dugu, elur -zuloa ere ikus dadin".

Beste ibilbidea luzeagoa izango da, 11 kilometro ingurukoa: "Arrasateko, Aretxabaletako eta Oñatiko mugetaraino eramaten du eta bueltan tontorrera doa". Seinale batzuk jartzea falta da oraindik, baina bi ibilbideak ondo seinaleztatuta egongo dira.

**Bide berriak, aukera berriak**

Panel informatibo bat jarriko dute bi ibilbideen abiapuntuan, Debagoieneko Ospitalearen atzealdean: "Herri-bideak direnek herri egiteko bideak ere izan behar dute. Gerizpetik atera gura ditugun bide zahar horiek emango digute aukera gura ondare kulturala, naturala eta historikoa berreskuratzeko. Hau da, bideok gure burua hobeto ezagutzen lagunduko digute", uste du Zubiagak. Kurtzetxiki "herritik bertatik" gozatzeko mendi eta aisialdigune bihurtu gura dute ekimenaren sustatzaileek.

Ibilbide berriak probatu eta Kurtzetxikiko "altxorra" ezagutzeko irteera antolatu du Besaidek apirilaren 26rako; ibilbide motzetik igoko dira: "Herritar guztiak deitu gura ditugu. Kurtzetxikiko tontorretik paraje ederrez gozatzeko aukera izango dute, benetan merezi du", dio Peredak.

## Ludoteka ibiltariaren azken saioa dugu bihar

KOMUNITATEA GOIENA | LUDOTEKAK
TXATXILIPURDI | ARRASATE

Amaitzera doa aurtengo ludoteka ibiltaria. Zapatu honetan, hilak 28, egingo dugu azken saioa San Andres auzoko Bedoñabe herri eskolan, 10:30etik 13:30era. Hezitzaileak gogotsu daude eta sukaldaritzaz gozatzeko asmoz gerturatuko dira. Ludoteka ibiltarira gerturatzen direnek txokolatea egingo dute eta txokolatea gustuko ez dutenendako sandwichak egiteko aukera ere egongo da. Nola ez, haurren nahiak eta beharrak asetzen ere ahaleginduko dira hezitzaileak; egongo da zertan jolastu eta ez zertaz gozatu.

Joan den astean, Korrika astelehenean pasatzen zenez, mural erraldoi bat egin zuten gaztetxoek, oso ikusgarria. Ondoren, txokolatezko napolitana goxo batzuk egin zituzten indarrak berreskuratzeko.

## Maiatzaren 8a baino lehen eman beharko da izena udaleku irekietan zein itxietan

Txatxilipurdik uztailaren 1etik 21era antolatu ditu irekiak; itxiak, berriz, Bergarako Jardun eta Soraluzeko Pil-Pilean elkarteekin batera antolatu dira

**J.B./T.M.** | ARRASATE

Txatxilipurdi, Jardun eta Pil-Pilean elkarteek martitzenean aurkeztu zuten udako oporretara begira prestatu duten udaleku ireki zein itxien eskaintza.

2 eta 12 urte arteko umeendako udaleku irekiak uztailaren 1etik uztailaren 21era egingo dira: "Udalekuon berezitasunetako bat da umeen eta gaztetxoen eskaeren arabera moldatzen ditugula ekintzak", esan zuen Txatxilipurdiko langile Mirari Arandok. Aurtengo berrikuntza da bi urtekoek ordutegi zabalagoa izango dutela, 10:00etatik 13:00etara. Gainera, uztailaren 21a martitzena dela kontuan hartuta, astea bukatu arte egun bakoitzerako irteerak egingo dituzte. Horietan parte hartzeko aparte ordaindu eta eman beharko da izena; Aulestira, Gamarrara eta Oriora joango dira. Bestalde, gurasoekin bilerak egiteko eguna zehaztu dute dagoeneko. Kulturateko areto nagusian



Udaleku irekietako hezitzaile eta arduradun taldea, martitzenean. | TXOMIN MADINA

elkartuko dira: 2 eta 6 urte artekoendako seme-alabak dituztenak 18:00etan, eta 6 eta 12 urte artekoak dituztenendako, 19:00etan.

**Udaleku itxietan, hiru aukera**

Udaleku itxien kasuan, aurten ere *Kosta ala Kosta* izeneko udalekuak egingo dituzte Bergarako Jardun eta Soraluzeko Pil-Pilean elkarteekin elkarlanean. DBHko 3. eta 4. mailetako gaztetxoendako izango da: uztailaren 6an hasiko da, Ozaetan, eta uztailaren 17an Zarautzen amaituko da. Tartean zer egin erabakitzeko gaztetxoek izango dute zeresana. Uztailaren 6tik 16ra, bestalde, Ozaeta eta Askizu artean kostaldea eta barnealdea uztartuko dituen udalekua egingo dute DBHko 1. eta 2. mailetakoendako.

Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetako ikasleek, berriz, uztailaren 5etik 12ra Nafarroako Oibar herrian dagoen aterpetxean egonaldia egiteko aukera izango dute: "Aurten berritu da aterpetxea; zazpi egun egingo dira bertan. Gogotsu gaude esperientzia berriari heltzeko".

Udaleku guztietan izena emateko epea zabalik dago, eta maiatzaren 8ra arte egongo da horretarako aukera. Bi bide daude izena emateko: eskura emandako esku-orriak betetzea edo Txatxilipurdiren webgunetik esku-orriok jaitsi eta betetzea. Argibide gehiagorako 943 79 54 46 telefono zenbakira deitu beharko da.

### Azken Ostirala beharrean manifestazioa abiatuko da gaur Herriko Plazatik, azken atxiloketak salatzeko

Euskal presoen eskubideen alde hileroko azken egubakoitzean egin ohi den kontzentrazioa egin beharrean manifestazioa deitu dute gaurko, Herriko Plazatik 19:30ean irtenda. Guardia Zibilak Etxerateko eta Jaiki Hadi elkarteko lau kide atxilotu izana salatuko dute, *Aski da! Konponbideari erasorik ez! Atxilotuak askatu!* lelopean. Nagore Lopez de Luzuriaga, Izaskun Abaigar, Fernando Arburua eta Oihana Barrios izan ziren atxilotuak eguazteneko operazioan.

Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian
Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak
Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

**Iñigo Altzola** | Mondraitz elkarteko kidea

# "Udalatxen bizkorrena denak Joseba Iglesias saria jasoko du"

Apirilaren 19an da mendi lasterketa; 09:00etan irtengo dira plazatik eta bertan bukatuko dute


Iñigo Altzola lasterkaria. | MIRARI ALTUBE

**MIRARI ALTUBE** | ARRASATE

Apirilaren 19an jokatuko dute lehenengoz Udalatx mendi lasterketa. Mondraitz elkarteak antolatu du, eta bertako kide Iñigo Altzolak azken kontuak gogorarazi ditu.

**Eguna baino lehen egin beharreko lan guztiak eginda daude?**

Bai, eguna iristeko zain gaude orain, guztia ondo joango den urduritasun horrekin.

**Izena emateko epea itxita dago?**

Ez. 250 korrikalarirendako lekua dago eta lehen 200ak hilabeteren bueltan bete ziren. 50 dortsal gorde egin genituen, badaezpada, baina ikusi dugu inguruko gehienak izena emanda daudela eta kanpokoak direla gutxiago; hortaz, zabaltzea erabaki dugu. Hamar bat leku geratzen dira oraindik.

**Proba herrikoia izatea gura zenuten; hala izango da?**

Antolatzaileon asmoa zen herritarrek gozatzea lasterketa honekin, baina argi utzita mendi lasterketa bat dela. Jendea ezin da etorri gertatu barik.

**Goi mailako lasterkariak ere izango dira, ezta?**

Bai, Oihana Kortazar egongo da, Imanol Goñi, Iñigo Lariz, Eskoriatzako Iñaki Uribeetxebarria, Aritz Kortabarria... Azken momentuan lotu ditugu, eta eurak ere pozik gure parajeak ezagutzeko.

**Zeuk, Iñigo, hartuko duzu parte?**

Bai; pentsatuta komeni dela antolatzaileek ere barrutik bizitzea lasterketa, aukera eman didate, eta ni oso pozik.

**Zein ezaugarri ditu probak?**

21 kilometroren bueltako ibilbidea da, 1.300 metroko maldarekin. Herriko Plazatik irtengo gara eta Monterronetik San Kristobaleko hilerrira igo; Meatzerrekara jaitsiko gara gero, eta Udala auzora joan. Udalatxera igo eta Besaidera jaitsiko gara, eta Udalatik behera, Monterronetik bueltan, plazara. Lau anoa-postu egongo dira eta bosgarren bat helmugan; jatekoa eta edatekoa izango dira guztietan, Udalatxen izan ezik, edatekoa bakarrik egongo da. Erabaki dugu Udalatik Udalatxerako igoerako denborak hartzea eta azkarrenak –eta proba bukatzen duena– sari berezia izango du. Orain dela bost urte Udalatxen hil zen Joseba Iglesias oroitzea gura izan dugu sari horrekin.

> "Hasiera gogorra du eta oraindik berotu barik egonda indar handia gal daiteke"

**Eta korrikalariok zenbat denbora beharko duzue hori egiteko?**

Izena emandakoak zeintzuk diren jakinda pentsatzen dut bi orduren bueltan ibiliko direla lehenengoak. Jakin, gainera, Udalatxeko jaitsiera bi orduren bueltan egiten ez duena kanporatua izango dela.

**Zuk ondo ezagutzen duzu paraje hori, non egongo da gakoa?**

Hasiera arriskutsua da, igoera gogorra duelako San Kristobaleko hilerrira, eta oraindik berotu barik egonda indar asko gal daiteke. Kontuan hartu behar da, gainera, Udalatxeko jaitsiera bukatutakoan oraindik bederatzigarren kilometroa izango dela, eta asko dagoela aurretik.

**Eta zein ikusten duzu txapeldun?**

Imanol Goñi ikusten dut irabazle, baina podiumerako norgehiagoka gogorra izango da. Eta emakumeetan Oihana Kortazar, noski.

> "Igoera oso polita izango da ikusteko, baita herrian sartzeko unea ere"

**Ikusleek nondik ikusi ahal izango dute ondo?**

Eguraldiak laguntzen badu, Udalatxeko igoera oso polita izango da, baita jaitsiera ere. Herrira sarrera ere hunkigarria izan daiteke, eta mendira joan gura ez duenak Udala dauka; bi aldiz pasatuko gara handik, lehenengo gorantz eta gero beherantz.

**Laguntza eskatu behar izango zenuten antolatzeko, ezta?**

Bai, ingurukoen laguntza barik ez litzateke egongo lasterketarik. Aurretik pentsatu ere egin gabeko gastu mordoa daude eta ondo antolatu gura izanez gero laguntza handia behar genuela konturatu ginen. Kartela egunotan aterako dugu eta han ikusiko da zenbat laguntzaile izan ditugun; herriko komertzio txikiek ez dute askorik irabaziko gure kartelean agertuta, baina herriak asko irabaziko du eurei esker eta poztekoa da halako laguntza jaso izana.

**Egunean bertan ere beharko duzue laguntza...**

Bai, boluntarioen bila gabiltza eta jende asko hurreratu zaigu interesa agertuta. Jende mordoa beharko da, baina ez dut uste arazorik izango dugunik.

## ZALDIBAR

**SAILKAPENA**

| | A MULTZOA | P |
|---|---|---|
| 1 | Dribling 2.0 | 7 |
| 2 | Abokajarro | 5 |
| 3 | Jibaros FC | 4 |
| 4 | Haizea's Weah | 3 |
| 5 | Betrayer | 2 |
| 6 | Arrasate taberna | 1 |

| | B MULTZOA | P |
|---|---|---|
| 1 | Aldatz | 7 |
| 2 | Sonografos | 5 |
| 3 | Alytis FK 2.0 | 4 |
| 4 | Lasagabaster | 3 |
| 5 | Ostantz | 2 |
| 6 | Drink Team | 1 |

**PARTIDUAK**

MARTXOAK 28, ZAPATUA
**11:00** Dribling 2.0 - Arrasate Taberna / **Drink Team**
**12:00** Aldatz - Drink Team / **Arrasate Taberna**
**13:00** Jibaros FC - Haizea's Weah / **Aldatz**

MARTXOAK 29, DOMEKA
**11:00** Abokajarro - Betrayer / **Sonografos**
**12:00** Sonografos - Ostantz / **Abokajarro**
**13:00** Alystis FK 2.0 - Lasagabaster / **Ostantz**

## Alpeetara joango dira eskiatzera apirilean Besaideren eskutik

Alpetar eskian jarduteko irteera antolatu du Besaidek apirilerako. Hilaren 4tik 11ra joango dira Alpeetara. Argibideak gura dituenak edo izena eman egoitzatik pasa dadila astelehen, martitzen edo eguaztenean, 18:30etik 19:30era.

Apirilaren 19an, ostera, mendi irteera egingo dute Arabara, eta Galarreta eta Larrea arteko ibilbidea egin. Izena emateko egoitzara jo apirilaren 13tik 15era, 19:30etik 20:30era.

# Sei final ditu Mondrak hemendik aurrera, lehena domekan, Orion

Sailkapeneko bigarren postua eskuratu gura du mailaz igotzeko aukerei eusteko

**M.A.** | ARRASATE

Atzera kontaketa hasiko du aste bukaeran Mondrak. Sei jardunaldi geratzen dira denboraldia bukatzeko eta sailkapeneko bigarren postua eskuratzeko hil edo bizikoak izango dira partidu guztiak. Lehenengoa domekan dute, Orion, 16:30ean, sailkapeneko buruan indartsu dagoen Getariako Ketaren aurka.


Mondrako eta Aretxabaletako jokalariak norgehiagokan. | IMANOL SORIANO

### Helburua igoera

Erregional Preferenteko taldearen ardura Gabonetan hartu zuen Josu Zubiak, eta ordutik "ilusioa" berreskuratu dute jokalari arrasatearrek. "Oso ondo dabiltza lanean mutilak, aurrera egiteko gogotsu, eta egindako lanaren emaitzak hor daude", dio Zubia entrenatzaileak. Sei partidu irabazi dituzte jarraian; gero, zestoarren aurka galdu, baina horri buelta emateko joan den astean 3-0 irabazi zioten Aretxabaletari.

Hirugarren dago sailkapenean Mondra 45 punturekin eta haien helburua da bigarren, 48 punturekin, dagoen Mutrikuri postua kentzea. Izan ere, bigarrenak mailaz igotzeko aukera izango du gero, eta horixe da Mondraren helburua. Horretarako, partidu garrantzitsuak dituzte aurrez aurre, zailak, eta gogor borrokatu beharko dituzte minutu guztiak irabazi gura izanez gero. Eta lehenengoa izango da zailenetakoa, sailkapenean 62 puntu dituen Getariako Ketaren etxean, hain zuzen: "Gogorra izango da partidua, bai, baina eurendako ere bai; gu bolada onean gaude, eta, lasaitasunez jokatuz gero, ea irabazten dugun".

### Zaleak animatu nahia

Mondraren puntu kopuru bera duen Urola ere aurkari zaila izango da, eta hiru puntu gutxiago dituen Amaika Bat ere bai. Izan ere, guztiak joango dira bigarren postuaren bila: "Osteko jardunaldia Amaika Baten aurka dugu etxean. Eta nik uste dut aipatutako bi partiduok irabaziz gero gure helburua lortzeko pauso handia emango dugula".

Zubiak argi du partiduz partidu joan beharko dutela pausoak ematen, baina "konfiantza handia" dauka mutilengan, oso "serio" dabiltzalako lanean. Zaleak animatu gura ditu orain: "Ea ilusioa sortzen dugun horiengan eta Mojategira hurreratzen diren".

## Dragoikoak Euskadiko aerobik txapelketan

**M.A.** | ARRASATE

Domekan, martxoak 29, jokatuko dute Euskadiko aerobik txapelketa, Bermeon, eta han izango dira Arrasate Dragoi gimnasia taldeko hainbat kide, Kanpazar Harrobiak enpresaren laguntzari esker. Arene kiroldegian izango da txapelketa, 19:00etan.

### Hainbat maila

60 bat kirolari elkartuko dira; horien artean, arrasatearrak. Hirugarren Mailan bakarka jardungo du Araitz Altubek eta bikoteka, Mirentxu Amozarrainek eta Eider Altubek.

Aerodance modalitatean, ostera, taldeak hartuko du parte. Hona kideak: Maialen Gallardo, Maialen Diaz, Maite Oliden, Kimi Lopez de Aretxaga eta Leire Ugarte.

# Ehun ikasle baino gehiago aktore ibili dira Amaian

Eskola-antzerki jardunaldien lehen fasea amaitu zuten martitzenean

**JAGOBA DOMINGO** | ARRASATE
Ikasleak antzerkiaren mundura hurbiltzeko helburuarekin, aurten 25. aldiz, eskola-antzerki jardunaldiak antolatu dituzte Udaleko Hezkuntza eta Kultura sailek, Arrasateko Institutuaren eta Arizmendi Ikastolaren laguntzarekin. Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako programa da eta hiru fase ditu.

Lehenengo fasea martitzenean egin zuten. DBHko lehenengo mailako ehun ikasletik gora igo ziren Amaia antzokiko oholtzara aktore lanak egitera. Guztira, lau obra interpretatu zituzten; *Poti*, Almen guneko ikasleak; *Lan baten bila* eta *Dena izango da izan behar duen bezala* Gaztelupe gunekoak eta *Egia bazan, sar dadila kalabazan* Arrasate Institutukoak. Obra bakoitzeko bina interpretazio egin zituzten, goiz eta arratsalde, eta ia 700 neska-mutiko batu ziren.



*Lan baten bila* antzezlana. | GOIENA

### Apirilean, ikusle

Eskola-antzerki jardunaldien bigarren fasea apirilean egingo dute. Bertan, ikasleek antzerki-obra profesionalak ikusteko aukera izango dute, eta, guztira, 2.300 bat neska-mutikok gozatuko dute. LHko lehen, bigarren eta hirugarren mailetako ikasleek *Babia* obra ikusiko dute apirilaren 15ean; laugarren, bosgarren eta seigarren mailetakoek, *New Orleanseko Cyrano*; eta DBHko ikasleek *Makinista* obra ikusiko dute. Aurten, nobedade bezala, Batxilergoko, Lanbide Hastapeneko eta erdi mailako heziketa zikloko ikasleak ere ikusle joango dira eskola-antzerki jardunaldietara.

### Amaia antzokira bisitan

Azken fasean, Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoek Amaia antzokira egingo duten bisita. Antzokia barrutik ezagutzeko aukera izango dute ikasleek, antzezpenaren harra piztu eta antzerkian murgiltzeko.



IMANOL SORIANO

## Aste Santuko kontzertua gaur

Arrasate Musikaleko ikasleek, urtero legez, Aste Santuko kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, Kulturaten, 18:30ean. Musikariek ikasturtean zehar ikasitakoa erakusteko aukera ederra izango da eta hamalau pieza interpretatuko dituzte, piano, oboe, pianista eta biolinarekin, besteak beste.

## '24 kalia hartuko jonau' lelopean, AGAKOk urteurrena ospatuko du apirilean zehar: musika, poesia, ikastaroak eta bisita gidatua antolatu dituzte

AGAKOk 24 urte betetzen ditu aurten eta apirilean hainbat ekintza eta ekitaldi antolatu dituzte ospakizunerako. Tartean, mendi martxa, mozorro eta buruberoki ikastaroa, poesia emanaldia, kontzertuak eta Ana Ugaldek Arrasate hobeto ezagutzeko bisita gidatua. Apirilaren 11 izango da egun handia, ordea: Gazte Eguna. Trikitilariak, bazkaria, karro-poteoa eta kontzertuak antolatu dituzte egun horretarako.

Gose hirukoteak ere gaztetxearen urteurrenarekin bat egin du eta 24an eta 25ean kontzertua egingo dute; bi egun horietan *Gosariak* diskoa zuzenera ekarriko du Gosek.

# Artisten eta publikoaren erantzunarekin "pozik"

'Artean, hamaika emakume artista' erakusketak bihar izango du azken eguna, zapatua

**J.D.** | ARRASATE
Bihar, zapatua, da *Artean, hamaika emakume artista* erakusketa gozatzeko azken eguna eta dagoeneko Debagoieneko beste herri batzuetara zabaltzeko proposamena jaso dutela esan du Maddi Urizarrek. Oraindik erakusketa zabaltzea erabaki barik duten arren, herritarren aldetik izan duen erantzunarekin benetan pozik daude antolatzaileek.

Horren harrera ona "ez zutela espero" esan du Urizarrek, eta, bisitari kopurua ez jakin arren, momentu oro Kulturateko klaustroetan "norbait" ibili dela esan du. Obrek hainbat erreakzio sortu dituztela aipatu du Urizarrek; batzuek obrak bisualki gozatu dituzte; beste batzuk, ordea, harago joan direla azpimarratu du eta zer pentsatu ere eragin dietela aitortu dute bisitariek.



Erakusketa Kulturaten. | GOIENA

### Jarraitzeko indarrez

Artisten eta publikoaren erantzuna ikusita, antolatzaileak hurrengo baterako indarrez daudela esan du Urizarrek; *Artean, hamaika emakume artista* beste herri batzuetara esportatzeko eta beste bat egiteko.

## Dantza, jaldi hadi plazara! Herrixa Dantzan dantzaldiak Biteri plazan egingo dira udaberrian

KOMUNITATEA GOIENA
HERRIXA DANTZAN | ARRASATE

Udaberri honetan, Herrixa Dantzan dantzaldiak Biteri plazan egingo dira, parte hartu nahi duten guztiei irekita. Ekimen honekin, Portaloi elkarteak herritarrei gerturatu nahi die plazan elkarrekin dantzan ondo pasatzeko aukera.

Ohi bezala, Patxi Montero irakasleak gidatuko ditu dantzaldiak; musika eta dantza tradizional ludikoak oinarri hartuta. Dantzaldiak hileko azken ostiraletan izango dira: martxoaren 27an, apirilaren 24an eta maiatzaren 29an, 20:00etan hasita.

Herrixa Dantzan gidatutako dantzaldiak dira, musika eta dantza tradizional ludikoekin osatutakoak; lotuan, soltean, sokan, korruan, taldeka, bikoteak aldatzen... Arrasaten 2011ko urrian hasi ziren Herrixa Dantzan saioak antolatzen. Bi ikasturtetan Garaia Berrikuntza Guneko taberna-jatetxean egin ziren. Joan den ikasturtean, erdigunera hurbildu nahian, Uarkape pilotalekuko tabernara ekarri zituzten dantzaldiak. Orain, plazan elkarrekin dantzan ondo pasatzeko aukera herritarrei gerturatzeko asmoz, udaberriko saioak Biteri plazan egingo dituzte.

# Zazpi kontzertu Mexiko Hirian eta inguruetan

KOMUNITATEA GOIENA
LOS GALERNA | ARRASATE

*Sangre en el Atlántico* diskoa aurkeztera Mexikora goaz apirilean. Bi astez Mexiko Hirian eta inguruetan ibiliko gara, hango The Cavernarios taldearekin kaleratu berri dugun lana aurkezten.

Bi astean zazpi kontzertu emateaz gain, Mexiko Hirian, Irapuaton, Leonen eta Pueblan egongo gara, Primitive estudioan emango ditugu bi egun beste single baterako kantu berriak grabatzen. Arrasaten ere egingo dugu aurkezpena, maiatzaren 16an, Taupa tabernan.



Los Galerna boskotea. | JOSU TXINTXURRETA

## Antzerki mundua ezagutzeko tailerra

KOMUNITATEA GOIENA
AED | ARRASATE

Apirila eta ekaina bitartean izango den antzerki tailerrean izena ematera animatu nahi dugu antzerki munduak interesa sortzen dion oro. Antzerki mundua gertutik ezagutu, gorputzarekin komunikatzen ikasi, ahotsa eta komunikazioa landu... eta guztia talde giro paregabean.

# Berbekin programa euskarazko ahozkotasuna indartzera dator

▸ Euskararen erabilera sustatu nahi duen programa hori herriko ikastetxeetan zentratuko da

▸ 2017ra arte hiru fasetan garatuko du Soziolinguistika Klusterrak, nerabe eta irakasleekin

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Tolosako esperientziaren ostean, Bergaran nerabeen ahozkotasuna indartzeko Berbekin programa aurkeztu dute. "Euskara indartzeko bidean beste pauso bat eman nahi dugu", dio Soziolinguistika Klusterreko kide Josune Zabalak. Udalaren, Jaurlaritzaren eta Aldundiaren babesa duen programa hori 2017ra arte martxan egongo da, eta programa Soziolinguistika Klusterrak garatuko du. Herriko hiru ikastetxeak izango dira Berbekin programaren laborategiak.



Ekimenean parte hartuko duten erakundeetako ordezkariak. | IMANOL GALLEGO

**Ikastetxeen inplikazioa**

"Aukera" da hiru ikastetxeetako arduradunek gehien errepikatu duten hitza. Argi dago herriko hezkuntza eragile nagusiek beti egin dutela euskararen alde eta kasu guztietan programa propioak garatu dituztela. Orain, Berberkin programari esker, esparru zabalagoan lan egiteko aukera izango dute.

"Kale erabilerak badakigu zer esaten duen, aurrerapausoak ematen ari dira, baina oso motel. Horregatik, eskolan eta eskolaz kanpo dihardugun eragileen elkarlana beharrezkoa da", esan du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza aholkulari Jasone Aldekoak. Horregatik, Berbekin ez da eskola barruko ikasgaietara mugatuko, eta programak esparru zabalagoa hartuko du. Programa horren asmoa da euskarak ikasmahaitik kalera salto egitea.

**Erabilera indartu**

"Badakigu ezagutzatik erabilerara jauzia dagoela. Beharbada, gazteen arloan hori nabarmenagoa da", dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendariak. Erabilera da, hain zuzen ere, Berbekin programak sustatu nahi duen esparrua. Horrekin batera, ikerketa fase baten ostean, erabilera hori indartzeko metodologiak sortu nahi dituzte.

Berbekin programak hiru fase izango ditu. Behaketa fasea egin-da dago eta hasiak dira lehen konklusioak aztertzen. Bigarren fasea formazioan oinarrituko da eta hirugarrena erabakien garaia izango da. Azken horretan finkatuko dira nerabeen ahozkotasuna indartzeko aurrera eroan beharreko ekintzak.

## Martitzenean ekingo diote Pentekoste jaiak antolatzen joateko lehen saioari

**I.G.** | BERGARA

Udal ordezkariek ekin diete Pentekosteak antolatzeko bilerei. Lehena martitzenean egingo dute, udaletxean, 18:30ean, eta bigarrena apirilaren 21ean egingo dute ordu eta toki berean.

Azken urteetan aurrera eroandako dinamikak, baina, aldaketa txikiak izan ditu. Bilera orokor horiez gain, nerabe, haur eta erretiratuekin saio propioak antolatu dituzte.

**Lanketa propioak**

Saio horien asmoa da askotariko interesak dituzten taldeen proposamenak definitzea, ondoren, ideia horiek bilera orokorretara eroateko. 13-18 urte bitarteko gazteak gaur batuko dira, 19:00etan, gaztelekuan.

## Ipintzako ikasleek gaur taularatuko dute 'Hora libre' Zabalotegin

Otsailean ikasleek institutuan bertan egindako berrestreinaldiaren ostean, Pello Lezertua irakasleak sortutako *Hora libre* antzezlana Zabalotegi aretoan taularatuko dute. Gaur, 20:00etan, musikak, harremanek eta drogek nerabezaroan duten protagonismoa berreskuratuko dute antzezle gazteei esker.

## Antonio Arrillaranen figurazio eta abstrakzioa Aroztegi aretoan

Antonio Arrillaran paisaiak margotzen hasi bazen ere, bere estiloak bilakaera handia izan du, eta erakusketa hori horren erakusle izango da. Figuratiboak diren hainbat erretratu dauden arren, koadro gehienak abstraktuak dira eta artistaren umorea darie. Erakusketa apirilaren 5a arte egongo da zabalik Aroztegi aretoaren ohiko ordutegian.

## Posta bidezko botoa emateko bulegoa zabalduko du EAJk

Maiatzeko udal eta foru hauteskundeei begira, Bergarako EAJk botoa postaz eman nahi dutenentzako bulegoa irekiko du batzokian apirilaren 7tik aurrera. Bulegoa 11:30etik 12:30era eta 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Argibide gehiago behar dutenek 943 76 47 00 telefonora zenbakira dei dezakete.



# Erramu Zapatua: mahoi jantzita gozatzeko feria bihar egingo dute

- Herriko erdigunea bertako produktuz, hegaztiz, abelburuz... beteko da
- Azoka eguerdian amaitu arren, kartzela zaharrean jaiak gauean jarraituko du

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Erramu Zapatuko feria 09:30ean irekiko dute, eta, bazkalordura arte, ganadua, artisauak, bertako produktuak, hegaztiak... egongo dira erdigunean. Urtero moduan, Udalak mahoi janzteko gonbidapena egin die herritarrei.

**Urteko feria handiena**

Ibargarai kalean ganadua egongo da ikusgai; Seminarioko jolaslekuan hegaztiak, zaldiak eta baserriko makineria; San Martin plazan artisauak eta Fraiskozuri kalean eta Simon Arrieta plazan sasoiko produktuak erosteko aukera egongo da.

Seminarioko jolaslekuko txosnaz gain, San Martin plazan euskal oilaskoa dastatzeko aukera egongo da. 11:30etan txorimalo lehiaketa egingo dute Ibargarai kalean, eta ordu berean, Zumaiko Inpernupeko Joareak irtengo dira. 14:30ean egingo duten herri bazkarirako gelditzen diren lau txartelak Udal Pilotalekuan eskura daitezke. 17:30ean umeendako zezentxoak egongo dira Seminarioko jolaslekuan.


Abelburuek jende asko erakartzen dute. | GOIENA

**Bertso saioa gaur**

22:30ean, Udal Pilotalekuan, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Iker Zubeldia, Uxue Alberdi eta Oihana Barta bertsolari ezagunak arituko dira; gai-jartzailea, aldiz, Iker Iriarte izango da. Aldez aurretik, sarrerak 8 eurotan *www.bergara.net* webgunean eta kultura etxean eros daitezke. Azken orduan erosi nahi duten horiendako, baina, pilotalekuko leihatila 21:30ean irekiko dute.

**Gauean musika**

Giro ona, baina, ez da goizeko ekitaldietara mugatuko, eta 23:00etan Gozategik kontzertua eskainiko du gaztetxean. Hirukotearen ostean DJa egongo da. Musika emanaldi horretako sarrerak hiru balio du.

## Feria dela-eta zirkulazioaren antolaketa

**IBARGARAI KALEA**

- Ibargarai kaleko laugarren zenbakitik aurrera autoz libre egon beharko du bihar 06.00etarako.

**FRAISKOZURI KALEA**

- Atzo ezkero, Fraiskozuri kaleko alde biek libre egon beharko lukete.

**APARKALEKU OSAGARRIAK**

- Erdialdeko aparkaleku falta arintzeko, gaur arratsaldean eta bihar Ipintzako eta San Martin Agirreko jolastokiak zabalik utziko dira aparkaleku bezala erabiltzeko.

**ZIRKULAZIOA**

- Zapatu goizean Ibargarai, Fraiskozuri eta Bideberri zirkulazioari itxita egongo direnez, zirkulazioa saihesbidetik desbideratuko dute.

**GOMENDIOA**

- Udaletik herritarrei garajea erabiltzeko eskatzen diete. Baita erdialdera etortzeko autorik ez erabiltzeko.

**NIRE USTEZ**


MARIJE UGALDE

## Libra gaitzazu!

Telebista! Sortu zenetik etxe guztietan izan du toki garrantzitsua. Santuen eta ama birjinen tokia hartu zuen etxe gehienetan. Baina ez pentsa toki fisikoari buruz ari naizenik bakarrik, egunerokotasunean, telebistan agertzen dena etxekoen, lagunen, lankideen... elkarrizketen zentro bihurtu da. Horregatik, ulertezina zait hain gutxi zaintzea telebistako programazioa.

Noski, ulertuko nuke telebista pribatu batek, etekin ekonomikoa atera nahian, eskrupulorik ez izatea eta edozein eta edozer erakustea. *Zabor telebista* deitu diote hedabide askotan, arrazoi osoarekin. Ezin dudana ulertu da telebista publiko bat, kasu honetan ETB, saltsa zikin horretan sartzea. Hainbeste gorroto dudan *Gran hermano* iritsi da gure telebistara.

*Gu ta gutarrak!* Bertan azaltzen diren pertsonaiak euskaldunak dira, bai, baina ez harro sentiarazten gaituzten horietakoak, guztiz kontrakoak baizik, lotsa ematen duten horietakoak. Eta gure gazteak lelotuta, balio kaxkarrak erakusten dituzten gazteekin txunditutа. Programa horietan azaltzen diren pertsonaiak sasoi bateko kirolarien edota abeslarien tokia hartzen ari dira, idoloak bihurtuz. Ez dute, ordea, inongo balio positiboirik transmititzen. Beldur naiz, kutsadura gerturatzen ari zaigu!

Goiena libratuko ote da gaur egun hainbat telebista kate sufritzen ari diren epidemiaz?

**"Nola sartu da ETB zabor telebista egitera? Ez dut ulertzen"**

# Koru Parrokialaren ahotsak Stoltz-Freres organoaren alde

I.G. | BERGARA

San Pedro parrokia berritu zutenean, eta organoa babesteko premia zegoela ikusi arren, une hartan ez zen herriko ondare musikalaren pieza garrantzitsua den Stoltz-Freres organoa konpontzeko aukerarik egon. Ordutik hona, herriko elkarteek hura babesteko ardura hartu zuten eta Koru Parrokialak ere bat egin du egitasmoarekin.

**Organoaren alde**

"Altxor bat daukagu, eta ezin dugu hura galtzen utzi", dio koruko kide Pedro Garitanok. Dirua batzeko ahalegin horretan, koruak domekan, 19:00etan, kontzertua eskainiko du Santa Marina parrokian. Sarrerak bost euro balioko du, eta, esan bezala, irabazi guztiak organoa berritzera bideratuko dituzte.

**Eliz musika**

Rosa Narbaizaren zuzendaritzapean, herriko koruak Eslavaren eta Aita Madinaren obrak abestuko ditu, besteak beste.

Gogoan izan behar da kontzertura joateko aukerarik izan ez arren dirua eman nahi dutenek Kutxabankeko kontu korronte honetan egin dezakete diru-ekarpena:
ES 2095507070911424148З


Koruaren entseguetako bat. | GOIENA

# Martitzenean aurkeztuko dute '1936ko gerra Bergaran'

I.G. | BERGARA

Duela hiru urte ekin zion Intxorta 1937 Kultur Elkarteak Espainiako gerrak herrian izandako eragina ikertzeari. Datu ugari batu ondoren, elkarteak, Udal Artxiboaren laguntzarekin, *1936ko Gerra Bergaran* liburua argitaratu du.

Garai hartan herrian gertatutakoak jasotzen dituen liburua Irizar jauregian aurkeztuko dute martitzenean 19:00etan, eta sarrera librea izango da.

II. Errepublika garaiko Bergara aurrekari bezala ikertu ondoren, 1936ko gerrako egoera aztertu dute. Frontea Intxortan egon zenean herrian gertatutakoa, gudarien eta milizianoen eta ihesi joandako familien gainekoak, besteak beste, azaltzen dira, eta bukaeran, gerraren ondorioak.

**Udal Artxiboaren laguntza**

Liburua *www.bergarakoartxiboa.net* webgunean eskegita egongo da martxoaren 30etik aurrera, PDF formatuan. Guztira, 100 orrialde ditu, eta argazki gehienak Bergarako Udal Artxiboko argazki fondoetakoak dira.

# Ekintzaz beteta dator Angiozarko Udaberriko laugarren jaialdia

KOMUNITATEA GOIENA | ANGIOZAR BAILARAKO BATZARRA | BERGARA

Angiozarko Trikitixa Eskolaren bueltan hasitako Udaberri jaialdiaren laugarren edizioa izango da gaurkoa, eta, ohi moduan, bertako artistek hartuko dute parte. Trikiti Eskolak eta Angiozar Bailarako Bartzarrak bultzatuta, dagoeneko sendotzen doan jaialdia da, eta, guztira, auzotarrek eskaini dituzte hamabi emanaldiz gozatzeko aukera egongo da; besteak beste, musika eta ipuin kontakizunak izango dira bertan.

**Organoa konpontzeko laguntza**

Aurreko urteetan ikusleei zenbait ekarpen eskatu diete jaialdian: janari bankurako janaria, eskolarako laguntza... Aurten, elizako organoa konpontzeko laguntza eskatuko dutela aurreratu dute. "Elizako organoa ez dago egoera onean eta 25.000 euro behar dira konponketa duina egiteko", dio Jose Angel Mikeo auzo alkateak.

Gipuzkoako organo emanaldien barruan egon ostean, egun, jo daiteken arren, ez dago teklatu guztia erabilgarri eta eraberritze sakona behar du. Horrenbestez, musika tresna "bikain" hori bere edertasunean gozatzeko batuko dute dirua.

# San Joxepeko erretiratuek onartu dituzte kontuak

## Zuzendaritza batzordea berritu dute eta Iñaki Zabala presidenteak bukatutzat eman du bere agintaldia

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Urteko batzarra egin zuen eguaztenean San Joxepe erretiratuen elkarteak Jaione Isazelaia gonbidatuarekin, eta 2014ko kontuak onartu zituzten elkartutako 100 bat bazkidek. 2015eko egitaraua oraindik ez dute guztiz lotu eta datozen egunetan emango dute horren berri. Zuzendaritza batzordea berritu egin zuten, gainera.

**Iazko kontuak onartuta**

Elkarteak 1.634 bazkide zituen 2014 bukaeran, horietatik 571 ziren 80 urtetik gorakoak. 50 lagun sartu ziren eta 52 baja izan zituzten.

Iaz egindako jarduerei gainbegiratua egin zieten, eta aipatu zuten La Caixa fundazioari esker informatikaren gaineko ikasketak eskaini zirela eta 86 lagunek jardun zutela. Gainera, hamar ordenagailu eskuratu dituzte La Caixari esker. Kultura hamabostaldian, ostera, hitzaldi oso interesgarriak izan zituzten, horien artean Asier Altunak eskainitakoa eta Mari Carmen Gallastegik. Bestetik, aipamen berezia egin zioten abesbatzari; izan ere, hamabost kontzertu eman zituen iaz. Zuzendaria berria dute, gainera: Jose Ramon Amasorrain.

Horiek guztiak eta ekitaldi mordoa egiteko 13.793 euro behar izan zituzten. Diru-sarrerak, ostera, 13.450 euro izan ziren. Horietatik 9.000 euro kuoten bidez lortu zituzten eta 3.785, diru laguntzei esker; batetik, Bergarako Udalak emandakoa, eta bestetik, Laboral Kutxak.

**Emakume "gutxi" batzordean**

Aurtengo ekintzen programarik aurkeztu ez arren helburu batzuk zehaztuta dituzte, horien artean informatika ikastaroak antolatzea eta aldaparik gabeko mendi ibilaldiak sustatzea. Zuzendaritza berritu zuten gero. Batzordea utzi dutenak izan ziren: Iñaki Zabala, presidentea; Jose Mari Larrañaga, presidente-ordea; Beatriz Larrañaga, idazkaria; eta Benjamin Lazkano, bokala. Orain arte ere batzordean egon den Antolin Martxenak jarraitu egingo du eta harekin batera izango diren kide berriak honako hauek dira: Ignacio Illarra; Emilio Gutierrez; Ramon Eguren; eta Aderito Prieto. Ardurak hurrengo bileran banatuko dituzte.

Alkateak eskerrak eman zizkien guztiei egindako lanagatik eta animatu zituen zuzendaritza batzordean emakume gehiago sartzera: "Bazkide gehiago zare-te-eta emakumeak". Era berean, jakinarazi zuen Udalaren helburu estrategikoa adinekoei erretiro aktiboa eskaintzea dela, ahal den denbora luzeen pasa dezaten etxekoekin eta lagunekin.



Zuzendaritza batzordea osatzen duten kideak, sartu berri direnekin. | M. ALTUBE



Kulturako langileak dauden bulegoan jarriko dute liburutegia. | IMANOL GALLEGO

## Liburutegiko zerbitzuak denen eskura izateko, lekualdatzea

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Liburutegi nagusian hainbat aldaketa egingo dituzte irisgarritasuna kontuan hartuta. Hala, asteon hasi dute irisgarritasunari begira egingo duten aldaketa handiena: gehien erabiltzen diren zerbitzuak beheko solairuan jarriko dituzte.

"Asmoa da herritar guztiendako irisgarria izatea liburutegia", dio Leire Iruin zinegotziak. Hala, gehien erabiltzen diren zerbitzuak jarriko dituzte beheko solairu horretan: azkeneko hiru urteetako nobelak, hemeroteka, filmak, egunkariak irakurtzeko gunea eta ordenagailuen gunea. "Bestelako zerbitzuak, entziklopediak, adibidez, goian egongo dira", azaldu du Iruinek. Oinarrizko zerbitzuak "denen eskura" egotea da asmoa.

**Hausnarketa baten ondorioa**

"Hausnarketa bat egin genuen eta konturatu ginen liburutegiak ez zuela bermatzen irisgarritasuna", dio zinegotziak. Irisgarritasuna bermatzeko aukera ondoko hau zela ikusi zuten: orain arte beheko solairuan lan egin izan duten Kultura Zerbitzuko langileak Udaletxera lekualdatzea, eta euren tokian jartzea gehien erabiltzen diren liburutegiko zerbitzuak.

Beheko solairu hori irisgarri izateko, gainera, hainbat lan egin behar izan dituzte kultura etxean: sarrera nagusiaren albo batean arrapala bat jarri dute eta hainbat ate egokitu egin behar izan dituzte.

**Apirilerako lanak amaituta**

"Aste Santuaren bueltan hainbat zerbitzu jada beheko solairuan egongo dira, eta espero dugu apiril amaierarako lan guztiak amaituta egotea", dio Iruinek.

Lekualdaketa egiteak ez du aparteko eraginik izango liburutegiko erabiltzaileengan; hala ere, egun horietan ohi baino zarata handiagoa egongo da.

# UNEDen leku aldatzea eta Laboratorium museoa nabarmendu ditu Jaione Isazelaiak

## Agintaldiaren errepasoa egin du astean Goiena telebistako 'Harira' saioan

E. AZKARATE/M. ALTUBE | BERGARA

Jaione Isazelaia Bergarako alkatea izan da astean Goiena telebistako *Harira* saioan. Agintaldiaren balorazioa egin du, eta Udal Gobernuak esku artean dituen proiektuak aurreratu.

**Harreman ona Gobernuan**

Isazelaiak utzi egingo du alkatetza agintaldia amaitzen denean eta ez da hauteskundeetara aurkeztuko. Lau urteotako onenaren gainean galdetutakoan, gobernu taldekoen arteko "harremana" eta herritarrekin izan duena baloratu ditu ondoen.

Proiektuak ere aipatu ditu Isazelaiak, egindakoak eta gauzatzeko bidean daudenak. Eta lau urte hauetako lorpenen artean, UNEDen permuta edo leku aldatzea nabarmendu du. Baita Laboratorium museoa ere. Izan ere, Errege Mintegiko zientzia museoko piezak ikusgai jarriko dituzte ekainetik aurrera Errekalde jauregian.

UNED Errege Seminariotik Arrizuriaga parkera leku aldatzeko prozesua aurrera doala ere aipatu du Isazelaiak. 2009an egindako proiektua berrikusi behar izan dutela adierazi du eta orain, baliabideak aurkitu eta obrak esleitzea falta dela gehitu du.

Errege Mintegiko eliza zegoen tokian egin nahi duten erabilera anitzeko aretoaren gainean esan du asmoa dela lehenbailehen "errealitate" izatea eta horretarako "diru baliabideak" gertu dituztela.

**Bidegorrien proiektuak**

Bidegorriez ere jardun du, mugikortasunaz, oro har. Bidegorriaren gainean, esan du hiru proiektu dituztela esku artean: Boni Laskurainekoa, Antxiturri aldekoa eta Bergaratik Antzuolarainokoa. Eta, horretaz gain, Tavexeko zatia ere bai. Aurreratu du laster gaindituko dutela inguru hartako oztopoa, Bergaratik Elorregirainoko zatia erabat amaitzeko.

Pintaden gainean ere aritu da, eta herria "zikin" dagoela aitortu du, paper eta plastikoz. Pintadei dagokienez, azken urteotan hauek "gutxitu" egin direla adierazi du eta, hori hala izateko, Udaletik hainbat ahalegin egin dela gehitu du, esate baterako, kalean adierazpen guneak jarrita.

Oxirondoko azoka biziberritzeko egin dituzten ahaleginen gainean ere jardun du. Eguaztenetako azoka bereziaz; ludoteka, haurtxoteka edota Jardun bertara eroateko ahaleginaz… Eta aurreratu du taberna irekitzeko ahaleginetan dihardutela.

### Euskadiko txapelketan dihardun eskubaloi taldeak gaur jokatuko du Labegaraietan, 20:30ean

Josetxo Muniategiren mutilek Escolapios hartuko dute gaur, egubakoitza, Labegaraietan. 24. jardunaldiko partidua izango da, 20:30ean. Sailkapen orokorrean bi puntuko aldea besterik ez dute Bergarak eta Escolapiosek: etxekoak 18 punturekin daude eta bilbotarrak, aldiz, 20 punturekin. Garrantzi handiko lehia izango da etxekoendako sailkapenean aurrera egiteko.

### Bigarren mailako saskibaloi taldeak derbia jokatuko du MUren aurka bihar arratsaldean

Soraluce Bergarak Mondragon Unibertsitatea hartuko du bihar, zapatua, 16:30ean, Labegaraietan. Ligako 24. jardunaldian izango dute derbia bailarako taldeek. Bi taldeak parekatuta daude sailkapenean: MU hirugarren postuan dago 42 punturekin eta Bergara, aldiz, laugarrenean 39 punturekin. Biharko norgehiagokak balioko du aldea murriztu eta Bergarak hirugarren postua gertuago izateko; edo, aldiz, sailkapenean duten aldea handitzeko.

### Kadete mailako pilotariek Udaberri txapelketako finala jokatuko dute gaur Alegian Tolosaren aurka

Eskuz binakakoan, Udaberri txapelketako finala jokatuko dute Ibai Tajuelo (Soraluze) eta Markel Gartzia (Oñati) pilotari gazteek. Kadete mailan dihardute, Bergarako taldearekin, eta finala Tolosaren aurka izango dute, gaur, Alegian, 19:00etan. Bestalde, martitzenean, Deba Arroko txapelketako partiduak jokatu zituzten: kadete mailan Bergarak 22-17 irabazi zion Aloña Mendiri; eta, nagusietan, 22-8 irabazi zion Bergarak Arrasateri.

## Uztaileko udaleku irekietarako izen-ematea, ixtear

**O.E.** | OÑATI

Txaloka ludotekak antolatuta uztailean egingo diren udaleku irekietarako izen-ematea apirilaren 1ean bukatuko da.

Ekainaren 29tik uztailaren 24ra izango dira udaleku irekiak, 10:00etatik 13:00etara. Aurten, baina, gaztelekuan egingo dituzte. Azken urteetan Eteo eraikinean izan dira, San Lorentzo auzoan, baina aurten gaztelekuan egingo dira. Horixe izango da aurtengo udalekuen berritasuna, toki aldaketa. Zaintza zerbitzua, berriz, goizean bakarrik egongo da, 08:15etik 10:00etara. Zerbitzu horren kuota 50 euro izango da eta udalekuetako izen-ematearekin batera ordain daiteke.

Gainerakoan, ez dago aldaketarik. Izena Laboral Kutxan eman behar da, umearen izen-abizenak adierazita. Prezioa da 70 euro, eta, baja eman arren, ez da dirua bueltatuko.

# Irakurgailu bidez jasoko dituzte hondakin bilketako intzidentziak

### Gutxi sortzen duenak gutxi ordaintzeko proba pilotua jarriko dute martxan

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Hondakinak gaika biltzeko atez ateko sisteman, proba pilotu bat jarriko dute laster Oñatin. Helburua da hondakin gutxi sortzen duenak gutxi ordaintzea. Hala, hondakinen bilketa egingo duten langileek izango duten irakurgailu baten bitartez proba hori egiteko hautatua izan den familia horrek sortu duen hondakinaren datua zuzenean jasoko dute. Proba ondo ateraz gero, bailarako beste herri batzuetan ere jarriko dute martxan.



Olakuan eta San Lorentzon jarriko dute proba pilotua . | OIHANA ELORTZA

**Ia 30 atari**

Olakua eta San Lorentzo auzoetako ia 30 atarik hartuko dute parte proba pilotu horretan. Eurek pegatina berezi batzuk jaso dituzte euren ontzietan jartzeko, eta hortik hartuko ditu datuak irakurgailuak. Leire Egaña Ingurumen zinegotziak adierazi duen moduan, azken puntuan daude prestaketak eta laster jarriko dute martxan proba. "Aste batzuetako jarraipena egingo da, eta, ondo funtzionatzen duela ikusiz gero, herri osora zabalduko dugu sistema hau. Eta Oñatitik, Debagoienako gainerako herrietara eramango dugu", dio Egañak.

Proba horrekin, irakurgailuaren bitartez jakingo dute zeinek zenbatetan ateratzen duen ontzia, eta helburua da gutxi sortzen duenak gutxi ordaintzea.

**Intzidentziak**

Bestalde, proba horrekin batera jarriko dute martxan intzidentziak jasotzeko modu berria ere. "Hori ere irakurgailu batekin egingo da, baina beharra dagoenean erabiliko du langileak. Honekin lortu gura da ere, ontziak apurtuta daudenean, adibidez, horren berri ematea eta herritar horri ontzi berria jartzea zintzilikarioan, berak goizean jasotzera doanerako. Intzidentzia datu guztiak Mankomunitateko datu basean gelditiko lirateke erregistratuta", azaldu du Ingurumen zinegotziak, Leire Egañak.

**Aste Santuan**

Aste Santuko egunei begira, hondakinen bilketan ez da aldaketarik egongo. Industriak itxita egongo dira eta bilketa horiek ez dira egingo, baina merkatari, ostalari eta herritarrendako ez da inongo aldaketarik egongo. Urteko gainerako egunetan bezala, Aste Santuan ere tokatzen den egunean dagokion hondakina atera ahal izango dute herritarrek, ohiko ordutegian.

## Hauteskundeetako zerrenda aurkeztuko du gaur EH Bilduk

Udal hauteskundeetako hautagaien zerrenda eta programa aurkeztuko ditu gaur, egubakoitza, Oñatiko EH Bilduk. Joan den martitzen iluntzean koalizioak egin zuen herri batzarrean onartu zituzten eta gaur aurkezpen ofiziala egingo dute herritarren aurrean. 18:30ean izango da, Foruen plazan. Zerrendaburua Mikel Biain izango da.

## Iruñean izango den Aberri Egunerako autobusak jarri dituzte

Independentistak-ek antolaturiko Aberri Egunari begira, Oñatitik autobusa antolatu dute Iruñera joateko. Joan gura duenak Arrano tabernan eman behar du izena. Apirilaren 5ean 09:30ean izango da irteera, postetxetik, eta iluntzean bueltatuko dira Oñatira. *Guztion etorkizuna jokoan dago. Heldu independentziari* da aurtengo leloa.

## Maiatzaren 1ean egingo dute herriko ehiza txapelketa

Datorren maiatzaren 1ean egingo dute herri mailako ehiza txapelketa, Zanbranan (Araba). Parte hartu gura duenak Alzu ehiza eta arrantza dendan eman behar du izena. Ordaindu beharreko prezioari dagokionez, Pago Uso elkarteko bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 40.

# Larraña jaiegunetan ere erabil daiteke

**O.E.** | OÑATI

San Lorentzon dagoen Larraña futbol zelaia herritarrek erabiltzeko moduan dago asteburu eta jaiegunetan. Oñatiko Udalak eta Larraña zentroko zuzendaritzak adostu dute espazio hori herritarren erabilpenerako zabaltzea asteburu eta jaiegunetan. Udaltzaingoa arduratuko da itxi eta zabaltzeaz, eta hauxe da ordutegia: 10:00etatik 20:00etara.



Gaztetxoak errugbian jokatzen Larraña futbol zelaia. | O.E.

**Erreserbak**

Instalazioa edonork erabil dezake, baldin eta aurrez erreserbaturik ez badago. Erreserba egin duten erabiltzaileek lehentasuna izango dute. Erreserba kiroldegian egin beharko da, eta instalazioa erreserbatu den egun eta ordutegian erabiltzeko bakarrik balioko du. Erreserbarik ez dagoenean, instalazioan nahi beste denbora jolas egin daiteke, betiere, inor zain ez badago; kasu horretan, 90 minutuz erabili ahal izango da, gehienez.

Udal Gobernuaren esanetan, akordio horrekin, herritarrei ekipamenduaren erabilera erraztea da helburua.

## Aste Santuan itxita egongo dira hainbat zerbitzu

**O.E.** | OÑATI

Aste Santuan itxita egongo dira herriko hainbat udal zerbitzu. Udaletxeko bulegoak, esaterako, itxita egongo dira eguenetik astelehenera, biak barne. Baita kultura etxea eta udal liburutegiak ere, nagusiena zein haurrena. Zubikoa kiroldegiak, berriz, ordutegi berezia izango du egun horietan. Eguenean eta egubakoitzean, esaterako, itxita egongo da. Zapatuan ohiko ordutegia izango du eta domekan eta astelehenean, goizetik bakarrik zabalduko dute. Pazko astean, betiko ordutegia izango dute zerbitzu guztiek.

# Zuberoako maskaradak, bertatik bertara

Udal Euskaltegiak antolatuta, maskaradak ikusten egon ziren 43 lagun joan den martxoaren 14an. Joan-etorria autobusez egin eta ederki ibili zirela esan dute. Maule erdialdean dagoen Pelota plazan atera zuten talde argazkia, gaztelua atzean zutela.



UDAL EUSKALTEGIA

# Txokolateixia ere ikusgai izango dute Aste Santuko turistek

Arrikrutzera autobusez joateko aukera gehiago izango da domekatik aurrera

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatur enpresak prest du Aste Santuko oporrei begira egin duen eskaintza egitaraua. Unibertsitatea eta San Migel parrokia ikusteko bisitez gain, aurten Txokolateixia ikusteko aukera ere eskainiko dute. Herri barruko bisitez gain, Arrikrutz kobak ere erakutsiko dituzte.

**Familiak**

Aste Santuko oporretan etortzen diren turista gehienak familiak izan ohi dira. "Sasoi honetan autobusean etortzen diren bidaia organizatu gutxiago izaten ditugu, normalean. Gehienak familia planean datozen turistak izaten dira", dio Oñatur enpresako Jaione Elortzak. Jatorriari buruz, joan den urtean esaterako, Euskal Herritarrak izan ziren gehienak eta Kataluniatik, Gaztela Mantxatik eta Aragoitik ere etorri ziren bisitan. Guztira 350 bisitari izan ziren iazko Aste Santuan Oñatin.

Aurten etorriko direnek, gainera, unibertsitatea eta parrokiaz gain Txokolaiteixia ikusteko aukera izango dute, bai, behintzat, 12:00etako bisitetara apuntatzen direnek. Horrez gain, baina, 17:00etan ere bisita gidatuak egingo dituzte herriko ondarea erakusteko.

**Udako ordutegia**

Bestalde, domekan, hilak 29, sartuko da indarrean Oñati eta Arantzazu lotzen dituen autobus zerbitzuaren udako ordutegia. Gainera, Arrikrutzera joateko zerbitzu gehiago egongo dira. Izan ere, bidaiariak gura izanez gero, autobusa Araotzera ere joango da. Horixe da domekan martxan jarriko den udako autobus zerbitzuak izango duen berritasuna. Bestelakoan, lehenago hasi (lehenengoa 07:30ean Oñatitik) eta geroago (azkena 19:00etan Arantzazutik) amaituko da eta neguan eguerdian izan dituen etenak bertan behera gelditūko dira. Goizeko 10:30etan Oñatitik Arantzazura doan autobusa gelditūko da Arrikrutz-Oñatiko Kobetan eta Arantzazutik Oñatira 13:15ean eta 18:00etan doazen autobusak gelditūko dira Arrikrutzen. "Baina domekatik aurrera, Oñatitik 15:30ean eta 16.30ean irteten diren autobusak Arrikrutzera joango dira baldin eta bidaiariren batek hala eskatzen badu. Eskaera autobus gidariari egin behar dio herritarrak, autobusa hartzen duenean", azaldu du Garapen eta Turismo Agentziako arduradun Ikerne Altubek. Ordutegi berria Turismo Bulegoan dago eskuragai.

## Errotaren azalpenak eta bisita domekan

Oñatiko Turismo Bulegoak bi hilabetean behin egingo diren hitzaldien zikloari ekingo dio aste honetan. Asteazkenean izan zen lehen hitzaldia. Jerardo Elortzak egin zuen eta izenburua izan zen *Oñatiko errotak bueltaka*. 20 bat lagun elkartu ziren.

Domekan, hilak 29, beste saio bat egingo dute. Turismo Bulegoan bertan izango da, 11:00etan. Kasu honetan hantxe bertan dagoen San Migel Errota erakutsiko dute, eta segidan Irazola etxera joango dira (autoz) ogia nola egiten den ikustera.



Domekan San Migel errota erakutsiko dute. | TURISMO BULEGOA

# Kuartela giza katez inguratuko dute Fan Hemendik Egunean

Ekainaren 13an izango da eta bailara osoko herritarrak deitu ditu plataformak parte hartzeko

J.I. | OÑATI

Ekainaren 13an egingo dute Fan Hemendik Eguna, baina dagoeneko iragarri dute aurtengo nobedadea –ohiko ekintzak ere egingo dituzte– izango dela Guardia Zibilaren kuartela inguratuz egingo duten giza katea. Egutegian egun hori gorde eta ekintzetan parte hartzera deitu dituzte Debagoien osoko herritarrak Oñatiko Fan Hemendik batzordeko kideek.

Fan Hemendik Eguna egiteko arrazoiek badirautela –laugarrena izango da– azaldu zuten batzordekoek joan den astean egindako prentsaurrekoan, eta Alberto Plazaola *Aitto* atxilotzeko hilabete hasieran Guardia Zibilak martxan jarritako dispositiboa jarri zuten adibide moduan. Horrez gain, Guardia Zibilaren "kontrolak, mehatxuak, irainak, jazarpena... euskaldunon eguneroko ogia" direla salatu zuten.




Fan Hemendik batzordeak egindako prentsaurrekoa. | JULEN IRIONDO

# Aloñako Igoerako bidea ikusteko hitzordua etzi

O.E. | OÑATI

Joan den urtean egin zuten moduan, aurten ere hitzordua egin dute Aloñako Igoerako ibilbidea ezagutzeko. Domekan izango da hori. "Berez, joan den astean ginen egitekoak, baina elurragatik atzeratu egin genuen. Orain ere elurra dago goian, eta, akaso, ibilbide guztia ezin izango dugu egin, baina saiatuko gara", azaldu du antolatze lanetan buru-belarri dabilen Iker Laskurainek.

Domekan, hilak 29, 09:00etan elkartuko dira Foruen plazan eta apirilaren 26an burutuko den probaren ibilbide bera egingo dute. "Belarrera heltzen garenean ikusiko dugu ingurua zelan dagoen. Itxura onean badago, Aloñaraino igoko gara eta tontorrak egiten saiatuko gara. Elur asko dagoela eta arriskua egon daitekeen ikusiz gero, Belar bertatik Lizartzako txabolatarantz egingo dugu, Eskista aldera joateko. Minetara igoko gara gero eta handik lasterketako jatorrizko bidea hartuko dugu, meatzarien bide zaharretik behera, Agiña aldetik, kalera heltzeko", zehaztu du Laskurainek.

# Asteburuan dira beteranoetako ligako eta kopako finalerdiak

O.E. | OÑATI

Beteranoetako liga eta kopako denboraldia bukatzear dago. Asteburu honetan jokatuko dituzte, hain zuzen ere, bateko eta besteko finalerdiak. Finalak, berriz, apirilaren 18an jokatuko dituzte, Azkoagainen.

Finalera nortzuk joango diren, baina, asteburu honetan bertan erabakiko da, finalerdiak jokatu ostean. Ligakoak, bihar, zapatua, izango dira. Hala, 14:30ean, Albok eta Etxaixat taldeen arteko partidua hasiko da. Epailea *Arrilla* izango da. Ligako bigarren finalerdia, berriz, Kalañatasaray eta Dollygans taldeek jokatuko dute, 18:30ean. Partidu hori *Marku*-k epaituko du.

Kopako bi finalerdietako bat ere bihar, zapatua, jokatuko da. 20:00etan hasiko da Xaguxar eta Txarrixak taldeen arteko partidua, *Lazkano*-ren agindupean. Bundeswehr eta Paketinaikos taldeen arteko partidua domekan izango da, 13:30ean. *Moli*-k gidatuta. Partidu guztiak Azkoagainen izango dira.

Finaleko partiduak ere herriko futbol zelai nagusian jokatuko dira. Aste Santuko oporraldiaren ostean izango dira, apirilaren 18an. Orduak zehazteke daude.

NIRE USTEZ



AINHOA NEGERUELA

## Esanahien nora eza

Hiztegia zabaltzean, hitzak batetik bestera korrika imajinatzen ditut, bakoitza bere definizioaren bila.

Aulki jokoan bezala, hutsik dagoen lehen tokian itsasten dira eta aulki jokoan bezala, bada aulkirik gabe gelditzen denik ere.

Hauxe imajinatzen dut albistegi bakoitzaren ostean, bertan entzundako zenbait hitzek niretzat, behintzat, beste esanahi bat dutela pentsatu eta hiztegi orojakileak zer dioen jakiteko zabaltzen dudanean.

-Definizio finkorik ez da existitzen- esango lidakete zenbait hizkuntzalari eta filosofok.- Hitzak "Adierazle hutsak" dira, esanahi finkorik gabeak, kaxa hutsak. Garaian garaiko ikusmoldeek bete izan dituzte hitz hauen kaxak esanahi ezberdinez.

Aste honetan presidenteetariko bat, lehendakaria eta zenbait kargu politiko ikusi ditugu; irribarreak eta txaloak: Espainia, bankua, biktima, memoria.

Lau hitz horiek definizio berdina dute gaur herritar askorentzat. Irribarrerako zirrikiturik ez.

Nik hiztegian definitu nahi dudan Espainia ez da beraiek definitu dutena, banku eredua ere ez da berdina, ezta biktimen multzoa ere. Are gutxiago memoria.

Hiztegia zabaldu eta borragoma lodi batekin definizioak ezabatzen hastea onena eta hitz bakoitzari garai eta leku honek eskatzen dituen esanahiak ematen hastea.

**"Hauxe imajinatzen dut albistegiaren ostean"**

# 'Munduari bira laurogei abestitan', Ganbara Txikiren ikuskizun berria

Domekan eskainiko du Aitor Biainek zuzentzen duen abesbatzak emanaldia, Santa Ana antzokian

MIREN ARREGI | OÑATI

Ganbara Txiki Abesbatzak kontzertua eskainiko du etzi, domeka, Santa Ana antzokian, arratsaldeko zazpietan. Ohi bezala, kontzertu desberdina izango da, berezia; izan ere, oraingoan bost kontinenteetan barrenako bidaia bat proposatuko dute neska-mutikoek. *Munduari bira laurogei abestitan* izenburua eman diote kontzertuari eta mundu zabaleko askotariko abestiak entzuteko aukera izango da.

Ganbara Txiki osatzen duten talde guztiek hartuko dute parte kontzertuan eta talde bakoitzak kontinente bateko musika interpretatuko du; hala nola Asia, Ozeania, Afrika eta Ameriketako musika entzun ahal izango da, baita Europako hainbat zonatakoa ere.

Munduan barrenako bidaia hasi aurretik, baina, Ganbara Txikitxo taldeak musikal txiki bat eszenaratuko du: Josu Elberdin pasaitar konposatzailearen *La via de los sueños* lana, hain zuzen ere.



Mr. Sullivan (Gorka Aranburu), Rigodon (Xabi Abaunz) eta Willy Fog (Xabi Zubia) protagonistak. | GANBARA TXIKI ABESBATZA

**Globo erraldoia, lotura**

Kontinenteetan barrenako bidaia Julio Verneren *Munduari bira laurogei egunetan* nobelan oinarrituko da. Hain zuzen ere, hiru pertsonaiak izango dute pisua istorioan zehar: Willy Fogek (Josu Zubia), Rigodonek (Xabi Abaunz) eta Mr Sulivanek (Gorka Aranburu). Willy Fogek diru guztia galduko du apustu baten eta diru hori errekuperatzeko munduari bira emateari ekingo dio. Munduan barrenako bidaian, kontinentetik kontinenterako saltoak irudikatuko dira dekoratuen bidez eta baita abesbatza taldeen abestiekin ere. Willy Fogek proba bana egin beharko du kontinente bakoitzean, apustuan galdutako dirua errekuperatze aldera.

Guztira, 85 lagunek hartuko dute parte domekako kontzertuan. Sarrerak salgai daude dagoeneko Txokolateixan, bost eurotan.

## Kalean abesteko lehenengo saioa bihar

M.A | OÑATI

Ekimen berria ipiniko dute martxan bihar, Jose de Azpiazu musika eskolak eta Txantxiku Ikastolak elkarlanean antolatuta; izan ere, herrian euskal kultura zabaldu eta kantu tradizionalak herritarrei hurbiltzeko helburuarekin, *Herrixa kantuan* ekimena antolatu dute. Aipatu helburuez gain, euskaltzaletasuna eta euskal nortasuna sustatzea, herriko kaleak alaitu eta girotzea eta familiak euskal giroan elkartu eta herrigintzan aritzea dira ekimenaren beste helburuak. Euskal Herriko beste hainbat herri eta hiriburutan egiten dena Oñatira heldu da.

Hileroko azken zapatuetan izango da hori, eta bihar egingo dute lehenengo saioa. Hala, herriko plazan hasita, kantuz beteko dituzte parte hartzaileek herriko kaleak. 12:30ean izango da hitzordua, eta antolatzaileek herritar guztiak animatu gura dituzte ekimenean parte hartzera: "Zenbat eta ume, guraso, familia eta norbanako gehiago elkartu, orduan eta aberatsagoa izango da ekimena", diote.

## Badator ARG! Argazki Festibala, askotariko ekintzaz beterik

KOMUNITATEA GOIENA | ITZIAR BASTARRIKA
ILUNPETAN | OÑATI

Gertu dugu ARG! Argazki Festibala. Apirilaren 12an hasi eta maiatzaren 3ra bitartean askotariko jarduerak antolatu ditugu, hala nola erakusketak, tailerrak, ikus-entzunezkoak eta bestelakoak. Hona hemen apirilaren 19ra bitartekoak: Erakusketekin hasita, apirilaren 12tik maiatzaren 3ra bitartean, Gema Arrugaetaren *Izadiaz gizakiaz* ikusteko aukera egongo da, Arantzazun. Ez hori bakarrik, Txanda elkarteko komertzioetako erakusleihoetan *Argizaiola 2013* erakusketa egongo baita; hain zuzen ere, Argizaiola sariketara aurkeztutako lanak egongo dira ikusgai. Ilunpetan argazki taldeko kideok ere ipiniko ditugu gure lanak herritarren eskura: unibertsitateko klaustroan egongo dira, apirilaren 15etik aurrera.

Horiez gain, Miren Pastor argazkilariak *Bidean* erakusketa ipiniko du Antixena gaztetxean, eta ez hori bakarrik, apirilaren 17an bere argazki lanen bideo proiekzio bat egingo baitu, hori ere gaztetxean. Erakusketa gehiago ere bai, Nagore Legarretak *Hysterion* ipiniko baitu kultur etxean, apirilaren 16tik aurrera.

Tailerrei dagokienez, Nagore Legarretak argazkigintza estenopeikoaren gaineko ikastaroa eskainiko du apirilaren 18an eta 19an gaztelekuan.



Miren Pastorren *Bidean* erakusketako argazki bat. | MIREN PASTOR

## Musika, bideo proiekzioak eta gehiago gaztetxean

Kontzertuak egingo dituzte bihar, eta halakoak eta bideo eta argazki emanaldiak apirilean zehar

M.A | OÑATI

Antixena gaztetxean betea dator asteburua eta betea dator apirila ere; izan ere, hilabete osoan hainbat kontzertu, dokumental emanaldi eta argazki erakusketa ikusteko aukera egongo da.

Bihar, esaterako, 22:00etan hasita, Drop!, Bullets Of Misery eta Highklick taldeek kontzertua eskainiko dute eta apirilaren 10ean, berriz, Joseba B. Lenoir Gang eta Sofa musikariak arituko dira. Joseba Baleztena beratar musikariaren proiektu berria da Joseba B. Lenoir Gang, eta, bide horretan, Willis Drummondeko eta Napoka Iriako lagunak izango ditu bidaide. Horiekin batera Sofa zarauztarrak igoko dira agertokira apirilaren 10ean. Azken horiek euren azken lana aurkeztuko dute gaztetxean.

Trikiti doinuak ere ez dira faltako; izan ere, apirilaren 11rako, zapatua, Trikiti gaua antolatu du gaztetxeak. Oñatiko Trikikonbo eta Trikimailu taldeek girotuko dute gaztetxea zapatu gauean, dantzarako giroa sortuta. Apirilaren 17an izango da hurrengo musika hitzordua: hain justu ere, egun horretan Hydra, Gabezia eta Elbereth taldeek eskainiko dute kontzertua: Hydra Oñatiko taldea da eta Antixenekoa izango da euren lehenengotako kontzertua. Eurekin agertokia konpartituko duen Gabezia taldeak thrash metala lantzen du eta Elbereth taldeak heavy metalaz girotuko du gaztetxea. Apirilaren 18an, zapatua, Guillotina, Control de Plagas eta Antihumano taldeak arituko dira.



Argazkian, Joseba Baleztena abeslaria. | GOIENA

**Bestelakoak**

Apirilaren 8an, azkenaldian zeresan handia eman duen *Ciutat Morta* dokumentala emango dute eta apirilaren 17an, ARG! Argazki Festibalaren baitan Miren Pastorren *Bidean* lana proiektatuko dute. Izen bereko erakusketa ikusgai egongo da apirilaren 17tik maiatzaren 3ra.

Bestetik, gaztetxetik deialdia egin dute Ernaik eta Aitzinak antolatzen duten Gazte Martxara joateko. Apirilaren 3an, 4an eta 5ean izango da hori, Lekunberritik Iruñera bitartean.

# Inauguratu dituzte Kurtzebarriko gelak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Urte berriarekin batera estreinatu zituzten ikasgela berriak Kurtzebarri eskolan, eta behin martxa hartuta inauguratu dituzte horiek; martitzenean, hain zuzen. Eskolako komunitatea osatzen duten kide asko elkartu ziren ekitaldian; besteak beste, ikasle ohiak, gurasoak, langileak eta irakasle ohiak. Udal ordezkariak eta Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Gipuzkoako lurralde ordezkari Gema Gonzalez de Txabarri izan zituzten lagun.

**Esfortzua eta pazientzia**

Ikasle, irakasle eta gurasoek osatutako taldetxoak agurra egin zien gerturatutakoei, eta ongietorrien ostean bertsoak kantatu zituzten ikasleek trikiti doinuek lagun eginda. Dorleta Gaztañaga zuzendariak gogorarazi zuen gela berrien premia handia izan dutela azken urteotan: "Estu eta larri ibili gara eta esfortzu handia egin dute ikasleek eta irakasleek, Iralabarri plazako lokaletara bueltaka ibili behar izan dutelako. Gurasoek, ostera, pazientzia handia erakutsi dute". Eta guraso elkarteak, zuzendaritza taldeak eta eskola-kontseiluak lan handia egin dutela gaineratu zuen hark.

Ana Bolinaga alkateak eskola euskalduna, laikoa, doakoa eta publikoa aldarrikatu zuen, eta ikasleen eskubideak "bermatu" beharra dagoela azpimarratu. Jaurlaritzaren ordezkari Gonzalez de Txabarri, ostera, hezkuntzaren alde apustu egiteko gertu agertu zen.

Gero, eskolako kideek ikasgela berri guztiak erakutsi zizkieten gerturatutakoei. Eta arratsaldean, gainerako gurasoekin, ikasleekin eta herritarrekin ospatu zuten inaugurazio eguna tailerrak eta jolasak eginda.



Udaleko, Jaurlaritzako eta eskolako ordezkariak ekitaldian. | MIRARI ALTUBE



Eskolako neska-mutikoak bertsotan. | M.A.

# Txakurren jabeekin bildu dira Ingurumen Sailekoak

## Herritarren eta animalien arteko elkarbizitza sustatu gura du Udalak hainbat ekimenekin

M.A. | ARETXABALETA

Udaleko Ingurumen Saileko kideak Aretxabaletako txakurren jabeekin elkartu dira herritarren eta txakurren arteko elkarbizitza egokia lortzeko asmoarekin. 50 bat jabe elkartu ziren joan den astean eta Lore Martinez Axpe Ingurumen zinegotzia pozik azaldu da erakutsitako interesagatik.

Elkarbizitza hori sustatzeko hiru puntu indartuko dituzte: abian dagoen ordenantza gogorarazi; txakurren errolda eguneratu; eta txakurren kaken arazoaren berri eman. "Txakurra zurea da eta kalea guztiona. Gurasoek umearen pixoihala zakarrontzira bota behar duten moduan, txakur-jabeek ere berdin egin behar dute txakurraren kakekin", dio. Txakurren kakendako dauden zakarrontzien kokapenaren berri eman zieten jabeei bileran; hamabost bat daude, laranja kolorekoak: "Eta jabeen proposamenak jasoko ditugu gehiago non behar diren jakiteko", argitu du zinegotziak.

**500 txakur inguru**

Txakurren errolda ez dagoenez eguneratuta ez dago jakiterik zenbat txakur dauden Aretxabaletan, baina 500 inguru izan daitezkeela uste dute udal ordezkariek.

Ordenantzaren eta legearen arabera, txakurrok lotuta ibili behar dute kalean. Horregatik, animaliak aske ibiltzeko lekuak eskatu zizkieten jabeek Ingurumen Sailekoei. "Zenbait proposamen jaso genituen, eta aztertu egingo ditugu. Aste Santu ostean berriro bilduko gara txakur-jabeekin horren gainean berba egiteko", jakinarazi du Martinez Axpek.



Lore Martinez Axpe zinegotzia txakurren jabeekin elkartuta. | J.R.

# Basotxoko zuzendaritza batzorde berritua hasi da lanean

## Bidaiak, irteerak eta hitzaldiak izango dituzte apirila eta uztaila bitartean

M.A. | ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteak urteko batzarra egin zuen orain dela hamar bat egun eta dagoeneko hasi da lanean zuzendaritza batzorde berritua. Astean egin dute lehen batzarra kide guztiek elkarrekin, eta kargua utzi dutenek –Jose Manuel Gartzia eta Jose Ramon Quintanilla– elkartearen nondik norakoen berri eman diete kide berriei –Floren Elortondo, Glori Elortza, Txaro Villar eta Iñigo Olabe–, lanean lehenbailehen hasteko.



Basotxoko zuzendaritza batzordeko kideak eta orain kargua hartu dutenak elkarrekin. | M.A.

**Apirilean Portugalera**

Zuzendaritzako kideek batzar orokorrean jakinarazi zieten bazkideei zein asmo dituzten 2015erako, eta uztaila bitarteko egitaraua dagoeneko zehaztu dute. Bidaiak oso gustuko dituzte erretiratu aretxabaletarrek, eta hainbat iragarri dituzte: apirilaren 6tik 12ra Portugalera joango dira –autobusa beteta dago– eta ekainaren 28tik uztailaren 5era, Budapestera eta Pragara. Egun bateko irteera ere egingo dute, apirilaren 28an, Nafarroa aldera. Argibide gehiago jaso edo izena eman gura dutenak Basotxoko bulegotik pasa daitezela astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 12:00etara.

Hitzaldiak ere izango dira Basotxon. Apirilaren 24an, esaterako, gero eta gehiago entzuten den gizarte gai baten gainean jardungo dute: etxegabetzeak. Eta maiatzean osasunarekin zerikusia duten bi kontu landuko dituzte: hilaren 4an, *Medikazioa eta automedikazioa*; eta hilaren 20an, *Istripuen prebentzioa adineko pertsonentzat*. Horien guztien gainean jarduteko, adituak izango dituzte lagun Basotxoko kideek.

### 'Beltzean mintzo' dokumentala apirilaren 15ean

Loramendi elkartearen eskutik *Beltzean Mintzo: Ameriketako jatorrizko hizkuntzen arnasaz* dokumentala eskainiko dute apirilaren 15ean, eguaztena, 19:00etan, Arkupen. Garabide elkarteak egindako ikus-entzunezkoa da, eta ondoren Jon Sarasua izango da bertan, dokumentalean esandakoak argitzen eta ikusleen galderak erantzuten.

### Ludotekak zabalik izango ditu ateak gaur bazkide ez direnendako

Hilabeteko azken egubakoitz guztietan legez gaur ere ate irekiak egingo dituzte Algara ludotekan. 17:00etatik 18:15era 3, 4 eta 5 urteko umeek egon ahal izango dute, eta 18:15etik 19:00etara, 6 urtetik gorakoek. Horren helburua da bazkide ez direnei ezagutzera ematea lokala bera eta bertan egiten diren jarduerak.


Koldo Carrillo arrasatearraren basoaren gaineko erakusketa Arkupen. | M.A.

# Emakume musikarien nondik norakoak argazkitan jasota

Koldo Carrilloren erakusketa dago martxoan eta apirilean zabalduko dute Emarocken gainekoa

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Koldo Carrilloren argazkiak daude ikusgai Arkupe kultura etxean martxoa bukatu artean. *Baso bizia, bizi basoa* izeneko bilduman basoan ateratako argazki dotoreak jaso ditu argazkilari arrasatearrak eta aretxabaletarrei eskaini gura izan dizkie oraingoan.

**Emakume musikariak**

Bestalde, apirileko gida ere gertatu du Kultura Sailak eta hurrengo erakusketa izango da *Emarock: iragana, oraina eta geroa*. Apirilaren 25ean Emarock eguna egingo da Aretxabaletan –egun guztiko jaialdia, beste batzuen artean kontzertuak, tailerrak eta herri bazkaria daude– eta horren harira dator erakusketa. Euskal Herriko hainbat emakume musikariren argazkiak jaso dituzte, zuzeneko kontzertuetan guztiak, eta hori osatu dute diskoen portadekin, egunkaritako artikuluekin eta emakumeek osatutako taldeen zerrendarekin. Hona erakusketaren ordutegia: astelehenetik egubakoitzera (11:00-13:00 eta 18:00-20:00); eta zapatuetan (11:00-14:00).

**'Beltzean mintzo' Saratsuarekin**

Apirilaren 15ean, eguaztena, ostera, *Beltzean mintzo* ikus-entzunezkoa eskainiko dute Arkupen, 19:00etan, Loramendik antolatuta. Ameriketako jatorrizko hizkuntzen hausnarketaren gaineko dokumentala da, eta ostean solasaldia izango da Jon Saratsuarekin.

Bestalde, apirilaren 19an, domeka, 17:00etan, *New Orleansko Cyrano* antzezlana eskainiko du Vaiven Producciones taldeak. Edmond Rostand poeta frantsesak idatzitako *Cyrano de Bergerac* drama heroikoaren bertsio librea da eta Kepa Errasti aretxabaletarrak hartuko du Cyrano pertsonaiaren papera.

Zirku tailerrarekin jarraituko dute gaztetxoek eta apirilaren 18an izango da hurrengo saioa, 11:00etan, Arkupen.

**Huhezinema apiril bukaeran**

Hilabetetea bukatzeko, apirilaren 28an, 29an eta 30ean, Huhezinema VIII. euskal film laburren jaialdia egingo dute. *Zinema ziztadak* leloarekin antolatu dute aurtengoa.


Basabeazpiko umeak bideoaren une batean. | ARIZMENDI IKASTOLA

# Irrien Lagunen I. bideoklip lehiaketako epaimahaiaren saria jaso dugu Basabeazpiko kideok

K OMUNITATEA GOIENA | BASABEAZPI
ARIZMENDI IKASTOLA | ARETXABALETA

Arizmendi Ikastolako Basabeazpi guneko guraso, ikasle eta irakasleek bideo bat grabatu genuen otsailean, lantzen ari ginen proiektuarekin lotutakoa, Balea proiektua. Eta bideo hori Irrien Lagunen I. bideoklip lehiaketara aurkeztu genuen gero. Bi sari zeuden jokoan, epaimahaiarena eta publikoarena. Bagenekien publikoaren saririk ez genuela eskuratu, bozketan ez genuelako zorterik izan… Baina astean deia jaso dugu. Eta epaimahaiaren saria gurea da!

Ez dago esan beharrik izugarri poztu garela Basabeazpi osatzen dugun kide guztiok; izan ere, guk egindako lana gustukoa izan da eta, gainera, saria jaso du.

**Albaola itsas faktoriara**

Atzo, martxoak 26, izan zen sari banaketa Pasaiako Albaola itsas faktorian, eta bi autobus hartu eta guztiok joan ginen, ikasleak, gurasoak eta irakasleak. Hainbat opari jaso ditugu, baina guretako oparirik eta saririk politena izan da Albaola bisitatu ahal izatea eta beraiekin egotea kontu-kontari.

## Begiraleendako ikastaroak antolatu ditu Udalak

**M.A.** | ARETXABALETA

Aisialdi zerbitzuetan lan egin nahi duten begiraleendako ikastaroak antolatu ditu Udalak. Hiru saio dira hiru erronkari aurre egiteko, udal ordezkarien esanetan: kulturartekotasuna; euskararen erabilera; eta hezkidetza. Haurrekin eta gazteekin lan egiten duten begiraleendako eta hezitzaileendako dira saioak, eskola kirolean, UDAn, udaleku irekietan, gaztelekuan, errefortzu eskoletan eta ludotekan jarduten dutenendako, besteak beste.

**Epea bukatzear**

Izena emateko epea gaur, martxoak 27, bukatuko da. Udaleko Gazteria (*gazteria@aretxabaleta.eus*) edo Euskara (*anelore@aretxabaleta.eus*) zerbitzuetara jo edo deitu udaletxera: 943-71 18 62. Hiru saioak debalde dira.

Astelehenean eta martitzenean, martxoak 30 eta 31, lehenengo gaia landuko dute: kulturartekotasuna. Arkupe kultura etxean elkartuko dira, 09:00etatik 13:00etara.


MIRARI ALTUBE

## Aitor Arregirekin kontu-kontari

Euskarazko zinemagintzaren zortzi lan ikusi ahal izan ziren martitzenean Arkupen, Loramendi elkarteak antolatuta; horien artean, Kepa Errasti aretxabaletarraren *Aitona mantangorria* eta Aitor Arregi oñatiarraren *Zarautzen erosi zuen*. MUko Huheziko fakultatean, Aretxabaletan bertan, Komunikazio irakasle den Arregi, gainera, Arkupen izan zen eta ikus-entzuleekin filmaren gainean jardun zuen kontu-kontari giro goxoan.


FLOREN ELORTONDO

## Igerilari bikainak direla erakutsiz

K OMUNITATEA GOIENA |
ARATZ | ARETXABALETA

Kirola Elkarrekin jaialdiaren laugarren edizioa egin zuten Legazpin eta 300 bat kirolari elkartu ziren. Iker Arexolaleiba eta Alex Elortondo aretxabaletarrek Beñat Barrutia eta Martin Etxabe arrasatearrekin osatu zuten taldea igerian egiteko –argazkian Ainhoa Urrutia ere bai–. "Zorionak guztioi! Eta halaxe jarraitu", zoriondu ditu Floren Elortondok.

### Ibarra kiroldegiak domeketako ordutegia izango du jaiegunetan

Ibarra kiroldegiko arduradunek iragarri dute apirilaren 2an, eguena, itxita egongo dela eta Aste Santuko gainerako egunetan –apirilak 3, 4, 5 eta 6– domeketako ordutegia izango duela: 09:00-14:00. Pazko astean, ostera –apirilak 7, 8, 9, 10 eta 11–, zapatuetako ordutegia izango du: 08:30-14:00 eta 16:00-20:00.

### 'El francotirador' filma dute helduek eta 'Big Hero 6' umeek

Clint Eastwood zuzendariaren *El francotirador* filma (AEB, 2014, 132 minutu) izango dute helduek gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00) Arkupeko Zaraia aretoan.

Umeek, ostera, *Big Hero 6* animaziozko filma ikusi ahal izango dute bihar eta etzi (17:00); hain zuzen, 2014an Oscar saria irabazi zuen filma.

### Otoitzaldia dago gaur eta erramuen bedeinkapena etzi

Pastoral Barrutiko Garizumako otoitzaldia egingo dute gaur, egubakoitza, agustindarren monasterioan, 19:00etan.

Eta domekan, martxoak 29, Erramu Domekako ospakizuna izango da: lehenengo, erramuak bedeinkatu, eta gero, meza: 09:00etan monasterioan eta 11:30ean parrokian.

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Martitzeneko ohiko osoko bilkura. | IMANOL BELOKI

# Martxoko ohiko osoko bilkuran San Pedroko obrak mintzagai

## Hirugarren faseko obrak nork egingo dituen lehiaketa bidez aukeratuko dute

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Martitzenean martxoko ohiko osoko bilkura izan zen Eskoriatzako udaletxean. Hainbat gai landu zituzten, eta Isabel Guridi gogora ekarriz eman zioten hasiera saioari. Beñat Herce alkatearen esanetan: "Udaletik errekonozimendua eman nahi diogu Isabel Guridiri, Eskoriatzan egin duen ingurumenaren eta ondarearen gaineko lanagatik". Hala, San Pedro jaietan, Udalak prestatzen duen urteroko erakusketan, Isabelek egindako lana erakutsiko dute.

Isabel Guridiri aipamen berezia egin ondoren eman zioten hasiera saioari. Gai guztietatik esanguratsuena San Pedro auzoa berrurbanizatzeko proiektuan aurreikusitako obrak kontratatazeko espedientea hastea izan zen; baldintza administratiboen agiria onartzea eta obra zein enpresak egingo duen aukeratzeko lehiaketa martxan jartzea. Lehiaketa irekia izango da, eta Gipuzkoako buletinean agertuko da. Enpresek 26 egun izango dituzte proposamenak aurkezteko, eta ondoren, Udalak proposamen guztiak aztertu beharko ditu.

**Enpresendako baldintzak**

Maiatz inguruan esleituko dute San Pedro auzoko hamargarren atartetik hamasei-hamazazpi zenbakirainoko obra. Hala eta guztiz ere, baldintza batzuk ezarriko dio Udalak obra aurrera eramango duen enpresari. Honela azaldu zuen Beñat Herce alkateak: "Solbentzia tekniko eta ekonomikoa izan behar du enpresak eta horrelako obretan esperientzia izatea eskatuko zaie". Baldintza horietaz gain, Udalak herriko langabe bat kontratatzeko baldintza ere jarriko dio enpresari, eta, hain zuzen, lanak ekainean hastea aurreikusten du Udalak.

Obraren aurrekontua 300.000 euro izango da eta hirugarren fasean egingo diren lanak hauek: espaloia konpontzea, mugikortasuna hobetzea, aparkalekuak berrantolatzea... izango dira, besteak beste.

**Axtrokiak ere mintzagai**

Aipatu beharreko beste gai bat axtroki izeneko tokiko moneta ezartzeko merkatariekin sinatu beharreko lankidetza hitzarmenaren eredua onartzea izan zen. Axtroki merkatari elkartean dauden komertzioek moneta soziala erabiltzen dute, baina hemendik aurrera merkatari elkartearen kide ez direnek ere erabili ahal izango dute. Hori bai, hitzarmen bat sinatu beharko dute Udalarekin. Hala, axtrokiak erabiltzen dituztenek pegatina bat jarriko dute beraien komertzioetan.



Oñatiko L.P.M. taldeak eraman zuen Ti Tau!-ko lehen saria. | IMANOL SORIANO

# Kamera, argiak eta akzioa!

## Istorio barregarriz beteko dira Eskoriatzako kaleak umorezko Ti Tau! film laburren lehiaketan

**I.B** | ESKORIATZA

Eingeinke ekimenak antolatutako bosgarren Ti Tau! umorezko film laburren lehiaketa izango da apirilaren 18an. Ti Tau! izenak dioen moduan, ordu gutxian film labur bat sortzea izango da lehiaketaren helburua, eta, nola ez, ikus-entzunezkoak egin eta ikusiz ondo pasatzea.

Aurreko edizioetan azaroan antolatzen zen lehiaketa hori, baina aurten apirilera aldatzea pentsatu dute antolatzaileek: "Aurtengoan, udaberrira pasatu dugu, eguraldi hobea izango dugulakoan, baina nork daki, gure klima tropikal honekin...".

Apirilaren 18an, 09:30ean, Zaldibar antzokian hasiko da lehiaketa. Gaia, objektua eta oinarriak banatuko dizkiete parte hartzaileei, eta 19:00ak harte izango dute film laburra grabatu eta muntatzeko. Film laburrek lau minutu iraun beharko dute, gehienez, eta euskararen presentzia derrigorrezkoa izango da. Talde bakoitzak bere ekipoa eroan beharko du grabaketarako eta edizio lanak egiteko. Antolakuntzak, berriz, argindarra, Interneterako konexioa eta ediziorako mahaiak jarriko ditu Zaldibarren.

Lanen entregen ondoren, 20:00etan luntxa izango da, epaimahaiak lanak ikusi eta baloratzen dituen bitartean, eta 22:00etan lanen proiekzioak izango dira. Lan guztiak ikusi ondoren, sari banaketa egongo da: lehen saria 300 eurokoa, bi aipamen berezi eta publikoaren saria. Izena eman nahi duenak *www.eingeinke.org* webgunearen bidez egin ahal izango du eta antolatzaileekin harremanetan jarri nahi duenak *info@eingeinke.org* webgune bidez egin ahal izango du.

# Eskoriatzako historian hutsunea izango da Isabel Guridi barik

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Eskoriatzako historia berreskuratzen bizitza osoa eman zuen pertsona esanguratsua izan zen Isabel Guridi; aurreko astean hil zen, 73 urte zituela. Oso estimatua zen herrian, eta museoari oso lotuta egon zen beti; izan ere, museoa martxan jartzeko zeresan handia izan zuen.

Azpimarratzekoa da ze pasiorekin egiten zuen dena, batez ere euskal kultura eta mitologiarekin zerikusia zeukan guztia. Hari esker, galtzear zeuden hainbat ohitura berreskuratu dira: Urdelardero eguna, eskean irteteko abestia, kukumarroak eta herriko ondarea mantendu da; Ibarraundi, Zubiate, Elorreta... Integrazioaren alde ere lan egin zuen, eta horra hor, oraindik bizirik, hark sortutako museo eskola.

Bestalde, irakasle ere ibili zen, Jose Arana ikastolan eta Luis Ezeiza ikastetxean. Baina haren pasioa memoria etnografikoa mantentzea izan zen.

**Ukituz eta jolastuz ikasten**

Museoko langile Saioa Altzuaren esanetan: "Aipatzekoa da museo kontzeptuari eman zion ukitua berrikuntza pedagogiko ugari sartuz; ukituz eta jolastuz, ikastea zen haren leloa. Isabelek zekiena transmitituz eta edozein adinetako entzuleari gozaraziz pasa zuen bere bizitzaren zati handi bat".



Isabel Guridi, umeekin, historiaurreko tailerrean. | IBARRAUNDI MUSEOA

### Iazko balorazioa irakurri eta aurtengo San Pedro jaiak prestatzen hasi dira Kultura Mahaian

Herriko jaiak osatzeko hainbat bilera egingo dituzte herritarren artean egitarau aberatsa sortzeko. Lehen bilera martitzenean izan zen, eta aurreko urteko balorazioa irakurri zuten lehenbizi. Hala, iaz egin ziren ekintza batzuk mantentzea eta beste batzuk ez egitea erabakitzen ari dira. Berrikuntzak egongo direla ere aipatu zuten: gaztelekutik Gazte Eguna antolatuko dute eta *Txirikilla elkartekoek* txikientzako jokoak prestatuko dituzte, besteak beste. Oraindik asko dago zehazteko, eta proposamenak dituzten herritarrei gonbidapena egiten die Kultura Mahaiak hurrengo bilerarako: apirilaren 22an izango da, kultura etxean, 18:30ean.

### Helduendako eta umeendako buztin eta zeramika ikastaroak izango dira Zubiaten

Gaur egungo zeramika egiteko ikastaroa izango da Zubiaten. Ikastaroa apirilaren 14tik ekainaren 23ra arte izango da, hamaika egunetan. Helduendako eta umeendako izango da ikastaroa, martitzenero, eta buztinarekin piezak egiten erakutsiko diete izena ematen dutenei. Helduek arratsaldez bi orduko ikastaroa izango dute eta umeek, 7 urtetik gora dituztenek, ordubetekoa. Izena eman nahi duenak Ibarraundi museoaren bitartez egin ahal izango du eta informazio gehiago eskuratu nahi duenak ere bertan izango du aukera.

### 'ZurrumurruEz!' zurrumurruak gainditzeko hitzaldia izango da apirilaren 14an Ibarraundin

Zurrumurruak ahoz aho ibiltzen dira egiazkoak ote diren egiaztatu gabe, eta horrela zabaltzen dira, ez egiazkoak direlako, baizik eta jende askok sinisten dituelako. Atzerritarrek tratu hobea jasotzen dutela administrazio publikotik dioten aurreiritziz beteriko zurrumurruei eta estereotipoei aurre egitea da hitzaldiaren helburua. Hitzaldia Xabier Aierdik egingo du eta ele bitan izango da. Apirilaren 14ean izango da, Ibarraundi museoan, eta Eskoriatzako Udalak antolatu du, SOS Arrazakeriaren laguntzarekin batera. Hala, *ZurrumurruEz!* hitzaldira joateko gonbidapena egin die herritarrei.

# Eskolako aterpeko araudia aldatu egingo dute gazteen eskaerei erantzuna emateko

## Udala rokodromoa jartzeko aukerak aztertzen dabil; Olaraneko gela huts bat toki aproposa izan daiteke

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Guztira, hamabi eraikin publikoren eta hamahiru aisialdiguneren gaineko hausnarketa egin du Antzuolako Udalak. Prozesu parte-hartzailea izan da. Herritarren eta herriko eragileen ekarpenak jaso ostean, astelehenean ekarpen horien guztien hausnarketa egin zuen Udalak Torresoroan.

Iaz abenduan abiatu zuen Udalak eraikin publikoen eta espazio libreen erabileraren gaineko prozesu parte-hartzailea. Helburua izan da antzuolarrekin eta herriko eragileekin batera espazio horiei ahalik eta etekin hoberena ematea. Hain zuzen ere, zein iritzi duten eta zertan hobetuko luketen galdetu zieten iaz abenduan. Orain, ekarpenak jasota, Udalak egindako hausnarketa jakinarazi die herritarrei. "Herritarrak orokorrean guztiz ados daude eta ez dituzte faltan igartzen gauzak. Baina eraikin bakoitzeko ekarpenak egin dituzte eta guk zer egin daitekeen eta zer ez eta zergatik hausnartu dugu", azaldu du Ima Beristain alkateak.



Eskolako patioan gaztetxoak areto futbola praktikatzen. | MAIDER ARREGI

**Lehentasunak**

2015ean egin daitezkeen hobekuntzen berri eman zieten herritarrei. Hala, lehentasuna izango dute udaletxeko sarrerako irisgarritasun lanek eta igogailua jartzeko lanek. Eta eskolako aterpearen arautegia aldatu egingo dute. "Adin tartea zabalduko dugu gazte gehiagorengana irits dadin". Udalak bereziki baloratu du gazteengana heldu izana parte-hartze prozesu horretan. Izan ere, ekarpen ugari egin dituzte eta kontuan hartuko dituztela jakinarazi dute. Orokorrean, eraikin eta espazio publiko gehienek oso balorazio ona jaso dute. Aipatu, Torresoroa aretoak eta Olaran etxeak dezenteko erabilera daukatela; baina herritarrek Olaranen hutsik dauden gelei ere erabilera eman gura dietela. Rokodromoa egiteko proposamena egin dute, hain justu, herritarrek. "Rokodromoa jartzeko aukera aztertzen gabiltza. Toki egokia izan daiteke Olaraneko gela huts bat, baina aztertu egin behar dugu". Herri Eskola ere txiki geratu da; gela guztiak beteta daude. Horri irtenbidea emateko lanean dabil Udala, eta asmoa da 2016an aurrefabrikatutako gelak tokiz mugitzea eta handitzea.

Herritarren eskariz, liburutegiko ordutegia moldatu egingo dute eta ordu gehiagotan izango da zabalik. Torresoroan, wifi konexioa jartzea aztertzen dabiltza brigadako langileak.

Jolasguneei dagokienez, ez dute gunerik estaliko. Pilotaleku txikian, aldiz, ping-pongeko jolas finkoak jarriko dituzte.

## Etorkinak euskara eta lan arlora hurbilduz

Banaiz Bagarako kideek Elay bisitatu dute Euskara Plus programaren baitan. Helburua da etorkinei euskarazko komunikazio gaitasunak lanaren arloan hobetzen laguntzea eta lan aukerak zabaltzea. Hala, errealitatea gertutik ezagutzeko aukera izan dute, euskararen normalizaziorako urratsa eginda.



ARTEMAN

# Murala margotuko dute aste bukaeran herritarrek

**M.A.** | ANTZUOLA

Bizikidetza artearen bitartez landuz programaren baitan, eskolako patioko kanpoaldeko horma margotuko dute antzuolarrek martxoaren 28an eta 29an, 10:00etan hasita. *Margo festa!* gisa bataiatu dute ekimena eta helburua herritarren arteko bizikidetza lantzea izan dute aurrez egindako saioetan.

**Bizikidetza ona**

Herritarren arteko bizikidetza ona lortzea da ekimen horren ardatza. Artearekin lotuta, hain justu, bizikidetza lantzea. Ondo pasatzea, herriko jendearekin elkarlanean aritzea, herriko pareta bat artista baten laguntzarekin apaintzea dira helburuak, besteak beste", dio Leire de Miguel teknikariak.

## Urteko Batzar Orokorra eta hitzaldia antolatu dugu egubakoitzerako

KOMUNITATEA GOIENA | ARROLA MENDI TALDEA | ANTZUOLA

Antzuolarrei, Arrola Mendi Taldeko kideok Batzar Orokorrean parte hartzeko dei egiten diegu. Barikurako, 18:15erako lehen deialdia deitu dugu; eta 18:30erako, bigarrena. Urtean zehar egindako mendi irteeren balantzea, balantze ekonomikoa eta datorren urterako pentsaturiko irteerak aipatuko ditugu.

Boluntario bezala batzordean sartzeko asmoa izanez gero, jakinarazi *Arrolamt@gmail.com* helbidera mezua idatzita.

**Hitzaldia**

Batzar Orokorraren ostean, 19:15 aldera, 2014ko Cho Oyuko espedizioan parte hartu zuten protagonistetako batzuek hitzaldia egingo dute Olaran etxean bertan.



2014ko Cho Oyuko espedizioko protagonistak. | ARROLA MENDI TALDEA

## Realak antolatuta, atezainen entrenatzaileentzako prestakuntza ikastaroa egingo dute Eztala zelaian

Infantil txiki mailako atezainen entrenatzaileentzako prestakuntza ikastaroa antolatu du Realak Eztalan, Antzuolako futbol zelaian. Gaztetxoendako prestakuntza saioak apirilaren 20an eta maiatzaren 25ean izango dira (astelehenak). Arratsaldeko seietan hasiko dira saioak. Lehenengo saioa martxoaren 23an egin zuten gaztetxoek Eztalan.

## Irlandako taberna-giro freskoa ekarriko du Dorronsoro eta Hicks bikote alaiak bihar

Eneko Dorronsorok eta Lukas Hicksek Dorronsoro eta Hicks taldea osatzen dute. Bata trikitia jotzen eta bestea banjoarekin arituko dira zuzenean bihar, zapatua, Aitz Garbi tabernan, 23:00etan hasita. Musika bikaina sortzen dute eta taberna-giroko festarako oso aproposa da.

## Antzuolako bigarren ipuin maratoian izena emateko epea zabalik dute antzuolarrek

Oihulari Klownek antolatuta, maiatzaren 10ean II. Ahotik Bihotzera Antzuolako ipuin maratoia egingo dute. Izena emateko, deitu udaletxera (943 76 62 46) edo idatzi *kultura@antzuola.eus* helbidera datuak emateko. Ipuinak, istorioak, garai bateko bizimoduaren pasarteak, bertsoak... nahi dena konta daiteke.

# Ingurumena eta mendia lehentasun aurrekontuan

- 2014an baino %5,41 gutxiago izango du Udalak aurten: 1.836.102 euro
- Udal Gobernuaren proposamenaren aurka agertu da EAJko Iñaki Nafarrate

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Eguazteneko osoko bilkuran, ezohiko deialdian, onartu zuten 2015eko udal aurrekontua: 1.836.102 eurokoa izango da aurten, iazkoa (1.941.146) baino %5,41 txikiagoa. Ingurumen arloko inbertsioak izango dira lehentasunak aurten: "Bultzada handia eman nahi izan diogu ingurumenaren eta mendiaren arloari", adierazi zuen Ramon Ajuria alkateak. Hala, ingurumen arloan aurreikusten dute birziklatzeko gune bat egitea, Murugaingo indusketaren hirugarren fasea gauzatzea, bide zaharrak berreskuratzea eta biomasa proiektua martxan jartzea, besteak beste.



Ezohiko bilkura deitu zen eguaztenean aurrekontuak onartzeko. | JOKIN BEREZIARTUA

### Biomasa: laguntza berriak

Astelehenean bilera "garrantzitsua" izan zuten Jaurlaritzako, Euskal Energiaren Erakundeko eta HAZIko ordezkariekin. Izan ere, biomasa proiektuaren lehen fasea aurten esleitu gura du Udalak: "Herritarren azken atxikimenduak falta dira. Konprobatzen ari gara norberaren etxean aldaketak egitea oso zaila dela, baina berri on bat daukagu horren gainean: EEEtik diru laguntza bat irtengo da eta laguntza horrekin partikularrek ordaindu beharrekoa erdira joango litzateke. Izan ere, pena handia izango litzateke laguntzetatik kanpo geratzea proiektura orain ez atxikitzearren", adierazi zuen Ajuriak.

### Beste zenbait inbertsio

Bestalde, abendua ezkero zirriborroa eginda egon arren, Ajuriak onartu zuen aurrekontua berandu eraman dutela osoko bilkurara. Batetik, herritarrekin abiatutako parte-hartze prozesua aipatu zuen: "Guretako, oso garrantzitsuak dira herritarren ekarpenak". Gainera, ekaina ezkero udaletxean kontu-hartzailerik ez egoteak ere atzeratu du prozesua: "Beste administrari bati eman genion txosten guztiak egiteko lana eta oso lanpetuta ibili da". 2015erako aurreikusten diren lanen artean hauek daude: San Martin eskolako berogailu sistema berritzea –galdara berria jartzeko 42.000 euro pasatxoko partida aurreikusten da–, Ibarrako argiteria publikoa berritzeko hirugarren fasea egitea, kiroldegiko obren bigarren fasea bukatzea, auzoetan behar diren konponketak –lur-jausiek eragindakoak, besteak beste– "lehenbailehen" egitea eta auzoetarako hirigintza planak zehaztea.

### EAJ: "Gastu arrunta itzela da"

EAJko Iñaki Nafarratek aurka bozkatu zuen: "Aurrekontuak ez ditu aramaioarren arazoak konpontzen. Bestetik, eskerrak Aramaioko Argindar Banatzailea enpresatik 160.000 euroko etekina eta foru-funtsetik [FOFEL delakoa, Diputazioaren laguntza] 100.000 euro gehiago etorri direla; bestela, arazo serioa egongo litzateke aurrekontua ixteko. Bide honetatik jarraituz gero, egungo arazoak larritu egingo dira; pertsonaleko eta udal-egiturako gastuak eta gastu arrunta itzelak dira". Horrez gain, Nafarratek salatu du aurrekontua "oso berandu" onartu dela: "Gehiengoa duen gobernu batek martxo amaieran onartzea oso berandu da. Gainera, memoria gazteleraz bakarrik dago, eta hori ezin da onartu. Autokritikarik ez badago, nik kritikatuko dut".

---

NIRE USTEZ

XABI IGOA



## Gu baizik ez gaitu

Asteon pasa da gure bailaratik Korrika eta asteon izango du Urepelen hasi zen ekimenak Bilbon bukaera. Hamar egun, 2.500 kilometro, zazpi probintzia, herri bat baina bi estatu eta hizkuntza bakarra baina mila egoera.

Asko izan ginen Urepelera joan ginen *Euskahaldunak*, eta bai, txiki geratu zitzaigun Xalbador zenaren herriko plaza. Bete genituen ilusioz, euskaraz, pozez… Urepeleko karrikak, eta gure *erosotasunean* harro oihukatu genuen: *Hemen gaude, euskararen alde!*.

*Erosotasunean* diot, gurean ere badelako zer egin, zer landu eta asko gainera; baina igo zen Urepeleko neska gazte bat oholtzara eta gogorarazi zigun enegarrenez hegoaldekooi non geunden eta zein den bertako egoera.

Urepele ez da beti martxoaren 19an ikusi genuen paisaia bukoliko bezain ederra, Urepele ez da soilik Gatiburen abestia, Urepele ez da soilik *Non hago? Zein larretan*-en jarraipena. Urepele irakasgai bat ere bada, autokritika ariketa bat, konpromisoa eskatzen duen dei bat, gogoeta bat, abisu bat…

Oraindik ez baita beranduegi. Beraz, eman dezagun pausu bat, norberak *ahal* duen neurrikoa, baina distantzia laburtzeko gai dena, Urepele eta Bilbo batuko dituena, batuko gaituena. Plazan zegoen pankarta batek argi baitzion: *Gutarik bakoitzak anitz hizkuntza ukan ditzake, euskarak gu baizik ez gaitu.*

**"Eman dezagun pausu bat, norberak 'ahal' duen neurrikoa"**

---



JOKIN BEREZIARTUA

## Martxan da frontenis txapelketa

Martxoaren 16an hasi zen lehen aldiz antolatu duten frontenis txapelketa. Antolatzaileak "oso pozik" daude, 22 bikotek eman dute-eta izena. Lau multzotan banatuta, multzo bakoitzeko bikoteek elkarren artean jokatuko dute; gero, onenak final-zortzirenetarako sailkatuko dira. Finala maiatzaren 23an izango da.

---

## Triki-kalejira taldea gaur kultura etxean, Gozategiren laguntzarekin

J.B. | ARAMAIO

Kontzertu berezia eskainiko du gaur, hilak 27, herriko triki-kalejira taldeak kultura etxean (18:30). Antolatzaileek aditzera eman dutenez, kultura talde moduan eskainiko duten urteko ekintzarik "garrantzitsuena" izango da, eta, gainera, trikitiaren munduan erreferente ukaezina den Gozategi taldea izango da gonbidatua: "Gure taldeko trikiti irakasle Aritz Alustizaren eta pandero irakaslearen bitartez lortu dugu Gozategi ekartzea. Gonbidatu bereziak izango dira, zalantza barik. Oso pozik gaude horregatik", adierazi dute.

Jaietan eta ospakizun berezietan modu aktiboan parte hartzeaz gain, iaz erabaki zuten herriarendako beste ekitaldi bat antolatzea: "Iazkoa oso ondo irten zen eta horregatik erabaki dugu aurten ere errepikatzea", adierazi dute trikiti eskolakoek. Gaurko ekitaldia antolatzeko Udalaren laguntza jaso dute.

### Afaria Añai tabernan

Kontzertuaren ostean afaria egingo dute Añai tabernan. Astean zehar jarri dituzte sarrerak salgai, baina gaur bertan ere erosteko aukera egongo da: "42 lagunendako lekua dago; horiek bete arte txartelak erosi ahalko dira". Umeek sei euro eta erdi ordaindu beharko dute eta helduek, berriz, 15 euro.



Triki-kalejira taldea Bizente Goikoetxea plazan, artxiboko irudi baten. | GOIENA

---

## Martxoaren 30ean eta apirilaren 21ean ospatuko dituzte Zuhaitz Egunak

J.B. | ARAMAIO

San Martin eskolak, Udalak eta Zuiako Koadrilako Tokiko Agenda 21 ekimenak Zuhaitz Eguna antolatu dute aurten ere. Ingurumenarekin eta biodibertsitatearekin lotutako sentsibilizazioa lantzeko da, haur eta gaztetxoendako, eta, antolatzaileen arabera, haurrendako "oso polita eta atsegina" izaten da.

### Lehen Hezkuntza lehenengo

Lehen Hezkuntzakoek martxoaren 30ean ospatuko dute Zuhaitz Eguna, 09:00etan. Eskolatik Kruzetara igoko dira autobusez, eta hainbat zuhaitz mota landatuko dituzte. Hamaiketakoa San Adrianen egingo dute. Haur Hezkuntzakoak, berriz, apirilaren 21ean elkartuko dira herri barruan loreak landatzeko.

---

## Castillo Suarez idazlea gaur Sastiñan, San Martin eskolari esker

San Martin eskolak Castillo Suarez (Altsasu, 1976) idazlea gonbidatu du gaurko, hilak 27, Sastiñan (17:00). *Ebelina Mandarina* liburuaren egilea da Suarez eta liburu hori bera izan zen protagonista eskolako *Ir a Kurrin Kurrin* ekimenean: "Saio dialogikoa borobilduko dugu idazlearen beraren solasaldiarekin", diote.

# Maiatzerako martxan gura dute Elgetako Baratze Parkea

30 lursail dira eta interesatuek apirilaren 7ra arte dute izena emateko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ekogunek hamaika Baratze Parke ditu Gipuzkoan. Asmoa da Elgetakoa, hamabigarrena, maiatzerako martxan egotea. Astelehenean aurkeztu zuten ekimena Ekoguneko ordezkari Amalia Britosek, Kimu Bat enpresako Mitxel Igarataundik eta Elgetako alkate Oxel Erostarbek. "Aste Santu ostean hasiko ditugu lanak, eta asmoa da maiatz hasieran ortuak prest egotea", esan du Oxel Erostarbe alkateak.



Ospitale zaharraren atzeko aldean egingo dute Baratze Parkea. | ELGETAKO UDALA

**Baratze zaintza ekologikoa**

Elgetako Baratze Parkean zaintza ekologikoa egin beharko da, eta nork bere kontsumorako. 50 metro koadroko 30 lursail eskaintzen ditu Udalak. Bost urterako esleipena izango da, eta urteko kuota ehun euro ingurukoa. Elkarte bat sortu beharko dute baratzezainek, eta Udalak adostutako arautegi batean jasoko dira horien eskubideak eta betebeharrak.

**Formazioa eta aholkularitza**

Baratzezain berriek bost bat orduko ikastaroa jasoko dute hasieran, eta Kimu Bat enpresaren aholkularitza izango dute, gutxienez, urtebetean. "Oso lursail polita da. Bertako lurra da, lehen baratze izandakoa eta egutera: eguzkiak goizetik iluntzera arte jotzen du", esan du Kimu Bat enpresako ordezkari Mitxel Igarataundik.

## Eskaintza berezia gertatu du Udal Liburutegiak apirilerako

L.Z. | ELGETA

Liburuaren Nazioarteko Eguna da apirilaren 23a, eta ekintza sorta polita aurkeztu du Udal Liburutegiak. Martitzenean eman zioten hasiera helduendako ipuin kontaketa tailerrari. Virginia Imazen gidaritzapean, zein adinetan zein ipuin, nola kontatu eta zein helbururekin aipatu zituzten lehen saioan. Hurrengoa apirilaren 15ean egingo dute.

Apirilean, bestetik, *Ezetz igarri!* lehiaketa egingo dute 12 urtetik gorako gaztetxoendako. Eta liburuzainak plazara aterako ditu liburuak apirilaren 23an. *Vademekun* ikuskizuna egingo du Deboteenbote konpainiak apirilaren 24an, eta eskolako umeendako bisitak egingo dituzte liburutegian apirilaren 28an eta 29an.

**Ipuinen ordu berezia gaur**

Gaur, barikua, 3 urtetik gorako umeendako ipuin saio berezia egingo dute liburutegian. Formatu askotariko ipuinak ikusi, ipuinak entzun eta eskulanak egingo dituzte. Baita bi liburuen zozketa ere. Saioa 17:25etik 18:15era izango da.

### Domekan gidatutako dantzaldia musika eta dantza tradizional ludikoekin osatua, 19:00etan, Espaloian

Sokan, bikoteka, soltean, korruan, taldeka... Helburua da animatzen diren herritarrek dantzan elkarrekin ondo pasatzea. Sarrera doan da eta parte hartzea librea. Dantza gidaria Patxi Montero izango da. Laguntzailea: Elgetako Udala.

KOMUNITATEA GOIENA | HERRIXA DANTZAN | ELGETA

### Ordenagailuaren erabileran trebatzeko tailerra egingo dugu Herri Eskolako neska-mutikoekin

Animatzen ditugu Elgetako erretiratuak Herri Eskolako ikasleekin batera egingo dugun ikastaro batean izena ematera. Ordenagailuen erabileraren gainean izango da. Interesatuek Pedro Mari Uberarekin edo Manu Sarasuarekin egon behar dute lehenbailehen.

KOMUNITATEA GOIENA | XALBADORPE ELKARTEA | ELGETA


Iraitz Lazkano alkategai izendatu zuten batzarreko kideekin. | L.Z.

# Iraitz Lazkano da Elgetako EH Bilduren alkategaia

Batzarrean aho batez hautatua, ilusioz eta gogotsu azaldu da 27 urteko elgetarra

L.Z. | ELGETA

"Konpromiso handia da hau, baina ilusioz eta gogotsu ekingo diot", adierazi du Iraitz Lazkanok. Martxoaren 18ko batzar irekian hautatu zuten Elgetako EH Bilduren alkategai, aho batez. Batzarrean, gainera, batzar irekietan landutako herri programa berretsi zuten. Lazkanok jasotako babesa eta herri programa egiteko prozesuan herritarrengandik jasotako iritziak eta ekarpenak eskertu ditu. "Prozesu parte hartzailea izan da, eta hasieratik herritar guztiei zabalik egon dena (...) Herri programa oso interesgarria adostea lortu dugu denon artean (...) nire izaerarekin bat egiten duena", azaldu du. Lantaldeak hauteskundeetarako zerrenda osatzeari ekingo dio orain, eta herri programa sakon lantzeari.

### Kantsatzeke taldeak Goizueta aldera du irteera zapatuan

Eguraldiak *baimentzen* badu, asmoa da lauzpabost orduko Goizueta-Arriurdin-Goizueta ibilbidea egitea. Taldea 08:00etan abiatuko da Elgetatik. Prezioa da hamar euro, garraio gastuetarako. Informazio gehiago *kantsatzeke@gmail.com* helbidean edo Kantsatzeke Facebook orrian.

### Zapatuan jokatuko dute areto futbol txapelketako finala

Jaitxo eta La Kokotxa taldeek jokatuko dute bihar, zapatua, areto futbol txapelketako finala. Norgehiagoka 11:00etan hasiko da, Udal Pilotalekuan.

Finalerdietan, Jaitxo taldeak 4-3 emaitzarekin kanporatu zuen Astuan Villa. La Kokotxak, berriz, 7-3 irabazi zion Txapela taldeari.

**Urkiri Salaberria** | Arte Ederretan ondare ez-materialean doktorea

# "Nire proposamena da gure aitona-amonen altxorrak berreskuratzea"

Ondare ez-materialaren gaineko tailerra izango da gaur, egubakoitza, 19:30ean kultura etxean,

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Gipuzkoako Diputazioko Saretzen programatik bideratuta eta Emunen lankidetzarekin, *Ondare ez-materiala, euskal nortasunaren funtsa* tailerra gidatuko du Urkiri Salaberriak (Cadiz, 1975). Arte Ederretan Ondare Ez-materialaren arloko doktorea da.

**Ondare ez-materiala kultura da?**

**Kultura bakarrik?**

Galdera bikoitza eta oso zaila erantzuteko, kultura zer den ezin da-eta modu finkoan erantzun. Hau da, kontzeptu aldakorrak dira geografikoki eta kronologikoki. Kultura zer den orain edo orain dela 50 urte desberdin izendatzen dugu, zer esanik ez kultura zer den hemen edo Serengetin… gizaki bakoitzak bere definizioa dauka, eta herri baten kultura ez da termino munizipal batean edo muga geopolitiko batean bizi diren gizaki multzoaren batuketa. Beraz, ondare ez-materiala kulturaren zatitxo bat dela esan genezake.

**Gatzagaren ezaugarriak eta gaiak landuko dituzue. Aurreratzerik bai?**

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da laguntzen dudala erdi ezkutatuta diren altxor batzuk azaleratzen… Nire lanbidea –ondarearen zaharberritzaile eta ikertzailea– besteen ondarea, materiala eta ez-materiala, zaharberritzen eta balioan jartzen datza. Ez naiz joango klase magistral bat ematera, herritarren partaidetza funtsezkoa da, eurak direlako ondare ez-materialaren altxorra, eta nire lana da eurei erakustea non duten gordeta euren eta gure herriaren altxorrik handienetako bat. Dena den, Leintz Gatzagako ezaugarri bereziak ezagutzeko bertaratu egin beharko dute.


Urkiri Salaberria. | ENRIKE LETONA

**Gaurko bizimodua materialtasunera bideratuta dago, batik bat. Zelan eragiten du horrek?**

Iparra galtzea eta bat-batean bizitza alferrik galdu dugula jabetzea. Non bizi gara? Ze lotura ditugu "gure etxearekin"? Zeintzuk dira gazteen ametsak? Eta plazerak? Eta nagusien espazioa? Non eta zergatik batzen gara? Nola edo zer ospatzen dugu? Zein gara? Zerk batzen gaitu anai-arreben artean?

**Aldatu egin beharko genuke hori?**

Eskertzekoa litzateke pentsamendu kritikoa lantzea. Imajinatu gizarteak jakingo balu zein den gizarte bezala duen helburua, denborarekiko, belaunaldiz belaunaldi, eta munduarekiko, beste kulturen aurrean. Egungo joerari buelta emango bagenio, balio batzuk landuko genituzke, eta norberak, talde baten edo bere buruaren aurrean, bere burua, helburua eta bizimodua identifikatzea izango luke eta norabidea argi izango luke (…). Hau da proposamena: beste herri baten ondarea "adoptatu" barik, aitona-amonen altxorrak berreskuratzea. Adibidez, gure ohituren artean hitza betetzea zegoen, eta egun, galdutzat ematen da.

TXIRRINDULARITZA

# Gorlako maldak, ziklisten zain

- Bergarako probak aldaketak izango ditu ibilbidean
- Juanma Garate txirrindulari ohia omenduko dute



Iazko helmugan Arnau Sole besoak jasota. | GOIENA

XABIER URZELAI | ARRASATE

Iaz, Gorlako Igoeraren 40. urteurrena behar den moduan ospatu zuten Lokatzako antolatzaileek, eta beste 40 urte egiteko gertu daude. Hala, bide horretan lehenengo pausoa emango dute domekan (10:00), 41. edizioa jokatuta; aurten, Peugeot Etormobil etxearen babesa izango dute.

Eta domekarako lasterketak hainbat nobedade izango ditu: alde batetik, 1998an eta 1999an igoera irabazi zuen Juanma Garate ziklista irundarra omenduko dute: "Urteurreneko bazkarira ezin izan zuen etorri, eta penaz geratu zen. Izan ere, betidanik oso ondo portatu izan da gurekin, San Prudentzion egiten dugun afarira etorri izan da askotan, eta, erretiroa hartuta, merezi zuen halako omenaldi bat", azaldu du Jon Unamunok, Lokatzako ordezkariak.

**Aldaketak ibilbidean**

Beste nobedade bat ibilbidearena izango da; izan ere, Deskarga arriskutsu dago ziklistendako, eta domekan Udanatik emango dute itzulia. Horrek luzeago egingo du lasterketa (110 kilometro) eta estrategia aldetik ere seguru beste aukera batzuk emango dituela. Oinarrizkoa, baina, ez da aldatuko: Gorlako maldetan azkarrena denak irabaziko du lasterketa, 12:45 inguruan.

Debagoiendarrei dagokienez, hauxe izango da bailarako ordezkaritza: Alex Aranburu eta Iker Eskibel (Zirauna-Infisport), Asier Taboada (Debabarrena), Julen Irizar (Ampo) eta Etxabe anaiak (Seguros Bilbao). Azkenik, Mikel Aristi bergarарrak ezingo du etxeko proban egon, Portugalen lehiatuko da-eta asteburuan.

**JUANMA GARATE** | TXIRRINDULARI OHIA

## "Irteeran gazteen urduritasun aurpegia ikusi gura dut, guk izaten genuena"



WIKIPEDIA

Juanma Garatek gazte mailatik harreman estua izan du Bergarako ziklismo-zaleekin. Birritan irabazi zuen Gorlako Igoera, 1998an eta 1999an, baina profesionaletara salto egin zuenean —duela 15 urte— ere bergararrek gertutik jarraitu izan dute Irungo ziklista. Arlo pertsonalean urte gogorra pasa ostean, merezitako omenaldia jasoko du [Elkarrizketa osorik *Goiena.eus*-en].

**Ziklistek egutegi betea izaten duzue konpromisoei erantzuteko, baina, behin erretiroa hartuta, gustura hartuko dira halako omenaldiak.**

Duda barik. Lagun artean egun-pasa ederra egitera noa Bergarara. Gaztetatik dut harremana antolatzaileekin eta inguruko lagunekin, afizionatu moduan lehenengo, eta profesional moduan gero. Ziklismo-zale amorratuak dira eta Tourrean, Giroan... jarraitu izan naute. Baina amateur mundua ere gertutik jarraitzen dute, Gorlako Igoera antolatzen jarraitzen dute... Benetako zaleak dira, eta oso harro nago euretaz. Eta badut, goizean, lasterketa hasi aurretik gazteen urduritasun aurpegia ikusteko gogoa, guk izaten genuen berbera.

**Ze oroitzapen duzu Gorlan lortutako garaipenez? [Bakarra da birritan segidan irabazi duena, eta errekorraren jabe izan zen bi urtez, Alberto Contador iritsi zen arte].**

Oso lasterketa berezia zen niretako. Gogoan dut Joseba Arregik (Iberdrola) erakutsi zizkidala igoerako sekretu guztiak. Nik irabazi baino bi urte lehenago Josebak eta biok Beasainen aparkatu genuen autoa, eta bizikletan joan ginen Bergararaino. Gorputza berotzeko mendate erdia baino gehixeago igo genuen, eta ondoren kafea hartzera joan ginen. Bada, urte hartan (1996) Josebak berak irabazi zuen, eta nire buruari esan nion nik beste horrenbeste egin behar nuela.

**Bada, hurrengo urtean Carlos Sastrek irabazi zuen (1997), eta hurrengo bi garaipenak zureak izan ziren.**

Eta bi edizio haietan erritual berbera errepikatu nuen: Beasainen, Salbatore auzoan autoa aparkatu, Bergararaino bizikletan etorri, Gorlako zati handiena igo, eta plazara jaitsi, kafe bat hartzera. Han, irteeran, ziklistak urduri ikusten nituen, irteeran leku ona hartzeko borrokan. Eta ni lasai nengoen, gurago nuen Josebak irakatsi moduan atzean irten eta hasierako estres hori ekidin. Zortzi kilometro ezin dira esprintean igo, eta igoeran zehar astia izaten da atzetik aurrera egiteko.

> **"Eskumatara egiten duen azkeneko bihurgunean jo behar da erasoa"**

**Bi garaipenak esprintean izan ziren.**

Bai, baina biak oso ezberdinak izan ziren. Lehenengoan, Jonathan Hall australiarrak sekulako erakustaldia egin zuen, eta ihes eginda joan zen. Tontorrera iristear ginela, Pello Arreitunandiak erasoa jo eta harekin joan nintzen. Hala, Hall harrapatu genuen, eta esprintean atzean utzi nuen Pello.

**Eta bigarrena?**

Gogoan dut lasterketa bezperan, ohean nintzela, zera neukala buruan: lasterketa irabazten badut ezin dut garaipena bi besoak jasota ospatu. Izan ere, lehenengo garaipena halaxe ospatu nuen eta ez nuen modu berean egin nahi. Orduko erretratua ikusten baduzue, esku bakarraz ospatzen dut garaipena [Barre]. Urte hartan, baina, denak zeuden nik zer egingo nuen zain. Igoerako azken metroetan egin nuen ihes, Koldo Gil atzetik etorri zen, eta aurretik zen Astarlotza harrapatuta irabazi nuen.

**Errekor berria ezarri zenuen [20:33], Contador iritsi zen arte.**

Bai, eta gogoan dut *Purito*-k [Joaquim Rodriguez] irabazi zuenean, 2000. urtean, telefonoz deitu zidala, esanez errekorra kendu zidala. Baina ez, gero aitortu behar izan zuen errekorra oraindik nirea zela [Barre]. Eta gogoan dut Contadorrek hiru segundo ondu zuela nire errekorra [20:30].

**Non zegoen, bada, Gorlako Igoeraren sekretua?**

Igoeran, eskumatara egiten duen azken bihurgunea zen erasoa jotzeko une aproposa. Eta ordura arte ahalik eta lasaien joaten ahalegintzen nintzen, haizearen babesean. Esprinta, berriz, azken zuzena baino lehenago jo behar zen; bestela, ez dago nahiko tarte, zati horretan abiadura handia hartzen genuen-eta.



Juanma Garate, 1999an helmugan. | GOIENA



FUTBOLA

# Txantxiku Txuriurdinak: zale-talde berria du Realak Oñatin

Iñigo Martinezen lagunartea izango da

X.U. | ARRASATE

Txantxiku Txuriurdinak taldea zale-kuadrila baten ametsa izatetik errealitate izatera pasa da, 400 zalerekin. Eta bi urteko lana dago atzean. Hala, martitzenean Oñatiko gaztelekua goraino bete zen, besteak beste, Realetik etorritako Iñigo Martinez, David Zurututza, Leire Fernandez eta Idoia Agirre jokalariak bertatik bertara ikusteko. Oñatiko taldeak Ondarruko atzelaria izango du erreferente, eta izandako harreraz txunditutа zegoela onartu zuen Martinezek: "Ikusgarria izan da, esker oneko berbak baino ez ditut. Oñati betidanik izan da herri Realzalea".

**Bideoa ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Zaleei sinatzen hasi aurretik, Realeko jokalariek talde argazkia atera zuten txikienekin. | AMAIA TXINTXURRETA



Talde argazkia, zale talde berriko hainbat kiderekin eta aurkezpenean parte hartu zuten lagunekin. | AMAIA TXINTXURRETA



Iñigo Martinez eta Zurututza, aurkezpenaren une batean. | AMAIA TXINTXURRETA





Debagoieneko Atama kenpo taldeko kideak; tartean, Rafa Carriet (gorriduna). | FACEBOOK KENPO FULL DEFENSE

BORROKA ARTEAK

# Munduko txapelketan ordezkaritza izango dute

## Rafa Carriet maisu eskoriatzarra Espainiako hautatzaile izango da 2015ean

ARANTZAZU EZKIBEL | ESKORIATZA

Eskoriatzako Atama kenpo taldeko bi borrokalari Turkiako Antalya hirian jokatuko den munduko txapelketan izango dira: Ariane Piñero eta Joseba Izurrategi. Euskadiko eta Espainiako txapelketak irabazi ostean lortu dituzte borrokalariek munduko lehiaketara joateko txartelak. Apirilaren 27tik maiatzaren 3ra bitartean izango da txapelketa.

**Hiru sailetan lehiatuko dira**

Piñerok eta Izurrategik hiru modalitatetan parte hartuko dute: kumite borrokaldia, katak eta defentsa pertsonala. Entrenatzaile eta zuzendari tekniko Rafa Carrietekin batera izango dira Piñero eta Izurrategi Turkia aldean.

2013an, Atama kenpo taldeko Josu Letona munduko txapelketan izan zen; orduan, txapeldunordearen garaikurra ekarri zuen Letonak.

**Laguntza beharra dute**

Atama kirol taldeak, Rafa Carriet zuzendariaren izenean, munduko txapelketan taldearen parte-hartzea bermatzeko laguntza eskatu du. Hara joateko 3.000 bat euro beharko dituztela kalkulatu dute. Harremanetarako kontaktua: *rafa@carriet.net*.

**Espainiako hautatzailea**

Rafa Carriet eskoriatzarra kenpoko Espainiako hautatzaile izendatu dute 2015erako.

### Laida Ramos, Espainiako txapeldun

Laida Ramos arrasatearrak joan zen zapatuan Chesten (Valentzia) jokatutako kyokushin karateko Espainiako txapelketa irabazi zuen. Senior mailan lehiatu zen Ramos, 55 kilo azpikoen kategorian. Hiru borroka izan zituen eta hirurak irabazi zituen. Modu horretan, Europako txapelketa jokatzeko txartela lortu du arrasatearrak: maiatzaren 16an izango da Europakoa, Estonian.

IGERIKETA

# Espainiako txapelketa jokatuko du Jon Muxikak

## Igerilari bergararraren helburu nagusia bizkar erako errekor pertsonala hobetzea izango da

A.E. | BERGARA

Jon Muxika igerilari bergararrak Espainiako Open txapelketa jokatuko du Malagan. Zapatutik martitzenera arte izango da txapelketa; Muxikak zapatuan, domekan eta martitzenean izango ditu igeriketa probak. Bizkar eran lehiatuko da: 50, 100 eta 200 metroko probetan.

"Helburu nagusia errekor pertsonalak hobetzea izango da eta, ahal bada, finalerako sailkatzea", azaldu du igerilari bergararrak. Muxikaren marka pertsonalak hauek dira: igerileku luzean –50 metroko igerilekua– 50 metroko proban 27,32 segundokoa; 100 metroko proban 52,01 segundokoa; eta, 200 metroko proban 2.09,01.

**Europako onenak**

Espainiako Open txapelketa denez, beste herrialde batzuetako igerilariak ere joango dira Malagara aste bukaeran. Hala, Europako hainbat herrialdetako igerilariak espero dituzte; Muxikaren esanetan, "oso maila oneko" igerilariak izango dira. Horregatik, "zail" ikusten du txapelketan dominaren bat lortzea.

Goizetan izango ditu sailkatze probak Muxikak; eta arratsaldetan finalak izango dira. "Finalen bat eskuratuz gero... pozik egongo naiz!", gaineratu du igerilariak. Finalera 16 igerilari sailkatuko dira: eta, A eta B finalak jokatuko dituzte. Bi txanda horietan denbora onena egiten duena izango da txapelduna.

**Bidasoa taldean dabil Muxika**

Muxika Eibarren entrenatzen da Eduardo Lopezen agindutara, baina Bidasoa XXI taldekoa da. Gaur, egubakoitza, hartuko dute Malagara joateko hegaldia, Hondarribian, eta eguaztenean itzuliko dira.

Azken hilabeteetan buru-belarri ibili da Muxika txapelketa horri begira entrenatzen.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**OHOREZKO ERREGIONALA**
**Antzuola-Zarautz**
Zapatua. 16:30. Eztala.
**Hernani-Aretxabaleta**
Domeka. 18:00. Harane (Usurbil).
**Hondarribia-Aloña Mendi**
Domeka. 16:30. Ondartza.
**Beti Gazte-Bergara**
Domeka. 16:30. Mastegi.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
**Getariako-Mondra**
Domeka. 16:30. Mendibeltz.
**Aretxabaleta B-Ilintxa**
Domeka. 16:30. Ibarra

**LEHEN ERREGIONALA, IGOERA**
**Irun-Bergara**
Domeka. 17:30. Gal.

**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**
**Arizmendi-Eibartarrak**
Zapatua. 16:30. Ibarra

**OHOREZKO GAZTEAK**
**Aloña Mendi-Beasain**
Domeka. 16:30. Azkoagain.
**Ilintxa-Aretxabaleta**
Zapatua. 16:30. Bikuña.
**Mondra-Ordizia**
Zapatua. 16:00. Mojategi.
**Urola-Bergara**
Zapatua. 15:30. Argixao.

**GAZTEEN 1. MAILA, IGOERA**
**Antzuola-Intxurre**
Zapatua. 11:00. Eztala.

**GAZTEEN 1. MAILA, KOPA**
**Mondra-Aretxabaleta**
Domeka. 16:30. Mojategi.
**Urki-Aloña Mendi**
Zapatua. 17:30. Unbe.
**Bergara**
Atsedena.

**OHOREZKO KADETEAK**
**Bergara-Real Sociedad**
Domeka. 17:30. Ipintza.
**Lagun Onak-Aloña Mendi**
Zapatua. 17:30. Garmendipe.
**Ordizia-Arrasate**
Domeka. 17:30. Altamira.

**EMAKUMEEN ERREGIONALA**
**Eibar-Arizmendi**
Domeka. 17:30. Unbe.
**Oiartzun-Mondragon**
Zapatua. 16:30. Karla Lekuona.

**EMAKUMEEN ERREG. KOPA**
**Bergara-Ostadar**
Domeka. 15:30. Ipintza.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
**Eskoriatza-Gora Bilbao**
Zapatua. 17:50. Manuel Muñoz.

**LEHEN MAILA**
**Ventanas Isu-Aretxabaleta**
Domeka. 11:20. Lasarte.

**BIGARREN MAILA**
**Makax-Mondrate**
Domeka. Zehaztu barik. Usurbil.

**SENIOR NESKAK**
**Eskoriatza-Idiazabal**
Zapatua. Zehaztu barik. Manuel Muñoz.

FUTBOLA

### Antzuolak jokatuko du etxean: Zarautz izango dute aurkari, bihar

Ohorezko Erregional mailan, Antzuolak etxean jokatuko du Zarautzen aurka bihar, zapatua, 16:30ean. Aretxabaletak Hernanin, domekan, 18:00etan; Aloña Mendik Hondarribian, domekan, 16:30ean; eta Bergarak Beti Gazteren aurka jokatuko du domekan, 16:30ean, Lesakan.

ESKUBALOIA

### Ford Mugarrik Eibarren aurka jokatuko du bihar, 18:30ean

Pablo Gartziak zuzentzen duen taldeak Somos Eibar aurkari zuzena izango du aurrean bihar, zapatua, 18:30ean, Iturripen. Garrantzi handiko lehia izango da, duda barik, arrasatearrendako. Euskal Ligako Bergarak, aldiz, Escolapiosen aurka jokatuko du gaur, 20:30ean, Labegaraietan.



# EZKONTZAK 2015




ANE IDIGORAS - BEGIRA





Marga Romariz, Etxe-Aundi.


Alberto Elortza, Zelai Zabal.

# Banketea, kartara

## Estilo guztietara eta bikotearen gustuetara moldatzen dira jatetxeak

Garai berriak dira ezkontza ospakizunei dagokienez... edo, beharbada, ez. Estilo berriak daude –ezkontza zibilak Hollywoodeko filmetan bezala ospatuta, euskal ezkontza tradizionalak, nekazari dotore estilokoak, informalak baina *glamour*-ezko ukituarekin... nahi beste– eta, Interneti esker, nobedadeak eta joerak gero eta azkarrago zabaltzen dira. Baina, azkenean, beti egin den moduan, ospakizun ahaztezina nahi dute ezkonberriek; familiarekin eta lagunekin batera, ondo jantzitako mahaiaren inguruan –eta, bazkaria bukatutakoan, musikarekin gaueko ordu txikietara arte...–, ezkontza eguna ondo ospatzea. Eta hori horrela izan dadin, Debagoieneko jatetxeak bikotearen eta gonbidatuen esanetara jartzen dira.

Izan ere, bailarako jatetxeak bikotearen ondoan egongo dira euren ametsetako eztei ospakizuna egiten laguntzeko. Bergarako Lasa, Leintz Gatzagako Gure Ametsa eta Oñatiko Zelai Zabal eta Etxe-Aundi dira bailarako ezkonberriek sarri aukeratzen dituzten jatetxeak. Menuak irekiak izaten dira eta bikoteek eta haien familiek dastatze-saioak izaten dituzte, euren eta gonbidatuen plater gustukoenak aukeratzeko. Gainera, banketeaz gain, barra, dantzaldia, koktela... ere egin dezakete. Esklusibotasuna, ordutegirik eza eta askatasuna dira jatetxeon eskaintza.


Lasa jatetxeko, Koldo Lasa.

### ZELAI ZABAL
### Ehun lagunetik gorakoetan, jatetxearen kontura musika

Arantzazuko Zelai Zabal jatetxeko Maria Pilar Elortzak urte askotako esperientzia ekartzen du gogora: "Ezkontza gurean ospatu duten bikote askoren seme-alaben ezkontzak ere ospatu izan ditugu".

Esklusibotasuna –egunero eztei bakarra–, gertuko tratua eta arreta pertsonalizatua nabarmentzen ditu Elortzak: "Dena eurek aukeratzen dute. Menua euren erabakia da, eta irekita gaude euren eskaeretara". 100 lagunetik gorako banketeetan, musika jatetxearen kontura da. Jaia jarrai dezakete nahi duten ordura arte.

### ETXE-AUNDI
### Bikotearekin batera lanean, zalantza guztiak argitzeko

Oñatiko Etxe-Aundiko ugazaba Marga Romarizek honako hau dio: "Onenetakoak gara. Banketeak gure espezialitatea dira". Bikoteak "zalantza askorekin" joaten zaizkiela dio, eta eurak ahalegintzen dira gomendioak ematen eta laguntzen; horrekin batera, baina "askatasun osoa" ematen diete nahi duten moduko ospakizuna izan dadin. Honela azaltzen du Romarizek: "Iradokizunak egiten dizkiegu; adibidez, osagarriak gogoraraziz, hala nola koktela, barra librea... baina euren askatasunari mugarik ipini barik".

Menu aldetik, plater guztiak "elaborazio handikoak" direla gogora ekartzen du.






Josune Ibabe, Gure Ametsa.

## LASA
### Lorategi zoragarrian ospatzeko aukera

Bergarako Lasa jatetxeak eztei-bankete onenaren Gipuzkoako saria irabazi zuen 2009an. Horrek aitortzen duen kalitateaz gain, kokapena nabarmentzen du Koldo Lasa ugazaba eta sukaldariak: "Leku ezin hobean dago jatetxea. Monumentu Nazionala da, lorategi ederrarekin, gainera, eta orain, udaberrian, ikusgarri egoten da. Nahi izanez gero, ezkontza zibilen ospakizuna ere egin dezakete hor bikoteek; alfonbra gorria eta guzti ipintzen diegu".

250 lagunendako moduko jangela eta jaia jarraitzeko aretoa eskaintzen dituzte.

## GURE AMETSA
### Estilo berrietara egokitutako banketea eta dekorazioa

Gure Ametsa jatetxeko Josune Ibabek bikoteari ematen dioten "arreta pertsonalizatua" azpimarratzen du: "Egunean, gehienez ere eztei bateko ospakizuna egiten da; hortaz, esklusibotasuna eskaintzen dugu. Horrez gain, bikotearen gustuetara eta aurrekontura moldatzen gara; alde horretatik, ez dago estandarrik, ez eta mugarik ere".

Ibabek dioenez, ospakizunak "gero eta pertsonalizatuagoak" izaten dira eta eurak bezeroen gustuetara moldatzen dira: "Bi joera daude: *rustic-chic* eta *shabby-chic*. Ezkontzen gaineko blog gero eta gehiago daude, eta gu ere gure burua eguneratzen saiatzen gara".

# Argazki "freskoak" gura dituzte oraingo bikoteek

Teleobjektiboarekin ibiltzen dira gaur egun ezkontzetako argazkilaritza zerbitzua eskaintzen duten enpresa asko. Aretxabaletako Fotobegira argazki-dendako Ane Idigoras ugazabak dioenez, posatutako argazkiak baino, gaur egungo bikoteek argazki freskoak nahiago dituzte: "Teleobjektiboa hartu eta eurak konturatu barik argazkiak ateratzea; hori eskatzen dute, gehienbat".

Beste moda bat da jatetxean *photocall*-a jarri eta hor ateratzea argazkiak: "Txapel handi, sudurrekin... eta katxondeo apur batekin", dio Idigorasek.

Edozein modutan, Fotobegirako argazkilariak gaineratu du gaur egun geroago eta familia ezkontza gehiago egiten direla, eta, ondorioz, sarri argazkilaria ez dela jatetxera joaten.

Argazkien kokapenari dagokionez, berriz, hori bai, hori bikoteen aukera izaten da: "Hondartzan, mendian... nahi izaten dituzte", dio Idigorasek.

Kontuak kontu, Fotobegirak moduan, ohikoa da, baita ere, ideia finkorik ez duten bikoteei aholkularitza zerbitzua eskaintzea argazkilaritza estudioek.



Sara eta Angel, helikopteroaren aurrean.




Arkaitz eta Itxaso, euren izenen inizialekin, hondartzan.



# Barrua ondo gertatu kanpoak dizdiz egiteko

## Tratamendu egokiekin gertatutako larruazalak eta barruko arropa erosoak argiz beteko ditu ezkongaiak

Barrukoa, ikusten ez dena, ondo gertatu behar da gero kanpokoak dizdiz egin dezan. Eta noizbait dizdiz egin gura bada, norberaren ezkontza egunean da.

Poztasunak, berak bakarrik, aurpegiari beste distira bat ematen dio egun handi horretan, baina larruazala aurrez gertatuz gero eta egunean behar bezala makillatu, zalantza barik, beste argi bat izango du aurpegiak. Horretarako, tratamendu egokiak behar dira, esfoliazioa eta hidratazioa, esaterako, norberaren azalera egokitutakoak. Eta hori borobiltzeko, *peeling*-arekin gorputza mimatzea ezinbestekoa da.

**BARRUKO ARROPA EROSOA**

Gorputz biluziaren gainean barruko arropa dotorea jantziko dute gero ezkongaiek. Polita, sexya, goxoa… baina garrantzitsuena erosoa izatea da. Soinekoa piztea da horien helburua nesken kasuan, haren bolumenak nabarmentzea; eta mutilei dagokienez, trajea, alkandora batez ere, dotore mantentzea egun osoan. Kalitateak garrantzi handia du, gainera, eta osagai naturaldun ehunekin egindakoak gura dira orain, kotoidunak, edo *modal*-a eta *lyoncell*-a dutenak.


Ezkontza egunean emakumea makillatzen.

## Garbitasuna eta makillaje egokia

Aurpegi distiratsua izateko ezkontza egunean eta makillajea hobeto finkatzeko ezinbestekoa da aurrez gertatzea larruazala. Norberaren azalak esango duela egun bakarreko tratamendua edo gehiagokoa behar duen dio Lirain estetika zentroko Mari Carmen Pardok: "Azala egoera onean izanez gero, hilabete aurretik egiten da aurpegiaren garbiketa bat eta gero ezkontza aurreko egunean beste bat, distiratsu eta ezin politago izateko gero". Eguneko makillajea ezin da edonola egindakoa izan; batetik, norberaren ezaugarririk onenak agerian utzi behar ditu eta luzaroan iraun, eta bestetik, ezin du distirarik sortu argazkiak ateratzerakoan. Horregatik, garrantzi handia duelako makillajeak, aditu bat dute Lirainen.

Aurpegia bakarrik ez, gorputza ere gertatzen dute ezkongaiek *peeling*-a erabilita eta ondo hidratatuta. Eta larruazalari kolorea emateko aukera ere beti dago solariumean, baina egungo joera azal zurixka da.

**Eskuak dotore erakusteko manikura frantsesa**

Ezkongaiaren eskuak argazki askotan agertuko dira; horregatik, manikura frantsesa da gehienen hautua —azazkal puntak zuriz margotuta—. Eta hankak erakutsiko dituztenek pedikura ere egingo dute.


Barruko arropa erosoa eta aldi berean sexya ezkontza egunerako.

## Bizkarra biluzik bularretako egokiarekin

Azken joera da bizkarra biluzik uzten duten ezkontza soinekoak, eta horiendako bularretako aproposak behar dira. Arrasateko Sikol lentzeria dendak kortse-egile onenekin egiten du lan eta erronka horri aurre egiten jakin dutela dio Yolanda Sanchez ugazabak: "Atzeko partean gurutzatu eta aurrean lotzen diren bularretako erosoak dauzkagu, ez dira ikusten eta soinekoari beste grazia bat ematen diote". Erosotasuna oso garrantzitsua da eta horrek soinekoan izan behar du gero isla: "Soinekoaren bolumenak ez badira nabaritzen, guztiz desitxuratua geratuko da".

Koloreari dagokionez, marfila da ezkongaiek gura dutena, erabat baztertua dago zuria. "Baina kontuz galtzekin, ezin dira aukeratu marfil kolorekoak, hanka zatartu egiten dutelako". Eta oso xehetasun garrantzitsua da hori, hanka une askotan ikusiko delako: autotik ateratzerakoan, dantzan egiteko soinekoa jasotzerakoan…

**Mutilen hautua kalitateari begira egindakoa**

Barruko arropa polita atsegin dute mutilek, atentzioa emango duena, baina, batez ere, kalitate onekoa. Osagai naturalak gura dituzte, goxoak eta leunak, eta izerdiari pasatzen uzten diotenak.

EZKONTZA erreportajeak prezio onenean
www.fotobegira.com
Begira argazkilaritza
Ilargi plaza 1,
20550 Aretxabaleta
☎ 943 53 49 45 (Ane Idigoras)

ZELAI ZABAL Restaurant
• Bataio, jaunartze eta ezkontzetarako leku paregabea.
• 180 gonbidaturendako jangela.
Arantzazu auzoa 38 - OÑATI
Tel.: 943 78 13 06
www.zelaizabal.com / restaurante@zelaizabal.com




Oñatiko lagun batzuk Sopelan parapentea egiten.



Arrasateko neska kuadrilla bat Eibarren ezkondu aurreko agur-afarian.

# Azken festa libre

Ezkontza bikote kontua da, baina, egun berezi hori iritsi aurretik, ezkongai bakoitzak bere aldetik egiteko hamaika kontu daude. Azken urteotan bizkor errotu den ezkondu aurreko agur-afaria umore, sorpresa eta giro onaz betetako gaua izan ohi da.

Londres, Milan, Malaga, Oviedo eta halako hiriak aukeratu eta gero, krisiak aurrekontuak jaitsi ditu, eta egun, Bilbo, Iruñea eta Logroño izan ohi dira hiriburu bisitatuenak. Plana, baina, ez da askorik aldatu. Ezkongaiaren lagun edo lankideek antolatzen dute asteburua, eta, gehienetan, ezkongai *koitaduak* ez du informazio askorik izaten.

*Striptease*-a, ginkana, afari erotikoa, mozorroa, oparia... Aukerak aurrekontuaren araberakoak dira, eta orokorrean festaz eta algaraz betetako astebururako 200 euro gordetzea komeni den arren, ekintzak lagunek antolatzen badituzte, aurrekontua dezente merka daiteke.

Beste mota bateko planak nahi dituzten horiek ere aukera ugari izaten dituzte. Azkenaldian, kuadrilla ugarik arrisku-kirolen aukera hartzen dute eta *rafting*-a, zubi-saltoa eta parapentea egitea hautatzen dute.

Lagun artean ondo pasatu eta plan berezi bat nahi duten horientzako aproposa da agur-afaria, lagun baten azken festa librea ez da-eta egunero ospatzen.



Arrasateko neska kuadrilla honek ezkongaia domadore mozorrotu zuten.





Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen dituen XIII-XIV. mendeko jauregi ikusgarria.

- Lorategiak.
- Parking handia.
- Ezkonberrien zerbitzura egongo den lantalde zabala.
- 220 gonbidaturentzako tokia
- Zure ezkontza eguneko koktela eta dantzaldia egiteko terraza zabala eta egokia. Bertan ezkontza zibilak ospatzeko leku aproposa.
- Gastronomia zaindua eta aukera zabalekoa…

Ezkontzetan espezializatuta dagoen jatetxea

leku eta egun ahaztezinak

Etxe-Aundi
Hotela · Jatetxea
Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90
etxeaundi@etxeaundi.com • www.etxeaundi.com

Eskaintza berezia dugu ezkontzetarako: dena barne duen pack-a

# Leku exotikoak ezagutuz

Bikoteek urrutiko lekuak aukeratzen dituzte eztei-bidaiaz gozatzeko, eta askotariko kultura eta ohiturak ikusteko

## Japonia alderik alde ezagutzen

Gorka Bikuña eta Maider Errasti Japonian egon ziren eztei-bidaian, hiru astez. Tokion hasi eta bukatu zuten bidaia. Tartean, Kamakura, Kioto, Hiroshima, Osaka eta Fuji mendi sakratua bisitatu zituzten. Japonian ibiltzeko trena erabili zuten: *Japan Rail Pass*. "Atzerritarrendako bakarrik da txartela, eta oso erosoa", diote. Bidaia euren kabuz antolatu zuten. "Interneteko foroetan lortu genuen informazioa. Batez ere, *Japon por libre* bloga erabili genuen. Hegazkinerako eta trenerako txartela, hotelak, zer ikusi, nora bidaiatu... Dudarik gabe, esperientzia errepikatu egingo genuke", diote.



**Gorka Bikuña eta Maider Errasti, Miyajiman.**



**Amaia Bernal eta Asier Olasagasti, trekking egiten.**

## Trekking egiten Annapurna inguruetan

Amaia Bernal eta Asier Olasagasti ekainean ezkondu ziren, baina urrian joan ziren eztei-bidaian, Himalaiara, Monzonen denboraldia bukatu ostean. "Trekkingak ez du berezko zailtasunik, ibilbidearen luzerak eta igarobideen garaierek jar dezakete oztopo bakarra", diote. Ibilbidea 700 metrotan hasi eta 5.416an bukatzen da. Trekkingaren ostean atseden hartu zuten Phokara hirian. Chitwan oihanean egon ziren animalia basatiak ikusten. Eztei-bidaia Katmandu hirian bukatu zuten. "Nork bere kabuz egiteko leku gomendagarria da. Merezi du", dio bikoteak.






Manex Agirre, zapatuan, eskuratu berri zuen Arabako txapela buruan, azken agurra kantatzen . | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

**Manex Agirre** | Arabako Bertso Txapelketako irabazlea

# "Seiko motzean Korrikari buruzko ariketa izan zen nire borobilena"

- Bigarrenez eskuratu du Aramaioko bertsolariak Arabako txapela
- Debagoieneko ordezkaritza zabala izan du aurtengo txapelketak

**A.A / T. M** | ARAMAIO

Manex Agirrek eskuratu du, bigarrenez, Arabako Bertsolari Txapelketako sari nagusia. 2011n irabazi zuen lehen aldiz eta zapatuan berretsi zuen txapela Gasteizko Printzipal antzokian.

**Lehenik eta behin, zorionak!**

Eskerrik asko!

**Zelan doaz txapeldun moduan lehenengo egunak?**

Zapatuko ospakizunak luze eta ondo joan ziren eta ondorengoak ere ondo joan dira; zorionak jasotzen, tartean hedabideekin elkarrizketak egiten... Zurrunbiloan sartuta nago oraindik. Kostatuko zait ateratzea, baina pozik!

**Orain dela lau urte ere txapelduna izan zinen; antzera bizi izan zenuen ala ezberdina izan da aurten?**

Oso ezberdina izan da. 2011n luze itxarondako zer edo zer etortzea bezala izan zen. Nire bertso ibilbideko helburuetako bat zen; helburu nagusia ez esatearren. Euforia handia ekarri zidan. Lau urteren ondoren, beste bat etorri da, eta sentsazioa ezberdina da. Txapelketa irabazi izanak esan gura du gauzak ondo egin ditudala. Egindako lanaren fruitua da, eta, jakinda lan asko egin dugula, oso pozgarria da; baina ez, akaso, orain dela lau urte besteko euforikoa.

**Finalaren aurreko saio guztietan puntuei dagokienez lehena izan zara. Indarra eman zizun horrek?**

Konfiantza eta indarra ematen du, bai, baina oso kontuz hartu beharreko konfiantza da, gero finalean denak zerotik hasten gara-eta. Finalera pasatzea gero eta zailagoa da. Atzean geratu direnek ere aukera handiak zituzten. Lehenengo eta bigarren sailkatu zaren burutik kendu beharrekoa da, zure burua ez nahaste aldera.

**Akaso, epaileendako galdera da, baina zergatik uste duzu izan zela txapela zuretzat?**

Epaileek hobeto erantzungo dizute, bai, une batzuetan zure buruaren perspektiba galdu egiten duzu-eta. Nik ez nuen nire burua horren goian ikusten. Geroago konturatu naiz, nahiz eta gauza denak ondo egin ez, gaizki egindakoak ez zeudela horren gaizki. Ez zen akats nabarmenik egon; dena dela, gurako nuke epaileaaren iritzia entzun [Barrez].

**Ze ariketarekin geratu zinen bereziki gustura?**

Korrikaren inguruan Zigor Enbeitarekin abestu nuena iruditzen zait izan zela nire borobilena. Seiko motzean izan zen, ezohikoa eta konplikatua. Bete izanaren sentsazioa izan nuen orduan.

**Xabi Igoa aramaioarra eta Arrasaten bizi den Zigor Enbeita ere finalean ziren. Elkarrekin prestatzen ibili zarete. Nola eragin du horrek?**

Txapelketa serio hartzeko arrazoi nagusietako bat izan da modu kolektiboan prestatzea: elkarri animatuz eta elikatuz. Eskola bereko bost bertsolari izan gara aurten lehiatzen.

**Agur-bertsoa familiakoei eta bertso eskolakoei bota zenien. Zuztarrak ez dira ahazten, beraz.**

Ez dira ahazten, ez, batez ere hor jarraitzen dutela ikusten delako. Transmititzen jarraitzea da tokatzen zaiguna aurreko belaunaldikooi; eta uste dut asmatzen ari garela, bertsoa eta bertso mugimendua guk ulertzen genuen moduan ulertzen dute-eta gazteek.

**Hemendik aurrera zer?**

Oraingoz, gozatu eta azkeneko hilabeteak aztertu. Aurrera begira, gogoak eta jendeak eskatzen duen beste saio egingo ditugu, lasaiago, plazetan.

IKUSPUNTUA

## PLAZER BAT, PRINTZIPAL



**XABI IGOA**
BERTSOLARIA

Luze joan zitzaigun larunbat eguerdia. Ezin ukatu hasiera baten urduri geundela. Makina bat buelta eman genuen kamerinoetan, baina irria zen nagusi denon aurpegietan, talde izaera eta elkarrekiko animo hitzak etengabe azaldu ziren.

Oholtzara irten, lehen agurrarekin batera urduritasunak bota eta hortik aurrerakoa gozagarri baino ez zen izan. Publikoaren txalo eta oihuek bultzaturik, saioan zehar, bertsolari orok izan zuen disfrutatzeko aukeraren bat. "Kauendios"-ak ere izan ziren aulkira bidean, baina saio txukuna osatu genuen. Era berean, izan zen *genialidaderik*, Manexek Ruperren abestia aipatu zuena kasu.

Kalitatezko aurrerapauso bat egiteko asmoz aurkeztu zen txapelketa eta konpromiso horri jarraiki abestu genuen oholtzan izan ginenok. Helburua gauzatu dugun seinale, gure jarrera, publikoaren beroa eta puntuazioen tarte murritza direla esango nuke; beraz, harro egoteko moduko finala eskaini genuela uste dut.

Final ostea ere luze joan zen, baina bazen zer ospatu. Zorionak, Manex! Zorionak, Araba!

# Ruper Ordorika Eskoriatzan izango da datorren astean, eta irailean Oñatin jotzeko asmoa du

**A. ARANBURUZABALA** | ESKORIATZA

Azaroan kaleratu zuen *Lurrean etzanda* lana aurkeztuko du Ruper Ordorikak Zaldibar antzokian.

Apirilaren 12an, domeka, 19:00etan izango da; sarrerak hamar eurotan salgai daude Eskoriatzako kiroldegian eta *Bibe.me* atarian.

**Orain artekoekin gustura**

Gustatu zaio oñatiarrari kantu berriak zuzenean nola uztartu diren: "Niretzat, onuragarria da pieza horietan sartu beharra, nire esparrura erakarri eta barruan sartzea, betiere. Talde lana ere garrantzitsua da; izan ere, musikari batzuekin grabatu nituen eta nire taldearekin jotzen ditut gero zuzenean; beraz, moldaketa batzuk egitea beharrezkoa izaten da". Azken bilduma ardatz badute ere, sasoi askotarikoak joko dituzte. "Zale batzuek berrikuntzak maite dituzte eta beste batzuek, berriz, gogoan dauzkaten kantuak gurago izaten dituzte.

Arkaitz Miner (gitarra, biolina eta mandolina), Hasier Oleaga (bateria) eta Lutxo Neira (baxua) izango ditu lagun.



Ordorika, Aretxabaletako Arkupen egin zuen emanaldian. | GOIENA

# Debagoieneko musika eskolen kontzertua gaur Iturrigorrin

**A. A** | ARETXABALETA

Iturrigorri frontoia Debagoieneko musika eskolen topaleku izango da gaur, egubakoitza. Herrikoaz gainera, Eskoriatzako, Arrasateko, Bergarako, Soraluzeko eta Oñatiko musikarien harrobia batuko da han, 18:00etan.

Urtero egiten duten eskolen arteko topaketa da, herriak txandakatuz egiten dutena. Bigarrenez egingo dute Aretxabaletan. Gaur, 100 ikaslek ikasgeletan ikasitakoa erakutsiko dute, hamabi irakasleren gidaritzapean, harmailetan batutako senideen eta lagunen aurrean.

**Elkarri lekukoa hartuz**

Adin askotariko musikariak igoko dira taularen gainera, haurrak eta baita helduak ere.

Anfitrioien agur dantzarekin ekingo diote. Segidan, eskolak txandakatuaz joango dira askotariko doinuak erakutsita; adibidez, euskal kantu ezagunak. Akordeoi eta batukada doinuak eskainiko dituzte oñatiarrek; Bergarakoek ganbera-boskotea ekarriko dute eta Arrasatekoen perkusio taldea izango da hurrengoa. Kantuan egingo dute segidan Eskoriatzakoek; eta flauta eta *combo* doinuekin borobilduko dute etxekoek.



**Eskoriatzako udalari esker**
Ruper Ordorika & Mugalariak ikusteko sarrerak ditugu.
**Zaldibar Antzokia. Eskoriatza**
**Apirilaren 12an, 19:00etan.**

**PARTE HARTZEKO (MARTXOAREN 31A BAINO LEHENAGO):**
**SMS:** KLUBA [Ruper] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA Ruper [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba

# Maite Toledoren 'Hemen' poesia liburua irakurgai

▶ Zornotzako Barnetegiak antolatutako 'e-kluba' delakoan irakurriko dute

▶ 'On line' izango dira saioak eta idazle antzuolarrak argibideak emango ditu

**MIREN ARREGI** | ANTZUOLA

Maite Toledo antzuolarraren *Hemen* poesia liburua proposatu du Zornotzako Barnetegiak, irakurzaletasuna bultzatzeko antolatutako *e-kluba* egitasmoan. Helburua da euskara irakurzaletasunetik bultzatzea, eta, izenak aditzera ematen duen moduan, *on line* egingo dute. Hain zuzen ere, hiru liburu irakurriko dituzte egitasmoan parte hartuko dutenek eta lehenengoa da Maite Toledoren *Hemen* poesia liburua. Antolatzaileen esanetan, poesia oso genero aproposa da proiektuari hasiera emateko: "*Hemen* liburua aukeratu dugu, horko poesiak ulertzeko ezagutza maila alturik behar ez delako", dio Zornotzako Barnetegiko zuzendari Maribi Zubiagak. Eta gaineratu du: "Zabaldu gura dugu ahalik eta gehien ekimena, eta uste dugu bide horretan oso interesgarria dela Maite Toledoren liburua. Batetik, esandakoagatik, eta bestetik, zeresana emango duen liburua delako".

**Errazago egitea**

Euskara ikasten diharduten ikasleendako askotan nekeza da euskaraz irakurtzea, Zubiagaren esanetan. Horregatik, eurendako interesgarriena taldean egitea dela uste dute. Egitasmoa Durangoko Azokako autoekoizleen plazatik abiatuta sortu da: "Autoekoizleak ikusten ditugu gure egitasmotik gertuen", dio Zubiagak. Hain zuzen ere, plaza horretan egon zen Toledo eta hasiera baten antolatzaileek nobelak proposatzea pentsatu bazuten ere, antzuolarraren lana ezagututa, poesiaren bideari ekitea erabaki zuten.

Ekimen berritzailea da, Euskal Herrian *on line* egiten den holako lehen saioa baita. Zerbait berria Toledorendako ere. "Proposatu zidatenean, interesgarri jo nuen. Niretzat ere lehen aldia da holako esperientzia baten", dio.

Apirilaren 13an hasiko dira saioak, eta apirilaren 30ean bukatu. Lehenengo astean *Hemen* liburuko lehenengo bi kapituluak komentatuko dituzte, bigarren astean hirugarrena eta hirugarren astean laugarrena. Irakurleek euren zalantzak, komentarioak eta galderak egingo dituzte eta Maite Toledok argibideak emango ditu.




*Hemen* liburuaren azala. | GOIENA

## Poesia beste eremu batzuetara zabaltzen

Aspaldi ekin zion Maite Toledok bere poesia ohiko formatutik beste eremu batzuetara zabaltzeko lanari, eta orain, pauso bat harago egin du. Hain zuzen ere, setazko zapiak salgai ipiniko ditu apirilaren erditik aurrera, eta, modu horretan, moda osagarrien alorrari ateak ireki dizkio Toledok. 1,35x1,35 zentimetroko setazko zapietan, Toledoren poesia eta ilustrazioak jasotzen dira.

"Kalitatezko artikuluak izango dira, dotoreak, denboran zehar iraunkorrak eta esklusiboak", dio antzuolarrak. Oraingoz, hiru modelotan aterako ditu zapiak eta modelo bakoitza eskuragarri egongo da hiru kolore desberdinetan.

*Maitetoledo.com* webgunean eta Donostiako 90 Grados dendan ipiniko ditu salgai zapiak, esandako moduan, apirilaren erditik aurrera.



*Tosca* operako protagonistak, opera interpretatzen. | OZENKI

# Bihar aurkeztuko dute Pucciniren 'Tosca' opera Amaia antzokian

**M.A** | ARRASATE

Ozenki elkartearen eskutik Pucciniren obra ezagunaz gozatzeko aukera egongo da bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:30ean hasita. Interpreteak maila handiko abeslariak izango dira; adibidez, *Tosca* protagonistari bizitza emango dion Amparo Navarro sopranoa. Goi mailako artisten artean ez da bertako ordezkaritzarik faltako; izan ere, Rakel Murgiondok zuzentzen duen Arizmendi Ikastolako koruak ere hartuko du parte emanaldian. Maitasuna, misterioa eta heriotza batzen ditu, besteak beste, 1800. urteko ekainaren 14an, Napoleonen garaian, kokatzen den operak. *Madama Butterfly* eta *La Bohe-me*-rekin batera, Puccini italiar konposatzailearen obra ezagunenetakoa da *Tosca*.

**Sarrerak salgai**

Oraindik ere badago sarrerak erosteko aukera, Arrasate.eus webgunean, 30 eurotan.

## Aste Santuko oporrak direla-eta Kooltur Ostegunetako kontzerturik ez da izango datozen bi asteetan

Kooltur Ekimenak taldeko lagunek atsedenaldia hartuko dute bi astez. Apirilaren 16an Makala Jazz Funk Band taldea izango da. Makala DJ konpositore eta musika ekoizle ezaguna da, musika beltzean eta dantzagarrian trebatua. Musika taldeak ere izan ditu, baina horrako hori da sendoena. *Xake* izeneko lehen diskoa argitaratu berri dute, 50eko eta 60ko hamarkadetako jazza, rhythm-and-bluesa, groovea, funka eta disco-soula batzen dituena.

# Bizitzaren inguruan hausnarketa egitea helburu duen antzezlana

Helduentzako 'Zu gabe' drama estreinatu berria taularatuko dute Anabel Arraizak eta Inazio Tolosak bihar, zapatua Torresoroan, 19:00etan

**A. ARANBURUZABALA** | ANTZUOLA

Familia arteko harremanaz, heriotzaz... edozeini gerta dakizkiokeen eguneroko gertakariak ditu oinarri *Zu gabe* antzezlanak. Bizitzaren inguruko hausnarketa egitea helburu duen helduentzako lana da Atea Teatrok bihar, zapatua, Torresoroan 19:00etan erakutsiko duena. Sarrerak hiru eurotan eskura daitezke leihatilan.

**Egunerokotasunaz, drama**

Alex Tello aktorearen apustu pertsonala da. Eskarmentua du taularen gainean, bereziki haurrentzako egin du lan orain artean; adibidez, Pirritx, Porrotx eta Marimotos pailazoen hainbat ikuskizunetan jarduten du, gaur egun *Goenkale*-ko telesailean ere ari bada ere. *Zu gabe* lanarekin, baina, taularen atzeko aldera egin du salto, orain urte batzuk idatzitako antzerkiaren gidoia zuzenduta.

Anabel Arraiza eta Inazio Tolosa aktoreak dira Telloren istorioa kontatzen dutenak, urte askoren ostean berriz ere elkartuko diren bi pertsonaren azalean sartuta. "Istorio gordina da, une batzuetan irribarrea aterako dizun arren; ez dizut esango, baina, negarrik ez duzunik egingo. Gertuko kontakizuna da, ikusleak samur identifikatzen diren horietakoa", azaldu du Anabel Arraizak.



Inazio Tolosa eta Anabel Arraiza, *Zu gabe* antzezten. | ATEA TEATROA

Zumetaren margolanekin apaindutako eszenografia xumearekin eta Mikel Laboaren musikarekin lagunduta, hiru zatitan banatutako kontakizuna dela dio: "Hogei urteren ostean elkartzen diren unea da lehenengoa; bigarrenean, berriz, denboran atzera egin eta bi pertsonaiak elkarrekin zeuden garaiak ekarriko ditut gogora bakarrizketa formatuan; eta hirugarren zatian, korapiloa askatuko dugu, orduan jakingo dute ikusleek, adibidez, nortzuk diren bi pertsonaiak".

ESANAK

**"Oinarrian, istorio gordina da, gertuko kontakizuna da; ikuslea samur identifikatzen den horietakoa"**

ANABEL ARRAIZA | AKTOREA

**Labetik atera berri**

Martxoaren 14an estreinatu zuten Lasarte-Orian eta hirugarren emanaldia da bihar Antzuolan egingo dutena: "Aurreko bi emanaldietan harrera ona jaso dugu; orokorrean, ikuslea harrapatu duela sumatu dugu. Antzezlanean kontatzen dena bere egin du ikusleak. Ikusi duten batzuek berriz ikusi nahi dutela esan digute, beraz, oso gustura gaude", dio Alex Tello zuzendariak.

**Ikerne Urzelai** | Futbol entrenatzailea

# "Oso giro polita daukagu taldean eta igartzen da neskek gustura jokatzen dutela futbolean"

MIRARI ALTUBE | OÑATI

Ikerne Urzelaik (Oñati, 1990) entrenatzen ditu Arizmendi kirol elkartean futbolean jarduten duten nesken ohorezko kadeteak, Haritz Elortzarekin batera. Lehenengo urtea du entrenatzaile lanetan, eta gustura dago egiten dabiltzan denboraldiarekin. Igerilaria izandakoa da urte askoan eta igerian dabiltzan umeak ere entrenatzen ditu Aretxabaletan.

**Zelan doa futbol denboraldia?**

Nahiko ondo. Etxeko partidu gehienak irabazi egin ditugu; izan ere, hareazko futbol-zelaia dugu eta horrek gure alde egiten du. Eta kanpoko partiduetan ahal duguna egiten dugu. Orokorrean, ondo gabiltzala esango nuke.

**Kadeteen ohorezko mailan aurten arte ez da talderik izan Arizmendin.**

Hori da, taldea iaz igo zen mailaz eta lehenengoz iritsi da Ohorezko Mailara.

**Eta zeure lehenengo urtea da entrenatzaile lanetan, ala?**

Bai, hori da. Neu ere taldearekin batera ikasten nabil.

**Aretxabaletan eta Eskoriatzan nesken hiru talde bakarrik daude futbolean. Mutil gehienak futbolean jokatu guran, eta zergatik horren neska gutxi?**

Ez dakit. Nik uste dut Debagoienean orokorrean daudela neska gutxi futbolean, Mondran ere larri ibili dira-eta. Arizmendin kostata lortu dugu infantilen taldea osatzea eta gurean ere oso justu gabiltza kopuruari dagokionez. Ea datozen urteetan gehiago animatzen diren eta talde mardulak osatu.

**Taldea Almen ikastetxean entrenatzen da, eta jokatu ere bai, hareazko futbol-zelaian; halako asko ez dira, ba, egongo...**

Nik uste dut bakarrenetakoa dela. Aldeko zer duen? Guk ondo ezagutzen dugula eta kanpotik datozenei baloia mugitzea gehiago kostatzen zaiela. Kontra, ostera, kanpora goazenean belar artifizialean jokatzen dugula, eta orduan geuri kostatzen zaigu baloia kontrolatzea, bote handiagoa ematen du eta.

**Zelakoa da nerabezaroan dauden gaztetxoekin jardutea?**

Ondo moldatzen naiz, behin konfiantza hartuta. Baten batekin serio jartzen banaiz, segituan babesten du taldeak hura, eta elkar defendatzen dute, baina hori ona da. Ni oso gustura nago taldearekin, giro polita daukagu eta igartzen da gustura dabiltzala futbolean.

**Igeriketan dabiltzan umeak ere entrenatzen dituzu.**

Bai, eskola kirolean, igerian egiten duten Aretxabaletako bi talderen ardura daukat; batean 10 urte artekoak daude eta bestean 11 urtetik gorakoak.

**Eta haiekin, zelan?**

Ondo. Asko aurreratu dutela igartzen dut, eta gogotsu dabiltza. Pentsa, batzuek esan izan didate zergatik ditugun horren entrenamendu gutxi astean... Gustura dauden seinale!

**Eta zu zeu kirolaria zara?**

Hamabost urte egin ditut igeriketan eta gero pare bat futbolean. Orain, ikasketekin, ez daukat denbora luzerik, baina bai, gustuko dut.

**Emakumeek, kirolean, oraindik asko dutela lortzeko uste duzu?**

Bai, zalantza barik. Kirol guztietan daude benetan onak diren emakumeak, eta hori onartu egin beharko litzateke. Mutilen kirola bai, baina neskena ere hor dago.

**Etorkizunean non ikusten duzu zeure burua?**

Ez dakit, ba... Kirola gustuko dut, baina ikasten nabilena, administrazioa eta zuzendaritza, ere bai; hortaz, ikusi egin behar...

**Arrasateko Azoka Plazan dagoen postu batean ere egoten zara...**

Bai, laguntzen egoten naiz. Goizak libre ditut, eta ahal dudan bitartean...

**Oñati eta Leintz bailara artean bizi zara, orduan.**

Bai, hara eta hona bueltaka ibiltzen naiz. Orain autobus zerbitzu berria jarri digute, eskerrak!

**Eta bidegorria erabilita bizikletarekin etortzera ez zara animatzen?**

Iaz hasi nintzen, baina jausi eta ukondoa apurtu nuen. Hortaz, oraingoz, garajean dago bizikleta; hala ere, eguraldi onarekin berriro hartuko dut.

**MARRA AZKARREZ**

**Kirolari bat:** Mireia Belmonte igerilaria.

**Kirol gustukoena:** Igeriketa, urte asko eman dizkiot-eta.

**Bizi izateko toki gustukoena:** Oñati.

**Amets bat:** Zoriontsu izatea bizitza osoan, orain arte bezalaxe.

**Musika talde gustukoena:** Berri Txarrak.

**Bidaia gustukoena:** Ameriketara, New York aldera.

**Film gustukoena:** *Grease*, oso oroitzapen politak ditut.




**Ikerne Urzelai entrenatzailea Almenen, futbol-zelaian.**

MIRARI ALTUBE

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Arraga auzoan baserria salgai, lursailarekin. 615 71 02 07 edo 615 70 59 96

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Guztiz berritua. Erabat jantzia. Berokuntzarekin. Erdigunean, udaletxetik gertu. 685 04 20 10 edo 649 56 34 92

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan. Jantzita eta berokuntzarekin. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 615 70 68 31

### 104. ERRENTAN HARTU

**Baserri bila Debagoienean.** Bikote arrasatearra Debagoienean edo inguruan errentan hartzeko baserri bila dabil. Interesatuak deitu ezazue telefono hauetara: 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

**Debagoiena.** Bergaran edo inguruan etxebizitza bila nabil. Neska arduratsua naiz eta bi logela edo gehiagoko etxebizitza beharko nuke. 631 68 12 18

**Oñati.** Bikote batek etxebizitza edo estudioa hartuko luke errentan, prezio onean, herrian bertan edo Zubillagan. 666 20 06 03

**Oñati.** Oñatiko bi gazte errentan hartzeko etxebizitza bila gabiltza. 617 51 33 92 edo 670 56 62 51

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Mutilak logela hartuko luke errentan. Bertako mutilekin bada, hobeto. 695 73 87 95

**Arrasate.** Neska, konpartitzeko etxebizitza edota errentan hartzeko logela bila. Bertako jendearekin bada, hobeto. Telefonoa: 695 73 87 95

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** 15 metro koadroko garaje itxia salgai Ozaetan. Prezio negoziagarria. 655 72 63 13

### 202. EROSI

**Antzuola.** Garajea erosiko genuke Buztinzurin, Sagastin edo Ondarren. 616 22 03 63 edo 943 76 66 23

**Garajea erosi Bergaran.** Bergarako erdigunean, egoera onean dagoen garajea erosiko genuke, eskola elementala, Zurradero edota Ertzantzaren egoitza bitartean . 628 72 25 03

## 3. LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Lokal bila Arrasaten.** Lehenengo batxilergoko 17 urteko neska talde arduratsu bat gara eta lokal bila gabiltza Arrasaten. 16 pertsona inguru garenez, lokalak ez du zertan oso handia izan, eta diruari dagokionez, merkea izan dadila komenizaigu, gutxi gora behera 200 euro hilero. 688 80 24 40 edo 659 00 10 88

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate**
Zerbitzaria behar da barrarako.
Esperientzia eta euskara baloratuko dira.
Tel.: 677 52 48 34
(Maribel)

**Antzuola.** Esperientzia duen emakume euskaldun bat behar dugu, bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko, ahal bada Antzuola, Bergara edo gertukoa. 606 27 87 47

**Arrasate.** Gizon jator eta euskalduna behar da, etxean bertan bizi izaten, pertsona adindun bat zaintzeko domeka arratsaldetik egubakoitz goizera arte. 619 18 12 81 edo 676 64 10 22

### 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Bergara.** Emakume arduratsua eta esperientziaduna nagusiak zaintzeko gertu, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Garbitasun lanak ere egingo nituzke. Dokumentuak egunean ditut. 662 06 18 09

**Arrasate eta Aretxabaleta.** Neska nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko gertu. Gauez, asteburuetan edo orduka. Zaintza lanetan eskarmentua dut. 618 14 71 34

**Arrasate.** 28 urteko neska arduratsua, euskalduna, umeak zaintzeko eta etxerako lanetan laguntzeko gertu. Telefonoa: 688 63 86 31

**Arrasate.** Bertako emakume arduratsua, eskarmentuduna, gertu etxe, atari, taberna eta abarrak garbitzeko eta umeak zaintzeko. 657 71 41 68

**Arrasate.** Garbiketa lanak egingo nituzke orduka, arratsaldetan. Etxean bertan bizi izaten ere lan egingo nuke. 622 05 30 57

**Arrasate.** Garbiketak eta lisatze lanak egingo nituzke, orduka. 632 23 46 19

**Arrasate.** Neska gertu astean zehar lan egiteko. Eskarmentua dut tabernan, barran zein jangelan. Garbiketak ere egingo nituzke. 616 09 37 90

**Bergara edo Arrasate.** Haur Hezkuntza ikasi eta lan eskarmentua duen neska gazte euskalduna, umeak zaintzeko eskaintzen da. Zerbitzari eta garbitzaile moduan ere esperientzia luzea duenez, lan egiteko gertu dago. Lan egiteko gogoz. Mesedez interesatuok deitu zenbaki honetara. Mila esker. 681 14 95 54

**Bergara.** Emakume arduratsua, formazio eta esperientziarekin, umeak zaintzeko eskaintzen da. Euskaraz naiz gazteleraz mintzatzeko trebea eta Haur Hezkuntzako ikasketak dituena. 684 14 95 54 edo 943 75 00 76

**Bergara.** Emakume eskarmentuduna arratsaldez etxeko garbiketa zein lanak egiteko prest. 635 70 69 97

**Bergara.** Neska euskalduna arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara:. 618 43 60 35

**Debagoiena.** 32 urteko neska nagusiak zaindu, etxeko lanak eta garbiketak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Arduratsua eta maitagarria naiz. 633 74 49 54

**Debagoiena.** Animalien zaintzan esperientzia duen mutilak baserrietan lana egingo luke. 676 04 93 26 edo 631 36 17 62

**Debagoiena.** Esperientzia handidun erizain laguntzailea lan bila. 696 70 55 09

**Debagoiena.** Denetariko garbiketak egiten, ume zein nagusiak zaintzen edo sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. 691 28 53 25

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu egunez, etxean bertan bizi izanda edota orduka lan egiteko. Nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta garbiketa lanak egingo nituzke. Lege dokumentuak eguneratuta dauzkat. 662 06 18 09

**Debagoiena.** Emakume euskalduna lanerako gertu. 606 50 25 67

**Debagoiena.** Emakumea etxeko garbitasun lanak eta atari eta abarren garbiketak egiteko gertu. 632 77 35 38

**Debagoiena.** Eskarmentudun mutila jatetxeko sukaldean edo tabernatan lan egiteko gertu. Interesatuak deitu telefono honetara: 676 04 93 26 edo 631 36 17 62

**Debagoiena.** Eskarmentudun neska lanerako gertu: garbiketak, tabernako sukaldean, nagusi eta umeak zaintzen eta abar. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita baserrietan ere. Gidabaimena eta autoa dauzkat. 697 20 00 86

**Debagoiena.** Estetika arloan lan egingo nuke. Ikasketak eta eskarmentua ditut. Telefonoa: 663 58 78 64

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan. 610 99 42 03

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. 697 86 49 00

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin eta ume zein nagusiak zaintzeko gertu nago. Geriatria eta erizaintza ikasketak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 678 84 37 86

**Debagoiena.** Garbiketan eta ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo egun osoz. 663 58 78 64

**Debagoiena.** Klinika laguntzaile eta gizarte integrazio titulua daukat eta pertsona nagusiak edo ezintasunen bat dutenak zainduko nituzke. Euren beharren araberako atentzioa: pasioak egin, elikadura zaindu. . 697 47 61 55

**Debagoiena.** Mutila arduratsua eskaintzen da garbitasun lanetarako eta baita nagusiak zaintzeko ere. Esperientzia handikoa nagusien zainketan. Dokumentuak eguneratuta ditut. 658 74 94 63

**Debagoiena.** Mutila gertu lantegian jarduteko. Eskarmentua dut. 602 46 01 57

**Debagoiena.** Mutila gertu sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen edo obratan peoi aritzeko. 691 72 67 38

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Eraikuntzan, gidari, sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen eta abar. Autoan garraio lanak ere bai. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Garbiketan eta hoteletan lan egindakoa naiz eta soldatze zein jaso-makinak gidatzeko ikasketak ditut. Biltegian ere aritutakoa naiz. Autoa daukat. 662 26 07 09

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzen, garbiketak egiten edota sukalde laguntzaile jardungo nuke. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta garbiketak egingo nituzke. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 686 44 70 38

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 631 90 31 94

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago orduka edo baita etxean bertan bizi izaten ere. 631 59 67 91

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu. Erizaintza eta geriatria tituluak dauzkat. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 689 95 12 83

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, nahiago etxean bertan bizi izaten bada. Elektrikari, iturgintzan edota sukaldean badakit. 632 08 57 69

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, sukalde laguntzaile, garbiketan egiten eta okindegian lan egindako neska lan bila. 634 03 91 58

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta esperientziaduna lanerako gertu. Umeak zaindu, orduka garbiketak egin edota nagusiekin egon eta paseoan ateratzeko laguntzen. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda. 631 43 61 71

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda. 609 18 87 32

**Debagoiena.** Neska arduratsua sukaldaritza eta geriatria ikasketak dituena, lan bila dabil. Nagusiak zaindu, zerbitzari lanak egin eta abar. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu, etxeetan gaixoak zaintzeko edo ospitalean. Geriatriako tituluduna. Autoa daukat. Eskarmentu handia. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 600 00 51 60

**Debagoiena.** Sukaldari laguntzaile, garbitasun lanetan edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ostalaritza eta hoteletan lan egindakoa naiz bai garbiketan eta baita sukaldean laguntzen ere. Autoa daukat. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 636 11 23 40

**Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate.** Emakumea gertu astelehenetik ostiralera edo aste bukaeratan lan egiteko nagusiak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Etxean bertan geratzeko ere gertu edo orduka lan egin. 631 13 20 48

**Haurrak zaindu Bergaran.** Haur Hezkuntza ikasten dabilen 24 urteko neska euskalduna, haurrak arratsaldez zaintzeko prest. Esperientzia handiarekin. 680 17 33 61

**Ile-apaintzailea.** Esperientziadun ile-apaintzaile eta estetizista lanerako gertu. 605 72 64 43

**Sukaldaria.** Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitartekoak eta abar egiten urtetan aritutakoa. 666 83 21 95

## 6. MOTORRA

### 602. EROSI

**Autokarabana.** Bigarren eskuko autokarabana erosiko nuke. 655 73 74 94

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Soinua.** 'Delicia' etxeko soinu handia saltzen dut. Berri-berri dago. 652 72 01 15

**Taxi lizentzia Antzuolan.** Erretiroa hartzeagatik, taxi lizentzia osoa, auto eta guzti, eskualdatzen da Antzuolan. 669 15 65 40 edo 636 01 91 01

### 802. EROSI

**Tintinen komikiak.** Tintinen euskarazko komikiak erosiko nituzke. 688 80 34 49 (Jon)

### 806. GALDU

**Betaurrekoak Udalatxen.** Udalatx inguruan eguzkitako betaurrekoak galdu nituen. Norbaitek aurkitu baditu deitu mesedez. 619 08 84 65

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Matxiategi 80 m², 3 logela. Berriztuta. Terrazarekin. 200.000 €
- Madura 57 m², 2 logela. Oso egoera onean. Prezio jeitsiera. 110.000 €
- Bolun 135 m²ko Elkartea salgai. Ekipatua. 123.600 €.
- Angiozarren Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta martxan.
- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000 €
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garaje aeta trastelekuarekin. 150.000 €
- Espoloia 95 m², 3 logela. Garajea eta trastelekuarekin.
- Irizar pasealekua. 3 logela, igogailuarekin. 200.000 €
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 132.600 €
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m2ko terrazarekin. 107.100 €
- Ibargarai 73 m², 3 logela. 235.000 €
- Zubieta 110 m², 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m2ko terrazarekin. 115.000 €
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €
- Angiozar 170 m², duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m2ko lur sailarekin.
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 150.000 €
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, erabat berriztua. Igogailua eta terraza haundiarekin. 204.344 €
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 85.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berriztua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000 €
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €
- Buztin Zuri. Oso aukera ona.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90m² lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

**NEGOZIO PROPIOA**
(autoenplegua)
- 12.000 euroko inbertsioa.
- Ez da esperientziarik behar. Beste lan batekin osagarria.
- Ez du lokalik behar; zentro garrantzitsuetan instalazio-hitzarmenak dauzkagu.
- Hileko, 2.500 euro inguruko irabaziak.

**Negozioa muntatu eta aholkularitza eskainiko dizugu.**

Tel.: **660 05 79 64**

**Mapfrek KOMERTZIALA behar du Oñatiko ordezkaritzan aseguruen salmenta eta kudeaketarako.**

**Eskatzen da:**
- 20 eta 30 urte bitarteko gaztea. Oñatikoa.
- Unibertsitateko, Lanbide Heziketako edota Marketin Komertzial ikasketaduna.
- Arlo komertzialean esperientzia baloratuko da.
- Harremanetarako gaitasuna

**Eskaintzen da:**
- Egun osoko jarduna
- Soldata finkoa + pizgarriak

**Interesatuok bidali curriculuma apirilaren 10a baino lehen:**
- Garibai 16, behea. 20500 Arrasate
- *aestens@mapfre.com*

MAPFRE

## ZORION AGURRAK



BERGARA
**Enaitz Zangitu Iturricastillo**
Apirilaren 6an, 5 urte. Zorionak, txapeldun, Iraiaren, Suaren, aitatxoren eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
**Izaro Armendariz Urrutia**
Martxoaren 30ean, 8 urte.
Zorionak Izaro! Ondo-ondo pasa zure urtebetetzean eta muxu erraldoiak, etxeko guztion partetik.



ANTZUOLA
**Inar Cabo Mundiñano**
Apirilaren 5ean, 9 urte. Zorionak, mutiko handi! Jada 9 urte! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta bazkari goxoa prestatu ospatzeko! Muxu handi bat Ekhiren, aitatxoren eta amatxoren partetik.



BERGARA
**Enara Martin Unamuno**
Apirilaren 4an, 3 urte. Zorionak, Enara. Muxu potolo bat etxekoen partetik!



ARRASATE
**Ametz Arregi Mendizabal**
Apirilaren 1ean, 5 urte. Zure eguna laster, Ametz. Oso ondo pasatu eta zorionak!



ARRASATE
**Lia eta Maike Axpe**
Martxoaren 31n, 9 urte. Zorionak, bikote! Familiako guztiek muxu potolo bat bidaltzen dizuegu.



ARRASATE
**Nora Bujanda**
Martxoaren 31n, 7 urte. Patxo handi bat familiakoen partetik.



BERGARA
**June Contreras**
Martxoaren 30ean, 5 urte. Zorionak, printzesa! Gure egunak zure alaitasunarekin betetzeagatik mila patxo. Maite zaitugu. Elene, aitatxo eta amatxo.



BERGARA
**Naia Murgiondo Kortabarria**
Martxoaren 30ean, 6 urte. Zorionak, Naia! Sei belarri-tiraka jada! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat, bereziki, Alazneren partetik.



URRETXU
**Markel Zabaleta**
Martxoaren 29an, 7 urte. Zorionak, Markel. Belarritik zazpi tirakada maitasunez tioren, tiaren, Edurneren eta, bereziki, zure arreba Itziarren partetik.



ARETXABALETA
**Alejandro Correa Osorio**
Martxoaren 29an, 3 urte. Jainkoak zaindu eta beti bedeika zaitzala, seme. Egunez egun, gehiago maite zaitugu. Batez ere nik, zure amak. Zorionak, nire printze!



BERGARA
**Oihan Zamakola Agirrezabal**
Martxoaren 28an, 4 urte. Zorionak, Oihan! Muxu handi-handi bat etxeko guztion eta, bereziki, Enekoren eta Mirenen partetik.



OÑATI
**Aimar Elorza San Miguel**
Martxoaren 28an, 7 urte. Zorionak, Aimar! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu potolo bat etxeko danan partetik.



ESKORIATZA
**Joseba Herrera Gallego**
Martxoaren 28an, 17 urte. Zorionak, Joseba, aitaren, amaren, arreba Ainhoaren eta familia guztiaren partetik. Egun ona pasa dezazula. Muxu handi bat!



ARRASATE
**Irati Hernandez Iturbe**
Martxoaren 27an, 10 urte. Zorionak, maittia, eta urte askotarako. Ongi pasatu zure eguna. Patxo potolo bat etxeko guztien partetik.



OÑATI
**Auritz Esnaola Osinaga**
Martxoaren 27an, 8 urte. Zorionak, artista! Primeran pasatu zure eguna eta indartsu ein putz kandelei, oraingoan zortzi dira-eta! Patxo pila bat danon partetik!



OÑATI
**Luka Vaz Olabe**
Martxoaren 27an, urtebete. Zorionak, Luka! Irribar horrekin jarrai dezazula. Muxu handi bat familiakoen aldetik; bereziki, osaba Igorren eta izeba Oihanaren partetik.



BERGARA
**Iraia Zangitu Iturricastillo**
Martxoaren 27an, 11 urte. Zorionak eta oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat.



ARRASATE
**Garazi Arregi Mendizabal**
Martxoaren 26an, 7 urte. Garazi, neska handi, zorionak denon partetik!



ARETXABALETA
**Ager Lanzos Erostarbe**
Martxoaren 26an, 11 urte. Zorionak, Ager! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta muxu handi bat familia osoaren partetik.



BERGARA
**Ion Aranburu Urrestarazu**
Martxoaren 25ean, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta bazkai gozua gertatu zapatuan, eh! Muxu potoluak Oñati aldetik, batez be Lideren eta Xabaten partetik; baitta Bergarako danon partetik be!



OÑATI
**Nagore Ugarte Kortabarria**
Martxoaren 24an, 5 urte. Zorionak, Nagore, eta ondo pasatu egun berezi hau, familixako danon partetik.



BERGARA
**Jon Larrañaga Altuna**
Martxoaren 24an. Txoriek eta usoek, egunon! Katuak eta txakurrek, berriz, hor dator Jon! Familiak eta laguntxoek, lehen zorion! Den-denek opa dizugu, beste urte on!



ESKORIATZA
**Paule Otxandategi**
Martxoaren 22an, urtebete. Zorionak, Paule! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetze eguna! Patxo handi bat etxeko danon eta, batez be, Martxelen eta Aneren partetik!



ARETXABALETA
**Ainhize Sanchez Navarro**
Martxoaren 22an, 8 urte. Zorionak familia guztiaren partetik!



ARETXABALETA
**Maddi Amozarrain Olabarria**
Martxoaren 21ean, 3 urte. Zorionak, Maddi! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo potolo bat etxeko danon partetik!



OÑATI
**Juan Arkauz, Joseba Zelaia eta Alaitz Isasti**
Juanitok martxoaren 20an, eta Josebak eta Alaitzek 17an. Zorionak aittatta Juanito, tio Joseba eta Alaitz. Egun ederra pasatu geben aurrekuan. Segi horrela eta urte askotarako. Asko maite zaituztegu.



LEINTZ GATZAGA
**Garazi Orobengoa**
Martxoaren 18an, 25 urte. Zorionak, Garazi! Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi-handi bat Moroñotarren partetik!



ELGETA
**Paule Leanizbarrutia Totorikaguena**
Martxoaren 17an, 6 urte. Zorionak, poxpolin! Ondo pasatu zure eguna. Muxu potolo pilo bat danon partetik.



ARETXABALETA
**Iker Seijo Fernandez**
Martxoaren 16an, 11 urte. Zorionak, iker! Familia osoaren partetik muxu handi bat. Asko maite zaitugu.



ARRASATE
**Leire Moreno Barrigon**
Martxoaren 16an, 16 urte. Zorionak eta patxo handi bat familia guztiaren partetik.



BERGARA
**Noa Lezeta Iturralde**
Martxoaren 14an, 6 urte. Zorionak, printzesa. Dagoeneko sei urte beteta. Belarritatik tirakadak etxeko guztien partetik. Aiur, Maren, aitatxo eta amatxo. Asko maite zaitugu!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.
**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## ASTEA GOIENAN


JULEN IRIONDO

### Debagoienean Korrikak utzitakoa

Astelehenean, hilak 23, igaro zen Korrika Debagoieneko herrietatik, eta lekuko aldaketa guztiak ikusi ahal izango dira saioan. Korrika egin zuten partaideei egindako elkarrizketak ere entzun ahal izango dira gaur, egubakoitza, eskainiko dute saio berezian.
**'Korrika Debagoienean'**
Egubakoitza, 22:00


OIHANE ISASI

### Xabi Igoa bertsolaria 'Galdegazte' saioan

Arabako Bertsolari Txapelketa jokatu berritan, Aramaioko Xabi Igoa bertsolaria elkarrizketatuko dute *Galdegazte* saioan Arrasateko Gaztelupeko hiru ikaslek, Miren Arregi aurkezlearen gidaritzapean. Igoa gertutik ezagutzeko aukera izango da.
**'Galdegazte'**
Eguaztena, 22:00

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 27**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Galdegazte
**13:00** Sasoi betean
**13:30** Aizank!
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Aizank!
**17:30** Idemtitateak
**17:55** Ur eta lur
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Galdegazte
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Korrika Debagoienean
**23:00** Debagoiena zuzenean
**23:30** Berriak
**00:00** Ahotsenea

**ZAPATUA, 28**

**10:00** Amaia DJ
**10:30** Idemtitateak
**11:00** Debagoiena zuzenean
**11:55** Astea iruditan
**12:00** Harira
**12:30** Galdegazte
**13:00** Osoko bilkura: Oñati
**14:00** Amaia DJ
**14:30** Harira
**15:00** Debagoiena zuzenean
**16:00** Astea iruditan
**16:00** Ahotsenea
**16:30** Korrika Debagoienean
**17:30** Amaia DJ
**17:55** Zorion Agurrak
**18:00** Galdegazte
**18:30** Idemtitateak
**19:00** Osoko bilkura: Oñati
**20:00** Astea iruditan
**20:00** Harira
**20:30** Amaia DJ
**21:00** Ahotsenea
**21:30** Galdegazte
**22:00** Debagoiena zuzenean
**23:00** Astea iruditan
**23:00** Korrika Debagoienean
**00:00** Ahotsenea
**00:30** Debagoiena zuzenean
**01:00** Berriak

**DOMEKA, 29**

**10:00** Debagoiena zuzenean
**10:25** Astea iruditan
**10:30** Korrika Debagoienean
**11:30** Sagarrondotik
**13:15** Debagoiena zuzenean
**13:55** Astea iruditan
**14:00** Harira
**14:25** Zorion Agurrak
**14:30** Korrika Debagoienean
**15:30** Zorion Agurrak
**15:30** Galdegazte
**16:00** Amaia DJ
**16:30** Debagoiena zuzenean
**17:25** Astea iruditan
**17:30** Sagarrondotik
**18:30** Harira
**19:00** Korrika Debagoienean
**20:00** Galdegazte
**20:30** Debagoiena zuzenean
**21:25** Astea iruditan
**21:30** Osoko bilkura: Oñati
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:30** Astea iruditan
**00:30** Amaia DJ

**ASTELEHENA, 30**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**13:00** Onein
**13:30** Debagoiena zuzenean
**13:30** Zorion Agurrak
**14:30** Berriak
**15:00** Osoko bilkura: Oñati
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ikusi irratia
**18:00** Sasoi betean
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Harira
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harmailatik
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Ahotsenea
**00:00** Ahotsenea
**00:30** Harira
**01:00** Galdegazte

**MARTITZENA, 31**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harmailatik
**13:00** Korrika Debagoienean
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harmailatik
**15:30** Onein
**15:55** Zorion Agurrak
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Idemtitateak
**17:30** Aizank!
**18:00** Amaia DJ
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Galdegazte
**19:30** Harmailatik
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harira
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harmailatik
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

**EGUAZTENA, 1**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harira
**13:00** Idemtitateak
**13:30** Sasoi betean
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harira
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Sagarrondotik
**18:00** Sasoi betean
**18:30** Berriak
**18:55** Zorion Agurrak
**19:00** Amaia DJ
**19:30** Harira
**19:55** Zorion Agurrak
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Galdegazte
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harira
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

**EGUENA, 2**

**10:00** Amaia DJ
**10:30** Idemtitateak
**11:00** Debagoiena zuzenean
**12:00** Harira
**12:30** Galdegazte
**13:00** Onein
**13:30** Aizank!
**14:00** Amaia DJ
**14:30** Harira
**15:00** Debagoiena zuzenean
**16:00** Ahotsenea
**16:30** Korrika Debagoienean
**17:30** Amaia DJ
**17:55** Zorion Agurrak
**18:00** Galdegazte
**18:30** Idemtitateak
**19:00** Debagoiena zuzenean
**20:00** Harira
**20:30** Amaia DJ
**21:00** Ahotsenea
**21:30** Galdegazte
**22:00** Debagoiena zuzenean
**23:00** Astea iruditan
**23:00** Korrika Debagoienean
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### Asteko gainbegiratua zapatu eta domekan 10:00etan

Asteburuan, asteko elkarrizketen gainbegiratua eskainiko dute 107.7an, 10:00etan. Besteak beste, Ford Mugarriko entrenatzaile Pablo Gartziari egindako elkarrizketa eta Bixente Barandiaran Arrasateko errementari zenaren gaineko erakusketa izango dira berbeta gai.

### Gaurko irratsaioaren ostean, apirilaren 13an itzuliko da saioa

*Igo autobusera!* irratsaioa gaur, egubakoitza, 10:00etan entzun ahal izango da Arrasate Irratian. Gero, Aste Santua eta Pazko astea dela-eta, atseden hartuko du irratsaioak apirilaren 13ra bitartean. Hala ere, ondorengo egunetan musika entzun ahal izango da irratian 24 orduetan.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 27** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea 1 | 943 79 15 15 |
| **Zapatua, 28** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **Domeka, 29** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea 1 | 943 79 22 26 |
| **Astelehena, 30** | IRIZAR | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| **Martitzena, 31** | AMEZUA | Sta. Marina 32 | 943 79 09 74 |
| **Eguaztena, 1** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Eguena, 2** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 27** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| **Zapatua, 28** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Domeka, 29** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Astelehena, 30** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Martitzena, 31** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Eguaztena, 1** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Eguena, 2** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 27** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Zapatua, 28** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Domeka, 29** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Astelehena, 30** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Martitzena, 31** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Eguaztena, 1** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Eguena, 2** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |

**Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA



Max. 14º
Min. 8º

**ZAPATUA, 28**
Tenperaturak epeltzeko joerari eutsiko dio zapatuan eta ez da euria egiteko arrisku handirik egongo. Lainotuta egongo da.



Max. 14º
Min. 8º

**DOMEKA, 29**
Laino ugari izango dira egunean zehar; hala ere, tarteka ostarteak zabalduko dira domekan. Tenperatura mantendu egingo da.

### EUSKAL HERRIA



Hegoaldean eguzkia egongo den arren, Ebro bailara lainotuta egongo da asteburuan.

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



### Ugaitz eta Nerea

Ugaitz eta Nerea martxoaren 27an ezkonduko dira Arantzazun. "Ondo pasatu eztei-bidaian eta oso zoriontsu izan, bikote! Lagunen partetik".



### Oier eta Ane

"Bergaran, martxoaren 21a, ahaztuko ez dugun eguna! Primeran pasatu genuen, bikote! Eta Lasako bazkaria ederra! Izan zaitezte zoriontsu beti! Muxu potolo bat, familia osoaren partetik!".

ESKER ONA

## Angel Bengoa Azkargorta



Oñatin hil zen 2015eko martxoaren 16an, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

—

*Boga-boga ta ixil-ixilik*
*Mendi hegaletan gora*
*Bazoaz nahiz ta gurago izan*
*Ez bazina joan inora*

*Zure oroitzapena beti jator*
*Ta umoretsu izango da*
*Zoragarria izan da zurekin*
*Pasatu dugun denbora*

**Zure familixia**
**Oñatin, 2015eko martxoaren 27an.**

ESKER ONA

## Euxebi Lizaur Larrañaga



Oñatin hil zen 2015eko martxoaren 18an, 95 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

—

Ondra-meza zapatuan izango da, martxoaren 28an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

**Oñatin, 2015eko martxoaren 27an.**

ESKER ONA

## M. Jesus Cortabarria Leceta



Oñatin hil zen 2015eko martxoaren 21ean, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

—

Aldi berean jakinarazten dizuegu bihar, zapatua, 19:30ean, agustindarren elizan haren aldeko ondra-meza ospatuko dugula.
Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

**Oñatin, 2015eko martxoaren 27an.**

ESKER ONA

## Juan Manuel Iturralde Aldekoa

'Juanito'



Bergaran hil zen 2015eko martxoaren 22an.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Bergaran, 2015eko martxoaren 27an.**

OROIGARRIA

## Isabel Guridi Biain

Luis Ezeizako irakasle ohia



Eskoriatzan hil zen martxoaren 18an.

*Sagarrondoak loratzen direnean gogoratuko zaitugu.*

**Luis Ezeizako irakasle, ikasle eta gurasoak.**
**Eskoriatzan, 2015eko martxoaren 27an.**

OROIGARRIA

## Isabel Guridi Biain



*hil*
*ez da deus hiltzen*
*labanean doa eguzkia*
*ez da hiltzen eguna iragan baino*
*zimeldu arren liliak*
*zu gorpu zaren arren*

*zu gorpu zaren arren*
*zimeldu arren liliak*
*ez da hiltzen eguna iragan baino*
*labanean doa eguzkia*
*ez da deus hiltzen*
*hil*

**Ibarraundiko langileak.**
**Eskoriatzan, 2015eko martxoaren 27an.**

URTEURRENA

## Aitor Guridi Iriarte



Arrasaten hil zen, 2013ko martxoaren 27an, 56 urte zituela.

*Maite zaitugu.*

**Etxekoak.**
**Arrasaten, 2015eko martxoaren 27an.**

URTEURRENA

## Ane Miren Yarza Barcena



Arrasaten hil zen 2013ko apirilaren 1ean.

*Zure maitasunak, alaitasunak, bizitzeko gogo eta indarrak hauspotzen du gure bihotzeko garra.*

**Etxekoak.**
**Arrasaten, 2015eko martxoaren 27an.**

URTEURRENA

## Jose Luis Elgero Urzelai



Bergaran hil zen 2014ko apirilaren 6an, 68 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza apirilaren 12an, domeka, izango da, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2015eko martxoaren 27an.**

## HILDAKOAK

**Romualdo Pascual Frutos.** Arrasaten, martxoaren 11n. 73 urte.
**Miren Arantzazu Gartzia Etxabe Etxebarria.** Arrasaten, martxoaren 11n. 82 urte.
**Migel Victor San Sebastian Barandiaran.** Arrasaten, martxoaren 11n. 100 urte.
**Jesus Atorrasagasti Azkarate.** Bergaran, martxoaren 12an. 71 urte.
**Luzio Sarasketa Ojanguren.** Elgetan, martxoaren 12an. 82 urte.
**Eladio Morais Martin.** Arrasaten, martxoaren 13an. 80 urte.
**Angel Bengoa Azkargorta.** Oñatin, martxoaren 16an. 91 urte.
**M. Arantzazu Zubia Atxaga.** Eskoriatzan, martxoaren 16an. 51 urte.
**Felix Caballero Sanchez.** Arrasaten, martxoaren 17an. 67 urte.
**Isabel Guridi Biain.** Eskoriatzan, martxoaren 18an. 73 urte.
**Euxebi Lizaur Larrañaga.** Oñatin, martxoaren 18an. 95 urte.
**Migel Martinez Gartzia.** Bergaran, martxoaren 19an. 80 urte.
**Berta Osa Alberdi.** Bergaran, martxoaren 19an. 87 urte.
**Jose Luis Urrutia Zubizarreta.** Aretxabaletan, martxoaren 20an. 68 urte.
**M. Jesus Kortabarria Lezeta.** Oñatin, martxoaren 21ean. 82 urte.
**Juan Manuel Iturralde Aldekoa.** Bergaran, martxoaren 22an. 76 urte.
**Gregorio Navarro Palacios.** Arrasaten, martxoaren 23an. 93 urte.
**M. Mercedes Fernandez Cano.** Arrasaten, martxoaren 23an. 74 urte.
**Felix Aranburu Azpiazu.** Bergaran, martxoaren 23an. 96 urte.
**Julia Gomez Novoa.** Oñatin, martxoaren 24an. 73 urte.
**M. Asuncion Urizar Zilaurren.** Arrasaten, martxoaren 24an. 54 urte.
**Felix Urtzelai Arkauz.** Arrasaten, martxoaren 25ean. 85 urte.
**Jose Olea Agirregomekorta.** Arrasaten, martxoaren 25ean. 85 urte.
**Gabriela Okina Zeziaga.** Arrasaten, martxoaren 25ean. 99 urte.

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK

### Esti eta Aitor

"Zorionak, etxeko guztien partetik. Zuen egunean ondo pasatuko duzuelakoan, maletak prest eduki, bagoaz-eta!".



### Ismael eta Pepa

Ismaelek eta Pepak 50 urte beteko dituzte ezkonduta apirilaren 3an. Familia guztiarekin batera ospatuko dituzte urrezko ezteiak. "Jarraitu orain arte bezala eta ondo-ondo igaro eguna. Familia osoaren eta, bereziki, zuen lau alaben partetik!".





# NON-ZER

MARTXOA 27
APIRILA 3

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**ARRASATE Arrasate Musikal**
Aste Santu aurreko kontzertua egingo dute.
Gaur, egubakoitza, Kulturaten, 18:30ean.

**ARETXABALETA Musika eskolen topaketa**
Eskoriatzako, Arrasateko, Bergarako, Soraluzeko, Oñatiko eta Aretxabaletako ikasleek egingo dute kontzertua.
Gaur, egubakoitza, Iturrigorrin, 18:00etan.

**BERGARA IV. udaberriko jaialdia**
Herriko trikitilarien, musikarien eta artisten jaialdia Angiozarren. Jasotako dirua elizako organoa konpontzeko erabiliko dute. Sarrera, euro bat.
Gaur, egubakoitza, Angiozarren, 19:00etan.

**OÑATI Meido eta Killerkume**
Biak ala biak dira bilbotarrak eta noise-rock musika egiten dute.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 23:00etan.

**OÑATI DROP!, Bullets Of Misery eta Highkick**
Hardcore musika egiten dute hiru taldeek. Bullets Of Misery taldeak *Purificatio per agone* diskoa aurkeztuko du.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

**ANTZUOLA Dorronsoro eta Hicks**
Eneko Dorronsorok eta Lukas Hicksek osatzen dute taldea: bata trikitiarekin eta banjoarekin bestea. Sarrera, doan.
Bihar, zapatua, Aitz Garbi tabernan, 23:00etan.

**OÑATI 'Munduari bira 80 egunetan'**
Ganbarako kantu eskolako taldeen eskutik. Sarrerak, bost euro.
Etzi, domeka, Santa Anan, 19:00etan.

**BERGARA Koru parrokiala**
Azkarate-Askasua, Eslava eta Haendel konpositoreen musika abestuko dute. Sarrerekin lortutako dirua San Pedroko organoa zaharberritzeko izango da.
Etzi, domeka, San Pedro parrokian, 19:00etan.

## ERAKUSKETAK

**OÑATI Gipuzkoako zuhaitz berezia**
Foru Aldundiaren egutegirako ateratako zuhaitz berezien argazkiak ikusgai Arantzazun. Aparteko zuhaitzak dira, legez babestu beharrekoak: tamainagatik, adinagatik, historiagatik, edertasunagatik eta kokapenagatik.
Bihar arte, parketxean.

**ARRASATE Emakume artisten lanak**
*Artean. Hamaika emakume artista* da Ekin Emakume Elkarteak osatu duen erakusketa. Bihar da erakusketa ikusteko azken eguna.
Kulturaten, martxoaren 28ra arte.

**ARETXABALETA Koldo Carrillo**
Arrasatearraren argazki erakusketa ikusgai.
Arkupen, martxoaren 31ra arte.

**BERGARA Antton Arrillaga**
Pintura erakusketa.
Aroztegin, apirilaren 5era arte.

## GAZTELEKUAK

**ARRASATE Jolasak**
Mahai-jolasen eta kale-jolasen tourra egingo dute.
Bihar, zapatua, erdi guneko gazte gunean, 18:00etan.

**ARRASATE Karaokea**
Kantuan egingo dute gazteek.
Etzi, domeka, erdi guneko gazte gunean, 18:00etan.

## BERTSOLARITZA

**BERGARA Erramu Zapatuko saioa**
Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Iker Zubeldia, Uxue Alberdi eta Oihana Bartra bertsotan. Gai-jartzailea Iker Iriarte izango da. Sarrerak salgai daude *Bergara.net* atarian eta kultura etxean, zortzi eurotan.
Gaur, egubakoitza, pilotalekuan, 22:30ean.

## OSPAKIZUNAK

**BERGARA Erramu Zapatu eguna**
Askotariko ekintzak egongo dira: azoka, joaldunen eta trikitilarien kalejira, txorimalo lehiaketa, herri bazkaria eta umeendako zezentxoak, besteak beste.
Bihar, zapatua, herriko hainbat lekutan, 10:00etan.

## DANTZA

**ARRASATE Herrixa Dantzan**
Martxoko, apirileko eta maiatzeko topaketak Biteri plazan egingo dituzte.
Gaur, egubakoitza, Biterin, 20:00etan.

**ELGETA Herrixa Dantzan**
Patxi Monterok gidatutako dantzaldia, musika eta dantza tradizional ludikoekin osatua: banaka, bikoteka, taldeka...
Etzi, domeka, Espaloian, 19:00etan.

## IKUSKIZUNAK

**ARRASATE 'Tosca' opera**
Ozenki elkarteak Pucciniren opera ezaguna taularatuko du. Arizmendi Ikastolako abesbatzak ere parte hartuko du.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:30ean.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

**OÑATI 'Zohardia' bideo emanaldia**
Lander Iruinek eta Markel Andiak Herri Batasuneko kide Josu Mugurutzaren bizitzari buruzko dokumentala egin dute.
Etzi, domeka, Antixenan, 19:30ean.

## ANTZERKIA

**BERGARA 'Hora libre'**
Pello Lezertuak duela hogei urte idatzitako antzezlana. Drogak, kontzertuak eta amodio kontuak tarteko, bi gazteren arteko haserrealdian oinarritzen da. Hainbat moldaketa egin arren, testuak jatorrizko xarma mantentzen du.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 20:00etan.

**ANTZUOLA 'Zu gabe'**
Alex Tellok idatzi eta zuzendutako lana. Anabel Arraiza eta Inazio Tolosa oholtza gainean. Eszenografian Zumetaren irudiak eta Laboaren musika egongo dira. Sarrerak, hiru euro.
Bihar, zapatua, Torresoroan, 19:00etan.



# ZINEMA

**ARRASATE**

AMAIA ANTZOKIA

**La teoria del todo**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Los caballeros del zodiaco**
Domeka: 17:00.

**BERGARA**

ZABALOTEGI

**Infiltrados en la universidad**
Domeka: 19:30.

**Epic**
Domeka: 17:00.

**OÑATI**

KULTURA ETXEA

**Negociador**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Annie**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**ARETXABALETA**

ARKUPE

**El francotirador**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:30.

**Big hero 6**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**EIBAR**

COLISEO

**La teoria del todo**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Perdiendo el norte**
EZapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

COLISEO

**Focus**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Home, hogar dulce hogar**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**GASTEIZ**

FLORIDA

**Cenicienta**
Egubakoitza, astelehena eta martitzena: 17:00, 19:00, 21:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:00, 21:00.

**Pride**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 17:30, 19:45.

**Obsesion**
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 20:00.
Astelehena eta martitzena: 17:00.

**Negociador**
Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehena eta martitzena: 21:00.

**Mis hijos**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehena eta martitzena: 20.30.

**Home**
Egubakoitza: 16:40, 18:30.
Zapatua eta domeka: 12:00. 16:40, 18:30.
Astelehena eta martitzena: 18:45.

**Perdiendo el norte**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 17:00, 19:00.

**Focus**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:15, 22:30.
Astelehena eta martitzenera: 17:00, 19:00.

**El año mas violento**
Egubakoitzetik martitzenera: 17:30, 20:00.

**Samba**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehena eta martitzena: 21:00.

**El nuevo exotico Hotel Marigold**
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 19:45, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 17:15, 19:45.

**El libro de la vida**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Bob esponja: un heroe fuera del agua**
Zapatua eta domeka: 12:00.

BOULEVARD

**Focus**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:45, 20:00, 22:15.
Eguaztena: 00:30.

**Cenicienta**
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 23:40.
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:50, 19:00, 20:10, 21:20, 22:30.
Zapatua eta domeka: 15:30, 16:40.

**El nuevo exotico Hotel Marigold**
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 23.30.
Egubakoitzetik eguaztenera: 18:30, 21:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Perdiendo el norte**
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 00:40.
Egubakoitzetik eguaztenera: 18:10, 20:20, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Obsesion**
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 00:45.
Egubakoitzetik eguaztenera: 20:35, 22:40.

**Home, hogar dulce hogar**
Egubakoitzetik eguaztenera: 18:00, 20:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitza eta zapatua: 19:00.
Domeka: 17:00.

**Home, hogar dulce hogar 3D**
Egubakoitzetik eguaztenera: 18:30.

**50 sombras de Grey**
Egubakoitza eta zapatua: 21:00, 23:30.
Domeka: 19:00, 21:30.
Astelehenetik eguaztenera: 20:00, 22:30.
Eguaztena: 00:30.

**La mujer de negro: el angel de la muerte**
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 00:45.

**La conspiracion de noviembre**
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik domekara: 22:00.
Astelehenetik eguaztenera: 17:45.

**Samba**
Zapatua eta domeka: 16:15.

**El francotirador**
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 00:15.
Egubakoitzetik eguaztenera: 18:45, 21:30.

**Negociador**
Zapatua eta domeka: 16:15.
Astelehenetik eguaztenera: 18:00.

**Kingsman**
Egubakoitzetik eguaztenera: 18:15, 21:00.

Ex-machina
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 23:45.

**El libro de la vida**
Zapatua eta domeka: 16:25.

**Chappie**
Egubakoitzetik eguaztenera: 20:00, 22:30.

**Bob esponja: un heroe fuera del agua**
Egubakoitzetik domekara: 18:00.

**Annie**
Zapatua eta domeka: 15.30.

**Divergente: insurgente**
Eguaztena: 20:00, 22:30.

KRITIKA

# 'Thriller' psikodelikoa

Paul Thomas Anderson zuzendari pertsonala da. Bere istorioak eta pertsonaiak bereziak dira. *Sidney*, *Boogie Nitghs*, *Magnolia*, *Pozos de ambición* edo *The Master* horren adibide dira. Pertsonaia ugari agertzen dira adar ezberdinak dituzten istorioetan. Irudi aldetik lan erakargarriak dira, eta musikak garrantzi handia izaten du kontatzeko moduan. Haren filmek kutsu hipnotiko bat izaten dute. Film barrokoak izaten dira. Zuzendaria gehiegikerian erortzeko mugan ibiltzen da, eta, kasu batzuetan, *Puro vicio*-rekin gertatzen den bezala, marra fin hori gaindituz egiten du, ikuslea aspertu arte.

*Puro vicio*-n badaude eszena oso onak, baina, orokorrean, lortutako emaitza zuzendariaren beste film batzuetatik nahiko urrun geratzen da. Filma Thomas Pynchonen eleberri baten oinarritzen da. Istorioa 70eko hamarkadako Los Angelesen kokatzen da. Protagonista nagusia egun osoa drogen menpe dagoen detektibe pribatua da. Bere bikotekide izandako neska batek laguntza eskatzen dio, eta badakigu eleberri eta zinema beltzean zer gertatzen den: txikia dirudien egoera geroz eta handiago bihurtzen da. Istorioa oso korapilatsua da. Protagonista mozkortuta dabilen pertsona denez, suposa dezakegu filmaren izaera nahiko kaotikoa izango dela. Horrelakoa da *Puro vicio: thriller* psikodelikoa da. Gertatzen den guztia oso nahasia da. Istorioan pertsonaia pila bat agertu eta desagertzen dira. Filmak pertsonaia nagusiaren izaera kaotikoa jarraitzen du. Kontatzen dena modu egokian edo erakargarrian azalduta badago, ikusleak bere jakin-mina bizirik manten dezake, baina, hori horrela ez bada, eta agertzen diren pertsonaia xelebreak badira eta ez badute sakontasun eta grazia handirik, oso zaila da ia bi ordu eta erdian kontatzen zaigun istorioa adi-adi jarraitzea.

**PURO VICIO** ★★☆☆☆

**Zuzendaria:** Paul Thomas Anderson.

**Herrialdea:** AEB.

**Aktoreak:** Joaquin Phoenix, Katherine Waterston, Josh Brolin.

**ANTONIO ZABALA**

## IRTEERA

**ELGETA Goizueta aldera**
Goizueta-Arriurdin (709 m)-Goizueta ibilaldia egingo dute.
Bihar, zapatua, Mendizaleen plazan, 08:00etan.

## LITERATURA

**ARAMAIO Castillo Suarez idazlea**
Solasaldia egingo dute.
Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 17:00etan.

**ELGETA Ipuinen ordua**
3 urtetik gorako umeendako euskarazko saioa.
Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:25ean.

**BERGARA Rakel Imaz**
Umeendako ipuin kontaketa.
Gaur, egubakoitza, haur liburutegian, 18:00etan.

## DEIA

**OÑATI Bisita gidatua artxibora**
Gipuzkoako artxibo historikora.
Gaur, egubakoitza, Pake Lekun, 11:00etan.

**ARRASATE Gazte Martxari buruz**
Apirilaren 3tik 5era egingo den Gazte Martxari buruzko informazioa emateko batzarra.
Gaur, egubakoitza, Irati ondoan, 20:00etan.

**OÑATI Ludoteka ibiltaria**
Jolas kooperatiboak eta logotipo lehiaketako sari banaketa.
Bihar, zapatua, Olaitturrin, 11:00etan.



GOIENA

**BERGARA Gozategiren kontzertua kartzela zaharrean**
Txorimaloen, behien, taloen eta bazkariaren ostean, Gozategi taldeak girotuko du Erramu Zapatua kartzela zaharrean. Euren ibilbideko kanturik ezagunenak joko dituzte. Horren ostean, DJ DZren txanda izango da.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

**ANTZUOLA Landatxopeko batzarra**
Urteko batzar orokorra egingo dute erretiratuen elkartean.
Bihar, zapatua, Landatxopen, 17:30ean

**BERGARA Bisita gidatua Errege Seminarioko eliza ezkutura**
Ondarea bertatik bertara ezagutzera emateko kanpainaren barruan, Errege Seminarioko eliza ezkutura bisita gidatuak egingo dituzte aste bukaeran: zapatuan euskaraz eta domekan gazteleraz. Seminarioko arkupeetan elkartuko dira interesatuak bisita gidatua hasi baino bost minutu lehenago.
Aipatutako egunetan, seminarioan, 12:00etan

**OÑATI Pake Lekukoen batzarra**
Urteko batzar orokorra.
Martxoaren 31n, Santa Anan, 17:30ean.

**BERGARA Pazkoak antolatzeko**
Batzar orokorra izango da.
Martxoaren 31n, udaletxean, 18:30ean.

## GAZTEAK

**ARRASATE Erakusketa eta musika**
Arrasateko eta inguruko herrietako gazteen artelanak ikusgai. Bestalde, hiru bikotek kontzertu akustikoak egingo dituzte.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 20:00etan.

## Debagoieneko Lanbide Heziketako esperientziak ezagutuz

GOIAZ! Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

**GOIAZ! 2015**
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Apirilaren 15ean eta 16an;
Kulturaten, Arrasaten.

Prestakuntza arloko eskaintza
Enplegu zerbitzuak
Ekintzaileentzat zerbitzuak
Tailerrak eta hitzaldiak
Aparatuak eta esperimentuak

www.facebook.com/goiazdebagoiena
www.twitter.com/goiazdebagoiena

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoa ekintzailea

Itziar Bueno legazpiarra Oñatiko Gestio Heziketan Administrazio eta Finantza goi mailako heziketa zikloa ikasten ari da; ikasketak lanarekin bateratzen ditu Enpresagintza Fakultatean bertan, egun erdiz lan eginda..

**Zerk bultzatu zaitu Lanbide Heziketa ikastera?**
Idazkaritza diplomatura ikasi nuen hemen, eta, urte batzuk lanean ibili eta gero, kontratua bukatu zitzaidanean, erabaki nuen finantza arloa gehiago garatzea, eta horrela etorri nintzen Lanbide Heziketa ikastera.

**Zer eman dizu Lanbide Heziketak?**
Unibertsitatean ikasi ez genituen hainbat gai ikasten ari gara; finantzak, pertsonal arloko administrazio-lanak… Horrela, profil profesionala osatzen ari naiz.

**Lanera begira, onurarik izango du Lanbide Heziketako ikasketak egiteak?** Orokorrean, ikasketak izateak lana bilatzeko erraztasunak eskaintzen ditu. Baina merkatuak eskatzen duena ikastea garrantzitsua da; nik ere horrela ikusten dut nire burua, oraindik ikasten. Lanbide Heziketan hainbat ziklo egin daitezke, edo animatu unibertsitatean jarraitzera arloa gustuko izanez gero, edo hizkuntzak ikastea erabaki daiteke.



"Lanbide heziketarekin profil profesionala osatzen ari naiz"

**Unibertsitate mailako eta Lanbide Heziketako ikasketen arteko ezberdintasuna zein da?**
Lanbide Heziketa zuzenduta dago enpresarako bide horretara; urte eta erdian teoria ikusten da eta gero praktikak egiten dira. Unibertsitatean, arlo honetako ikasketetan, enpresa globalean ikusten da, eta heziketa zikloan bideratuago dago funtzio edo zeregin konkretu batzuetara.

**Gomendatuko zenioke lagun/ezagun bati LH? Zergatik?**
Batxilergotik datorrenarentzat, adibidez, ez badauka oso garbi zer ikasi, uste dut lagungarri izan daitekeela bidea argitzeko: bi urteko ikasketak dira, ondo formatzen dutenak, lan esparruan sartzeko aukera ematen du eta denbora horretan heldutasun maila bat lortzen da, ondorengo erabakiak ere argiago hartzeko. Edo lan-arloan eskatzen den profila osatzeko, formatzen jarraitzeko.




Laboral Kutxa Baskonia – Fenerbahce

partidurako 4 sarrera bikoitzen zozketa

**Apirilaren 2an Buesa-Arenan jokatuko den partidurako (21:00)**

**PARTE HARTZEKO:**

**WhatsApp:** [BASKONIA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Epea: martxoaren 31ra arte.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!


goiena

2015-03-27

BUKATZEKO

# Bergaratik Gironara, pobreziaren kontra

- Intermon Oxfamek antolatzen duen Trail Walker proban hartuko dute parte, bigarrenez
- Helburua da gobernuz kanpoko erakundearendako ahalik eta diru gehien lortzea

**MIREN ARREGI** | BERGARA

Apirilaren 18a da egun handia. Egun horretan, bigarrenez, Bergarako eta Antzuolako kidez osatutako IGAM taldeak Intermon Oxfam GKEk antolatzen duen Gironako Trail Walker proba solidarioan hartuko du parte. Helburua da pobreziaren kontra dirua batzea.

Olotetik irtengo dira goizeko hamarretan eta Bide Berdea deritzona zeharkatuko dute, 100 kilometroko bidea eginda, kostaraino iristeraino: "Aurten disfrutatzea da gure helburua", dio Jon Ander Garitano bergararrak. Eta gehitu: "Iaz lehenengo aldia izanik, proba osoa jarraian egin genuen. Hamazazpi ordu behar izan genituen 100 kilometroak egiteko eta goizeko hiruretan iritsi ginen helmugara. Euria ari zuen eta hotza zegoen. Inor ez zegoen helmugan eta triste samarra izan zen". Hala, aurten, proba lasaitasunez hartu eta Gironan geldialdia egiteko asmoa dute: bi etapatan egingo dute. Apirilaren 19an eguerdi aldera iritsiko dira helmugara.

Ez dituzte 100 kilometroak bakarrik egingo; izan ere, bi lagunez osatutako laguntza taldea izango dute: "Jana, edatekoa, arropak... Eramango dizkigute batetik bestera, autoz". dio Garitanok. Aitor Garitanok eta Bea Zeziagak izango dute lan hori egiteko ardura.



Manso, Aranes, Garitano eta Iglesias aurtengo kamisetarekin. | TERNUA



Parte hartzaileak atzoko Trail Walker proban. | JON ANDER GARITANO

### Iazkoa gainditu

Pobreziaren kontra dirua batzea da probaren helburua. Iaz 4.576 euro batu zituzten eta aurten zenbaki hori gainditu gurako lukete: "Badakigu zaila dela, baina saiatu, saiatuko gara". Dagoeneko 3.500 eurotik gora batu dituzte, kamisetak salduta eta zozketak eginda, besteak beste: "Pertsona batek 500 euro eman berri ditu. Eskertu egin gurako genuke haren ekarpena. Noski, gainontzeko guztiak ahaztu gabe", dio Garitanok, pozik. Ternua eta Lorpen markei, Antzuolako Larrea jatetxeari, Imprespali, Barcelo Bidaiei, Depor tabernari eta Jabi Erostarbe oñatiar diseinatzaileari ere eskertu gura diete emandako laguntza.

Oraindik ere badago tartea dohaintzak egiteko. Hain zuzen ere, apirilaren 16ra arte egongo da horretarako aukera. Bi modu daude: Sabadell Guipuzcoanoko honako kontu zenbaki honetan dirua sartuta (00814257830001137319) edota SMS bidez, *TW G26* mezua bidalita 28018 zenbakira. Mezuaren kostua 1,20 euro da.

AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA



## Aurrera beti

Datorren hilean betetzen dira ehun urte Jose Maria Arizmendiarrieta jaio zela.

Bere jarduera Bilbon eraman izan balu, eta ez Debagoienean, askoz ezagunagoa izango litzateke. Eta abertzaletasun politikoa alde batera utzi izan ez balu, gaur egun miresle askoz gehiago izango lituzke.

Eusebio Erkiagak, baina, honela idatzi zuen 1976ko abenduan, Arizmendiarrieta itzali eta gutxira: "Euskalerria iñork ez dakian aiñean maite izaten jakin dau. Eta ori irakatsi ere bai, ez agirian eta barriketaz, egitada etenbakoetan baiño".

Txostenetan sarritan agertzen da, ezberdintasun ekonomiko-sozialei dagokienez, Debagoienaren egoera orekatuagoa. EGAB erakundearen 2014ko udazkeneko azterlanean ere *(Lurraldeen arteko desorekak EAEn)*, gure eskualdeak ditu adierazlerik hoberenak. Hori, besteak beste, "gauzatxo" bati esker da: Arizmendiarrietak Ulgorreko estatutuetan jasotako ordainsari sistema. Finkatu zuen *soldata* baxuenaren eta altuenaren arteko tarte estua; edo, beste hitzetan, gutxienezko eta gehienezko *soldata*. Mundua aldatzeko moduko ezaugarria. Horretarako eta bizitzarako bazuen esaera bat: aurrera beti!


